

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-03-28
ASTELEHENA
315. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Omar Fraile Gorlan indartsuena

Azken kurban eraso
jota irabazi zuen | 22



Omar Fraile, helmugan. | JULIO CALLEJA

Hiru sindikatua: "Garraioaren sektorea hondamendira doa" | 9



Aurtengo Otxia txakolina, uzta onaren fruitua | 13



Quimi Portetek kontzertua egin zuen atzo Guria tabernan, Oñatin | 31



Bergara Magalirekin

Udal pilotalekua bete egin zen zapatuan Magaliren aldeko jaialdian; 10.000 euro batu zituzten | 29

Ekitaldiaren amaieran, jaialdian parte hartu zutenek eta ikusleek bat egin zuten. | JULIO CALLEJA

Sorturen ilegalizazioaren gainean iritziak batu ditugu

Ibarreko lau kazetari Auzitegi Gorenaren erabakiaz berbetan | 5

Juan Karlos Garitano izango da Arrasaten EAJko alkategai

Jeltzaleek bihar egingo dute Uri Buru Batzarra | 14

Larrialdietarako laguntzak eskuratzea, zailago

Zorroztu egin dituzte laguntzak eskuratzeko irizpideak | 15



Ignacio Casado. | SGAE

"Sortzen jarraitzeko beharrezkoak dira egile eskubideak"

Ignacio Casado | SGAEko zuzendaria | 7

Intxaurtxuetari Manuel Muñoz izena jartzea aztertuko dute etzi

Eskoriatzako udalbatzak eguazteneko osoko bilkuran eztabaidatuko du proposamena | 19




Muñozen semeak, zapatuan. | J.C.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

SARI SORTA

ETA ZURETAKO BADIRA?

► Zoaz 3. orrialdera



LEIRE KORTABARRIA

EGUZKI-ENERGIA Mekanizazio eta mantenuko ikasleek egindako proiektuak (argazkian) erakutsi zituen Zuazola-Larrañak; baita Kirol Ekintzen Gidaritzaren gaineko panel bat ere. Irudian agertzen dira mantenerako zirkuitu bat eta energia fotovoltaiko muntaia bat.



L.K.

MOTORRA, SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasleek bi denborako eta lau denborako automobil-motorrak prestatu zituzten, eta baita pentsu-nahasgailu bat; horrelakoa propio egin zuten Afrikako garapen proiektu baterako.

'Gurpil zoroa' apurtzeko misioa bere egin dute Lanbide Heziketa zentroek

- ▶ Gazteak animatu nahi dituzte gero eta hobeto prestatzera, lana errazago topatzeko
- ▶ Euren hezkuntza eskaintzaren berri eman zuten Goiaz! 2011 Lanbide Heziketa Azokan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Txikibuda eta Superlamita *klown*-ak misio espazial eta berezi batekin etorri ziren joan den egunean Arrasatera: hainbat gazte harapatuta dauden gurpil zoroa apurtzea. Aukera izan zuenean, batek ez zuen ikasi nahi izan, eta gero ez zuen lanik topatu; eta orain, lan barik dago, bere garaian ez zuelako ikasi nahi izan eta ez dagoelako nahiko prestatuta. Eta gurpil hori apurtu ezean, horrelaxe jarraituko du, langabezian...

Hori jakinarazi zieten Kulturaren batutako guztiei, eta segidan, misio horretan lagundu behar zieteneko paso eman zieten: Debagoienerako Lanbide Heziketako Azoka (Goiaz! 2011) egiten zebiltzanei, bailarako Lanbide Heziketako zentroetako arduradunei, alegia. Txikibuda eta Superlamitak umore kutsuan esandako mezua arduradun horiek ere bere egin zuten azokan zehar: krisiak ez dituela gazteak kikildu behar, baizik eta indarra eman ikasten jarraitzeko, eta ondo prestatuta daudenean aukera gehiago izango dituztela lana topatzeko, horixe baita enpresak bila dabiltzana.

Lehen harremana egitera

Goiaz! 2011 azokan, bailarako Lanbide Heziketako Zentroak izen ziren euren eskaintza jakinarazten: Oñati Gestio Eskola (Mondragon Unibertsitatea), Goi Eskola Politeknikoa (Mondragon

Unibertsitatea), Arizmendi Ikastola, Mariaren Lagundia Ikastola, Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI-EPA), Zuazola-Larraña Institutua, Miguel Altuna Institutua, Aretxabaleta Lanbide Eskola, Itsasmendikoi eta Lanbide Hastapena; formazio zentro batzuk (Bastida akademia, Ikasi prestakuntza zentroa eta Gureak-Akademi), enplegu zerbitzuak (Lanbide eta EURES Europako enplegu zerbitzua); Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako udaltako enplegu zerbitzuak; ekintzaileendako zerbitzuak (Debagoienerako Mankomunitateko Garapen Agentzia eta Saiolan),

eta beste erakunde batzuk (Saiolan eta Alecop).

Bisitariak, gazteak zein gurasoak, atenditzen egon ziren. Erakusketariak esaten zutenek ez zuten Lanbide Heziketa ezagutzen: "Ikasleek ez dute oso garbi izaten zer gura duten. Azokara etorri dira ikustera zer diren ziklo formatiboak. DBH egindakoak dira, eta zikloak ezagutzera etorri dira", esaten du Aretxabaleta Lanbide Eskolako Amaia Arantzabalek.

"Ze lan-irteera du honek?"

Krisia eta langabezia, ordea, eten barik entzun izan dituzte gazteok,

eta horiek dituzte buruan askok. Amaia Arantzabalek esaten duenez, krisiak "begiak irekitzera" behartu ditu Lanbide Heziketako eskolak: "Ikasi beharra, norbera prestatu beharra dagoela gogorarazi digu krisiak, eta prestatu barik ezin daitekeela lanik lortu".

Antzeko mezua eman nahi izan zuen Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako arduradun Edurne Erauskinek: "Gehien entzuten duguna galdera da, "Ze irteera du ziklo honek?" Guk esaten diegu ateak ez daudela itxita; nahiz eta gauza bat erabaki une jakin baten, beste ate asko irekitzen dira, eta toki bate-

ra joateko bide asko daude". Krisia aukera gisa ikusi dezaketela gaineratu zuen Erauskinek: "Jende asko dago langabezian; eta lana topatzeko, norbera ondo kualifikatu behar da. Orain da momentua; aprobeztatu egin behar da eta formazio hobea lortu, lan merkatuan hobeto kokatzeko".

Bergarako Miguel Altuna Institutukoak ere, aurreko bi edizioetan egin zuten bezala, azokan izan ziren aurten. Han Administrazio, Elektrizitate eta Mekanika arloetako erdi eta goi mailako heziketa zikloak dituzte; goi ziklora sartzeko sarrera-probarako prestakuntza ere ematen

ESANAK



"Lan-formakuntza jaso dezakete, eta graduatua atera dezakete"

RAFA UGARTE | LANBIDE HASTAPENEN ARDURADUNA



"Krisiak erakusten digu prestatu gabe ez dagoela lanik"

AMAIA ARANTZABAL | ARETXABALETAN LANBIDE ESKOLAKO ORDEZKARIA



"Matrikula kopurua asko handitu da azken urteotan"

CRISTINA GONZALEZ | BERGARAKO MIGUEL ALTUNA INSTITUTUKO ORDEZKARIA




"Ahalik eta gauza berritzaileenak jasotzen ditugu gure eskaintzan"

KEPA ALTUBE | OÑATIKO ZUAZOLA-LARRAÑA BHI-KO ZUZENDARIA



ELEKTRIZITATEA MUko Goi Eskola Politeknikoak ekarritako elektrizitate estatikoa sortzeko aparailuek ikusmin handia piztu zuten. Argazkian, Iñaki Velez de Mendizabal arduraduna, erakustalditxo bat egiten.



MILAKA PUNTU Mikel Gartzia eta Hilario Corderok eskaner berritzaile hori erakutsi zuten: hiru dimentsioko edozein pieza eskaneatzen du, puntu bidezko irudia hartuz, eta horrela ez dago pieza hori marraztu beharrik.

dute, graduondoko bat, eskaintza partziala, eta ikastaroak; azken horiek lanean daudenendako zein langabeendako dira. Institutu horretako ordezkari Cristina Gonzalezek esan zuenez, "orain, langabe asko" doa euren ikastetxera, "bai arratsaldean ikastaroak egitera, baita ziklo osoak egitera ere. Matrikulak nahiko ugari dira azken urte hauetan, bai".

Mariaren Lagundia Ikastola-ko zuzendari Gotzon Iparragirrek esan zuenez, "orain dela bi edo hiru urtetik hona, krisiagatik, asko zabaldu da zikloak ikasten dituztenen adina". Gaineratu zuenez, Lanbide Heziketa eta gero, "ikasteko gogoia eta lan egiteko presara" dutenei zuzenduta daude euren ikasketak.

Batez ere, goi mailako zikloak Eustat Euskadiko Estatistika Erakundearen datuak dira: 2009/10 ikasturtean, Gipuzkoan, Lanbide Heziketa egiteko %11 jende gehiago matrikulatu zen, eta goi mailako zikloetan ugari ziren gehien matrikulak: tarte horretarako %9,8 jende gehiago matrikulatu zen; Erdi mailako zikloetarako, berriz, %8,2 gehiago.

Goiaz! 2011 azokan egon ziren zentroek esandako bi maila horietako ikasketak ematen dituzte,

MARTXOKO SARIEN IRABAZLEAK

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Izen-abizenak:
M. Jesus
Ramirez Telleria
Herria: Antzuola
Saria: Kamera



Izen-abizenak:
M. Angel
Guridi Urtzelai
Herria: Oñati
Saria: Kamiseta



Izen-abizenak:
Garbiñe
Beitia Azkarate
Herria: Eskoriatza
Saria: RIP-en DVD-a



Izen-abizenak:
Jose Ramon
Lasaga Arana
Herria: Oñati
Saria: Liburuak



ZORIONAK, GUZTIOI!

eta enpresek eskertzen dute horiek ikasi dituzten langileak egotea.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Oñati Gestio Eskola eta Goi Eskola Politeknikoak goi mailako zikloen berri ematera joan ziren. Oñati-ko fakultateko Iñaki Gaztañagak

eta Arrasateko fakultateko Iñaki Velez de Mendizabalek kontatu ziguten zelan eguen goizean Mondragon Korporazioko arduradun baten bisita izan zuten, eta hark esan ziela "batez ere, goi mailako kualifikazioa duen jendea bilatzen" dabilzala. "Erdi mailako zikloak

egin dituztenak ere bai, baina batez ere, goi ziklodunak", esan ziguten MUko bi ordezkari horiek. *Lanerako prest!* lelopean eman zuten MUko bi fakultate horietako eskaintzaren informazioa.

Bestalde, Lanbide Heziketa azoka "oso komenigarria" zela

esan ziguten, batez ere "18-20 urte arteko gazteendako", baina baita zentroendako ere, Debagoienan zenbat Lanbide Heziketa ikastetxe dauden eta bakoitzak zer eskaintzen duen hobeto jakiteko.

Erdi mailako zikloek ere eskara maila polita dute, ikasleen eta enpresen aldetik. Aretxabaleta Lanbide Eskolako Anton Intzak esan zigunez, "Erizaintzako Zaintza Osagarrien zikloak arrakasta handia du, lan-merkatua ere horik doalako". Bestalde, esan zuen automobilgintza sektorean, tailerrek "asko eskatzen" dabilzala goi mailako eraikuntza metaliko espezialitatea egin duten langileak.

Eta berrikuntza ere ailegatu da Lanbide Heziketako ikastetxetara, jakina. Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko zuzendari Kepa Altubek energia fotovoltaikoarekin ikasleek egindako proiektua erakutsi zigun, eta, bere hitzetan, "argi dago ikastetxeak eta Lanbide Heziketa zentroak sektore berrietan sartu behar dela. Gero eta gehiago saiatzen gara hezkuntza gaur egun gizarteak dituen erronketara egokitzen".

ESANAK



"Aukeran dauden zikloen gainean orientatzen dugu jendea"

MIREN ERRASTI | BIZIKASIKO
ARDURADUNA



"Ate asko daude zabalik; helburu bat bide askotatik lor daiteke"

EDURNE ERAUSKIN | ARIZMENDIREN
LANBIDE HEZIKETAKO ORDEZKARIA



"Azoka hauek oso komenigarriak dira, gazte zein zentroendako"

IÑAKI GAZTAÑAGA | ENPRESAGINTZA
FAKULTATEKO ORDEZKARIA



"Batez ere, goi mailako ziklodun langileak behar dituzte enpresek"

IÑAKI VELEZ DE MENDIZABAL | GOI
ESKOLA POLITEKNIKOKO ORDEZKARIA

Zuhaitz motzak kontserbatzeko egitasmoa bide onetik doala ondorioztatu dute Arantzazun

- ▶ Europako egitasmoaren gidaritza batzordea Gandiaga topagunean batu zen egubakoitzean
- ▶ Orain arte egindakoak baloratu eta hemendik aurrerakoak koordinatzeko pausuez jardun zuten

MIRIAN BITERI | OÑATI

Europako *Life+Bioaniztasuna eta Zuhaitz Motzak* egitasmoaren gidaritza batzordea bildu zen egubakoitzean Arantzazuko Gandiaga topagunean, orain arte egindakoak baloratzeko eta egiteko daudenen koordinazioan aurrera egiteko. Egitasmoaren bazkide onuradun eta proiektuaren lider Gipuzkoako Diputazioa eta entitate kolaboratzaileak (Eusko Jaurlaritza, Basoa Fundazioa, Aranzadi, Itsasmendikoi eta IKT) izan ziren batzar horretan, Oñatiko alkate eta hainbat natura-parkeen ordezkariekin.

Babesleku naturala

Gipuzkoako Diputazioko Mendi eta Natura Inguruneko zuzendari Asier Arresek azaldu zuen urtebete eskas jarri zela martxan. Haren esanetan, "proiektua oso ondo doa, eta beste bi urte geratzen zaizkigu martxan jarritako lan ildoetan sakontzeko. Zuhaitz motzak asko mozten dira eta egun zuhaitz zaharren funtzioa betetzen dute, eta horregatik, espezie askorendako babesleku naturala dira".



Batzordeko kideak egubakoitzean, Artason; atzean, langileak pagoa inausten. | MIRIAN BITERI

Arresek aipatu zuen hiru zati nagusi dituela proiektuak. Batetik, ezagutza maila dago; hain justu ere, Aranzadiren eskutik bere garaian baso lanetan ibili ziren mutilen ezagutza jasotzea, galdu ez dadin. Bestetik, esku pribatuetan dauden eta garrantzi berezia duten basoen erosketa lantzen ari

dira. Hirugarrenik, Gipuzkoako hainbat tokitan urtero 50 pagadi hektarea berri inaustea. Mendi eta Natura Inguruneko zuzendariaren arabera, "pagamotz berri askotan ez zen egiten, eta proiektu horretan, baso horien berritzea aurreikusten da, denbora gehiago iraun dezaten. Hemen eta han

ikusitakoak 2 eta 5 hektarea arteko baso eremuetan osterera ere inausten".

Arresek proiektu horren balio kulturala eta biologikoa azpimarratu zuen: "Bizirik dauden fosil etnografikoak dira zuhaitz horiek. Bizirik daude eta natura ikuspegitik altxor txikiak dira; eta bes-

tetik, ikuspegi kulturaletik, balio estetikoaz gain, horren gainean dauden mitoak eta kondairak ere badaude. Fosil etnografikoak dira, gaur egun bizirik ez dagoen baina orain dela 50 urte arte oso bizirik zegoen ikazkintzaren erakusle direlako".

Bileraren ondoren, parte-hartzaile guztiek Artaso basora ingurrunera joan ziren, bertan langile bik pagoak nola inausten zuten ikustera.

ESANAK

"Proiektua oso ondo doa, eta bi urte geratzen dira martxan jarritako lan ildoetan sakontzeko"

"Fosil etnografikoak dira, orain dela 50 urte arte bizirik zegoen ikazkintzaren erakusle dira"

ASIER ARRESE | DIPUTAZIOKO KIDE

Eskoriatzako hilerri zatiko bidegorriaren lanak inauguratu zituzten egubakoitzean

Alkateak Arabako mugarainoko zatia egiteko eskatu zion Carlos Ormazabali

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza-Hilerria izenez ezagutzen den bidegorri zatiaren obra inauguratu zuten joan den egubakoitzean. Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua eta Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkatea izan ziren ekitaldian.

Horren bidez bizikleta eta oinezkoendako egokituta gelditu dira Arrasate eta Eskoriatza arteko 6 kilometro. Tarte 267 metro luze da. Eginiko azpiegituren artean ikusgarriena, hilerri azpian egokitu duten 160 metroko luzera duen tunela da. 1967. urtera arte erabilgarri egon zen Vasco-Navarro trenbide zaharreko tunela aprobeztatu dute, hain zuzen.

Inaugurazio ekitaldian, Ormazabalek zati horren irekieraren



Ormazabal eta Lasagabaster, inaugurazioan. | IRATI GOITIA

garrantzia azpimarratu nahi izan zuen, bidegorriaren bidez Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza lotzen direlako. Haren esanetan, "lantokiak eta herri guneak ere lotzen ditugu, eta, beraz, herritar guztiei lanera joateko bizikleta erabiltzeko gonbita egiten diet". Diputazioak 819.000 euro bideratu ditu bidegorria egiteko.

Mekolalde-Landa

Lasagabaster ere pozik agertu zen, bidegorriko obra guztia "txukun" geratu delako@€, eta bereziki,

tunela. Dena dela, Eskoriatzatik Arabako mugara doan zatia oraindik egin barik dagoela gogorarazi zuen. 1998an AP-1 autobidearen harira argitaratutako deklarazioaren arabera, autopistako obrek eragindako kalteen neurri konpentsatzaile gisa, autopista bukatu eta gehienez urtebeteko epean bukatu behar zen Landa-Mekolalde tarteko trenbide zaharraren balorizazioa. Konpromiso hori ahaztu ez dezan, 1998ko deklarazioaren kopia bat eman zion diputuari.

Mendiko kirolak eta erabilera tradizionalak nola uztartu aztergai

M.B. | OÑATI

Espainiako mendi federazioetako ordezkariak eta naturagune babestuetako kudeatzaileak Arantzazun egingo dute aurten bi urtean behin egiten duten mintegia. VI. mintegia izango da eta apirilaren 8an, 9an eta 10ean egingo da.

Bi idatzi adostuko dituzte: *Mendiko lasterketak naturagune babestuetan* izango da lehenengoa; eta bigarrena, *Nola uztartu mendiko kirolak eta erabilera tradizionalak*. Izan ere, hesiak zabalik uzteak edota gisa horretako zenbait kirolarik izan ohi dituzten portaerek

baserritarren haserrea eragiten dute askotan.

Apirilaren 8tik 10era

Apirilaren 8an inauguratuko dute mintegia, Oñatiko kultura etxean, 19:00etan. Asmoa da bertan izatea Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Rafa Uribarren, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Espainiako Mendi Federazioko presidente Joan Garrigos. Mintegia bera apirilaren 9an, zapatua, egingo dute, Arantzazun. Eta 10erako, domeka, mendi irteera prestatu dute Arantzazu eta haren inguruak ezagutzeko.

Oraindik ere eros daitezke Korrika 17ko kilometroak

Apirilaren 14an iritsiko da Korrika 17 Debagoienara. 05:00ak aldera sartuko da Elgetatik eta eguerdian alde egingo du, Gatzagatik, gurean 73 kilometro egin eta gero. Bada, oraindik aukera dago kilometro horietako bat erosteko, 400 eurotan (500 udal eta erakundeek), 943 77 03 69 zenbakian.

Sakabanaketa islatzen duen argazki erakusketa Oñatin

Euskal presoen sakabanaketa bere gordintasunean erakusten duen argazki erakusketa zabalduko dute etzi Oñatiko kultura etxean. *Km.0* du izena eta adierazi gura duena da, hain zuzen, presoen senideek 0 kilometro egin beharko duten eguna. Apirilaren 12ra arte egongo da irekita, 18:00etatik 20:00etara.

DATUA

6

KILOMETRO

Tarte horren bidez Arrasate eta Eskoriatza lotu dute.

Ezker abertzalea hauteskundeetan egongo dela uste dute kazetariak

Goienak lau kazetari galdetu die Gorenak Sortu legez kanpo uztearen inguruan; sorpresa gutxi eragin du erabakiak | TXOMIN MADINA

MARTIN GARITANO
INFO7 IRRATIA

"Argi geratzen da berriro Espainiar estatuak frankismoaren erreformaren esklabutzapean jarraitzen duela"

1. "Espainiar Estatuak ez dauka legoera berri baten aurrean erantzun demokratikoa emateko gaitasunik. Argi eta garbi geratzen da berriro frankismoaren erreformaren esklabutzapean jarraitzen duela eta, beraz, ezin dela gauza handirik espero. Gauzak gure kabuz egin beharko ditugu zeren eta beste aldean ez dugu dialektika politikoa mantentzeko kontrakorik. Indarra baino ez dakite erabiltzen eta epai hau indar erakusketa baino ez da".

2. "Bai. Ez neukan inongo espe-
rantzarik, espainiar nazionalistek ongi ederki dakitelako politika egiten uzten badigute, abertzaleok irabaziko dugula, gehiengoa geureganatuko dugula eta hori euren itsasontzi zaharren flotazio marraren kontrako kanoikada dela".

3. "Neurtu beharko dute Estras-
burgoko erantzuna zein izango litzatekeen. Jakin badakite argudiorik ez daukatela, baina orain arte erakutsi duten lotsagabekeria kontuan hartuta..."

4. "Orain arte beti izan da ezker abertzalea. Eta behin eta berriro erakutsi du irudimen nahikoa izan dutela abertzalegoa hauteskundeetan ere ordezkatzeko. Oraingoan zinegotzi eta alkate abertzale eta ezkertiar asko hautatuak izango direlakoan nago".

MIREN JOSU ARRAZOLA
EUSKAL TELEBISTA

"Esanguratsua da erabakia oso eztabaidatua izatea"

1. "Uste dut Estatuari begira har-
tutako erabakia izan dela, izu-
garrizko presio politikopean. Edonola ere, erabakia oso ezta-
baidatua izan da: zazpi epailek legez-
tatzearen alde bozkatu dute. Oso esanguratsua da hori. Dena dela, alderdien legeaz haratago, Sorturen apustu politikoa zintzotasuna epaitu dute. Sortuk ez omen du egin nahikoa, baina pau-



Martin Garitano | GOIENA



Miren Josu Arrazola. | M.J.A



Maria Agirre | GOIENA



Felix Iriarte. | GOIENA

so bat eman duen bakoitzean baldintza berriak edo bere esku ez daudenak ere ezarri zaizkio".

2. "Esperotako erabakia zen. Jakina da nork izendatzen dituen epaileak; nork presionatu duen gehien Sortu ez legezatzeko eta, inkesten arabera behintzat, nor egongo den laster Espainiako gobernuan".

3. "Gorenaren erabakia hain eztabaidatsua izan eta gero, eta funtsezko eskubide bat jokoan izanik, Konstituzionalak hauteskundeetarako garaiz atera beharko luke sententzia. Baina, Sorturen alde edo kontra? Sorturen estatutuek legea betetzen dutela inork ez du zalantzan jartzen, baina legalitate hutsaz haratago eraman dute auzia, beraz, zaila ikusten dut. Baina legezatzetarako zirrikitu txiki bat badagoela esango nuke".

4. "Bide desberdinak daude eta seguru ezker abertzalea guztiak aztertzen ari dela: herri plataformak, legezko beste alderdiekin batera joatea... Hauteskunde guztiak dira garrantzitsuak, baina udalak daude herritarrengandik gertuen eta oso garrantzitsuak da

1. Zer iruditzen zaizu Gorenak Sortu legez kanpo uztea?
2. Espero zenuen?
3. Konstituzionalak zer erabakiko dugu? Sortu hauteskundeetan egongo da?
4. Ezker abertzalea egongo da hauteskundeetan? Nola?

erakunde horietan ordezkaritza izatea; are gehiago, gurean bezala, ezker abertzaleak herritar askoren babesa duen eskualdeetan".

MARIA AGIRRE
EUSKADI IRRATIA

"Noiztik da arrazoi juridiko bat epaileak fio izatea edo ez?"

1. "Justizia independentea dela ikasi genuen, baina Espainiako epaileak oso kutsatuta daude komunikabide eta politikariengandik, eta oinarri juridiko gutxiko erabakiak hartzen dituzte. Ez omen dira fio epaileak; noiztik da hori arrazoi juridiko bat? Egoera hori izanik, Sortuko bultzatzaileek ere espero omen zuten ezezkoa. Epe luzeagorako estrategia edo aukera bat izango da Sortu".

2. "Azkenaldian esan eta entzun direnak eta gero, gutxi gorabehera pentsatzen nuen erabakia hori izatea".

3. "Ematen du gidoia idatzita dagoela. Politikariei entzun diet esaten Konstituzionalak legezatu-

ko duela, baina hauteskundeetarako berandu. Beharbada, Espainiako justizia lotsagarri ez geldituzeko edo, Konstituzionalak onartu egingo du. Espainiako sektore politiko zabal bati ez zaio ETArrik gabeko eszenatokia interesatzen: ETaren eta ezker abertzalearen aurkako politikak botoak ematen ditu, eta ezker abertzalekoak legezatzeko botoak kentzen".

4. "Ezker abertzalekoek B plana dute, jada nahikoa lotuta, EArekin eta Alternatibarekin. Ez dakit nola, independente gisa joanda akaso. Baina polizia, fiskal eta Espainiako gainontzeko aparatuek gainean izango dituzte, oztopoak bata bestearen atzetik jarriz. Ez diete erraz jarriko".

FELIX IRIARTE
'FREELANCE' KAZETARIA

"Uste dut Euskal gizarteak argi daukala Sorturen apustua benetakoa dela"

1. "Erabaki txarra iruditzen zait, osasun demokratikoaren ikus-
puntutik begiratuta, atzerapausoa. Epaileek sarritan ez dute aintzat hartzen gizarteak zer uste duen, eta kasu honetan nabarmen geratu da hori. Uste dut euskal gizarteak argi daukala Sorturen apustua benetakoa dela, ETaren indarkeriaren kontra azaldu dela eta ez dagoela batzuek ikusi gura duten tranparik".

2. "Zalantzak ditut: azken egune-
tan ikusten zen Gobernuaren presioa, PPre presioaren aurrean makurtuta. Azken momentuan, uste dut epaileek ere nahikoa presio izango zutela. Alde horretatik zaila zegoen, baina azkenean erabakia nahikoa estua izan da, eta horrek ere erakusten du ez dela akordio bateratua izan. Espero? Gauzak hain argi daudenean, beti duzu itzaropena".

3. "Aurrekari bat egon arren, ikusi egin beharko da Gorenak nola argudiatu duen legez kanpo uztea. Zaila izango du, eta beste gauza da bat noiz hartuko duen erabakia. Maiatzeko hauteskundeetan Sortu marka propioarekin egotea, oso zaila da".

4. "Ohiko ezker abertzalea egongo da hauteskundeetan: boto hori zenbatuko da eta ordezkariak izango ditu. Ez dakit nola, baina seguruenik dagoeneko lanean egongo dira".

"Garraioaren sektore osoa hondamendira" doala dio Hiruk

- ▶ Hiru sindikatuak mobilizazioak egiten dihardu
- ▶ Erregaien krisiagatik, kostuak ezin dituzte berdindu

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Erregaien prezioak ez du atsedenik ematen ez eta txikitzeko aztarnarik erakusten, eta euskal ekonomiaren Barne Produktu Gordinaren %7 ematen duen eta Hego Euskal Herrian batzen diren zeharkako zergen %40 ematen duen sektoreak, garraiolariak, ezin du gehiago. "2009. urte hasieran krisi ekonomikoa hasi zenetik, garraiolari autonomoek arazo handiak izan dituzte kostuak berdintzeko, eta lan jarduerari baldintza duinetan eusteko. Une honetan eta erregaiaren prezioaren igoeraren ondorioz, sektore osoa hondamendirako bidean dago, garraiolariak ezin dituztelako kostuak berdindu", salatzen

DATUA
2.800
GARRAIOLARI

Hego Euskal Herri osoan, 2.800 garraiolari autonomok sektorea utzi behar izan dute krisiagatik, salatzen du Hiru sindikatuak.

du Hiruk, Euskal Herriko Garraiolarien Sindikatuak.

Horrela bada, gaur, astelehenan, Nafarroako Enpresaburuen Elkartearen aurrean protesta egiteko batuko dira garraiolariak. Joan den astean, Confebask-en egoitzaren aurrean batu ziren.

Eskatzen diete ere Nafarroako, EAeko eta Espainiako gobernuari "beste alde batera begiratzeari uzteko" eta neurriak hartzeko. Horrela egin ezean, dio Hiruk, "garraio sektorea desgertu" egin daiteke.

Erregaien prezioa honakoa izan da joan den astean: 95 gasolina, 1,287 euro; 98 gasolina, 1,412 euro; eta A gasolia, 1,282 euro.

Gastuen erdia edo gehiago

Hiru sindikatuak esaten du "azken sei hilabeteetan, gasolia %20" garestitu dela Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horrenbestez "erregaia garraiolari batek hilean duen gastuen erdia edo gehiago" izaten da. Horren ondorioz, *dum-*



LEIRE KORTABARRIA

TAXILARIAK, BESTE KALTETU HANDIAK Taxi gidariek ere bereziki sumatzen dabilta erregaien etengabeko garestitzearen eragina. Horixe azaltzen du Aitor Otxoa taxilari arrasatearrak (argazkian): "Automobileko depositua betetzea 80 euro inguru kostatzen zait orain, duela urtebete baino 15 bat euro gehiago". Otxoaren esanetan, geltokietan "oso bezero gutxi" etortzen zaizkie: "Autobus gehiago daude, Arrasaten urbanoa ere dago, eta jendeak gehiago begiratzen dio poltsikoari. Igarri dugu bezero kopuruan, bai", esaten digu. "Batzuetan, taxilariok ahaztuta sentitzen gara Foru Aldundiaren eta beste erakundeen partetik", esan du. Alde positiboan, bailarako enprekin eta kooperatibekin lan egiten jarraitzen dute; hortik datorkie lan gehiena.

ping egoeran daudela salatzen dute, hau da, euren kostuak berdintzeko aukerarik ematen ez dien egoera baten lanean: "Petrolioaren gaineko espekulazio basatia, gasolioaren zergen igoera eta Libiako krisia garraiolari autonomoa ordaintzen ari da, besteen merkantziak eramateko diru ordaintzen ari baita", esaten du Hiruk. *Dumping* egoeraren ondorioz, Hiruren arabera, orain arte 2.000 garraiolari baino gehiagok

EAEn eta 800 batek Nafarroan sektoreari utzi behar izan diote.

Prezioa, fakturan

Garraiolari autonomoek eskatzen dute "sektorea antolatze" eta "kargadoreekin, bezeroekin negoziatzeko gaitasuna" berreskuratzea; eta 2008ko ekainean lortu zuten tresna bat berreskuratzea, gasolioaren prezioaren gorabeherak era automatikokoan fakturan islatzea.

Euskal banku-talde handiena osatzear da

Kutxak, BBK-k eta Vital Kutxak bat-egite hotza egingo dute, bakoitzaren izaerari eutsiz

L.K./IRATI GOITIA | BERGARA

Kutxak, BBK-k eta Vital Kutxak bat-egite hotza egingo dute, hau da, bat egingo dute baina norberak bere izaera gordeko du. Kutxak eta Vitalek jakinarazi zioten eguaztenean Balio Merkatuaren Espainiako Batzordeari "banku lizentzia" baten bidez hasiko zutela bion arteko bat-egitea. Jakinarazpen berean, hiru kutxetako presidentek esan zioten ados jarri direla hiru kutxak bat egiteko, "norbere nortasuna eta erakundeei eutsita".

Hala, Euskal Herriko banku-talde handiena eta Hego Euskal Herriko eta Espainiako bosgarren handiena izango dira. Hirurek 80.000 milioi euroko aktiboak dituzte, eta 900 bulego.

Lazpiur: "Orain ere balekoa da"

Confebask-eko buru Miguel Lazpiur bergararrak aurrezki kutxen erabakia enpresendako "lagungarria" izango dela esan zuen eguenean Garaia gunean egin zuen hitzaldi baten. Enpresek duten arazo nagusia finantzarioa dela esan zuen: "Enpresok

DATUA
5.
HANDIENA
Hego Euskal Herrian eta Espainian diharduen 5. talde handiena izango dira.

hiru urte daramatzagu oso egoera txarrean lanean eta hori gainditzeko diru beharra dugu: esku dirua eta baita inbertsio berrietan sartzeko dirua ere".

Finantzazio arazoaren aurrean, aurrezki kutxek hartu duten bateratzeko erabakia berri pozgarria dela esan zuen: "Nahiz eta orain etorri, berri pozgarria da. Orain dela sei urte zen hori egiteko garaia, baina orain ere balekoa izango da. Egia da ordea, orduan egin izan balitz, Euskadiko kutxak erreferente izango zirela egun Espainian. Hala ere, albiste positiboa da eta ea bide horretatik jarraitzen duten".

Mondragonek eta Industria Sailak euren elkarlanaren garrantzia berretsi zuten

Unda eta Aldekoa eguenean batzartu ziren, 2010-2013 Lankide Hitzarmena eguneratzeko

L.K. | BERGARA

Mondragonek eta Industria sailak euren Lankide Hitzarmenaren garrantzia berretsi zuten, esanez EAEn "garapenerako funtsezko motorra" dela. Horregatik, Industria Sailaren "politikak, tresnak eta baliabideak" Mondragonen "enpresa helburuen mesedetan" jartzea lortu nahi dute, euskal industria lehiakorrago egiteko. Eguenean, 2010-2013 aldirako duten hitzarme-

naren jarraipena egiteko batzartu ziren, Industria sailburu Bernabe Unda eta Mondragoneko presidente Jose Mari Aldekoa buru zirela.

Informazioa eta komunikazioa, Ekintzailtza, Enpresa garapena, Teknologia eta berrikuntza, eta Nazioartekotzea dira hitzarmenaren arloak.

Ekintzailtza arloan, Mondragoneko Berrikuntza, Sustapen eta Ezagutza Sistema ezar-

ESANAK

"Lankidetzaren Hitzarmena EAE garatzeko motorra da"

MONDRAGON KORPORAZIOA

tzeko prozesurako elkarlana aztertu zen, baita Sustapen Zentro Korporatiboak eta Dibisioetako Zentroek gidatzen dituzten proiektuak gauzatzeko ere. Saio-laneko Finantzaketa hitzarmena mantentzea erabaki zen.

Enpresa Garapenaren arloan, proiektu estrategiko nagusiak aztertu zituzten, horien artean Citycar-Range Extender eta Oro-IDeO Berrikuntza Gunea.

Debagoienak lider izaten jarraitzen du I+G gastuan

Debagoienak lider izaten jarraitzen du Ikerketa eta Garapen gastuan, Eustat estatistika erakundeak emandako datuen arabera. Hala, 2009an, Barne Produktu Gordinaren %4,58 gastatu zuen Debagoienak arlo horietan. Inbertsioen kapituluan ere, Debagoiena goiko postuetan kokatu zen, 115 milioirekin.

Pertsonengan oinarritutako diseinua ezagutzeko jardunaldiak

Pertsonengan oinarritutako diseinu berritzaileak aztertzekeo Design jardunaldiak antolatuta dituzte Mondragon Unibertsitateak eta Diseinu Berrikuntza Zentruak apirilaren 14 eta 15erako, Garaian. Philips, Fagor, Gureak, Once, Adom-Matz Erreka eta beste enpresa batzuek egin dituzten diseinu esperientziak ezagutzeko aukera izango da.

Ordu aldaketarekin urtean 6 euro bakarrik aurrezten da etxean

Domeka goizaldean izan genuen ordu aldaketarekin, etxeko gastuan "oso gutxi aurrezten" dela dio Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak: urtean 6 euro etxe bakoitzeko, dio. Gehien aurrezten da argiteria publikoan: FNeNergia erakundearen arabera, %3 aurreztu dezakegu horretan.

Ignacio Casado | SGAE taldeko zuzendaria Euskadin

"Sortzaileek sortzen jarraitzeko beharrezkoak dira egile eskubideak"

- ▶ 'Komunikaldiak 2011: egile eskubideak' jardunaldia egin zuten Huhezi fakultatean
- ▶ Ignacio Casadok jabego intelektualaren eta egile eskubideen garrantziaz jardun zuen

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Eskoriatzako Huhezi fakultatean *Komunikaldiak 2011* jardunaldia egin zuten joan zen eguaztenean. Egile eskubideak izan zituzten aztergai jardunaldian; eta, besteak beste SGAEko Euskadiko zuzendaria izan zen Eskoriatzan hitzaldia egiten. Harekin izan gara, egile eskubideak zer diren eta zelan eragiten duten jakiteko.

Sorkuntza eta kulturaren etorkizuna bermatzeko egile eskubideen garrantziaz jardun duzu.

Jabego intelektualaren eta sortzaile eskubideen gainean aritu naiz Huhez in egin dudana hitzaldian. Ikasleak bi aspektu hauek duten garrantziaz ohartarazten saiatu naiz.

Garrantzitsua da bai sorkuntza eta kulturaren etorkizunari begira, eta baita sortzaileek sortzen jarraitzeko behar beste diru sarrera izan dezaten ere.

Gaia izan da: *La propiedad intelectual y los derechos de autor: el salario de los creadores*. Sortzaileak egile eskubideez bizi dira?

Are gehiago, egile eskubideak sortzaileen soldata dira. Kudeaketa taldeetan biltzea erabaki zuten duela urte asko, kolektiboki euren soldatari eusteko bide bakarra zelako. Kulturaren lanlegoa osatzen dute.

SGAEk oso irudi txarra du gizartean, baina, hala ere, 100.000 bazkide inguru ditu Espainian.

Bai, taldeak duen irudi txarraren atzean enpresa talde handien eta lobby politikoen eskua dagoela esan daiteke, baina errealitatea zera da: guk indarrean diren legeak aplikatu baino ez ditugu egiten eta horrek ahalbidetzen du sorkuntzaren eta sortzaileen etorkizuna.

Horren ondorioz, sortzaileek euren laguntza agertzen digute; hala, dagoeneko ia 100.000 elkarkide egin dute apustu kudeaketa kolektiboaren alde SGAEen, gainontzeko kudeaketa entitateak (AIE, CEDRO, AISGE, VEGAP...) alde batera utzita.

Zenbat obra dituzue erregistratuta eta zenbat bazkide zarete?

Euskadin ia 4.000 elkarkide gara, eta Espainia mailan, esan bezala, ia 100.000. SGAEk guztira daraman errepertorioa hiru milioi erregistrokoa da, betiere gure esparruari dagokionez: musika, gidoi dramatikoak, ikus-entzunezkoak eta koreografiak.

Nola egiten du lan SGAEk?

Alde batetik, egile eskubideen



Ignacio Casado SGAEko Euskadiko zuzendaria izan zen eguaztenean Eskoriatzan. | SGAE

kontzeptuan dagokigun bilketa egiten dugu, gerora, sortzaile elkarkideengan diru sarrerak banatzeko edota kultura proiektu ezberdinetan inbertitzeko. Administrazio gastuak kenduta (%10), gainontzeko guztia bi helburu horiei eusteko erabiltzen dugu.

Nola banatzen dituzue kanonaren bidez jasotako irabaziak?

Kultur Ministerioak ezartzen dituzko bideak eta tarifak. Kopia pribatua existitzen denez, konpentsazioa edo kanona ere existitzen da. Eta horren banaketa da: %75 sortzaileentzat, %20 kultura egitasmoentzat eta gainontzekoa administrazio gastuak dira.

Orain, Europatik datorren jurisprudentzia berrian txertatu beharra dago zio hori, baina hori botere legegilearen lana da.

Egile eskubideek zenbat urtetako

"Sortzaileak egile eskubideez bizi dira; are gehiago, euren soldata da"

iraupena dute eta zeintzuk dira eskubide horiek zehazki?

Autorea hil eta gero 70 urte irauten dute eskubideek, eta 80 urte erregistroa 1987a baino lehen gauzatu bazen. Musika erregistro ezberdinek, gidoi dramatikoek, ikus-entzunezkoek eta koreografiak sorrarazten dituzten eskubideez dihardugu, gure kasuan. **Zaila da jendeari ikusaraztea kulturagatik ordaindu egin behar dela?**

Europako beste zenbait herritan ez da zaila. Espainia mediterranea da eta pikarokeriak tarte eta tradizio zabala dauka. Beraz, bai, ordaindu egin behar dela ikusaraztea oso zaila da.

"Autorea hil eta gero, 70 urteko iraupena dute egile eskubideek"

da, berez, erakunde publikoek zergen bitartez atzetik ordaintzen dutena.

Diskoen prezioa merkatzeak pirateria geratuko luke?

Eztabaida hori agortuta dago. Garai batean lagungarri izango zen, baina orain bitarteko berriak eta bereziki Interneteko euskarrien garapenari buruz hitz egin behar da. Hori da etorkizuna; alegia, orain ilegalki egiten dena, euskarri legala eta garatua bilakatzeko.

Zein da SGAEk deskargetarako proposatzen duen eredia?

Mundu garatua deitzen den horretan hainbat herri eskaintzen duten Interneteko salerosketa legalaren bidea defendatzen dugu. Espainiako Estatu mundu mailan pirateria gehien praktikatzeko duten bosten artean dago, eta hori lotsagarria da benetan. Txina, India, Mexiko eta Kanada daude zerrenda horretan...

Kultura txikietan, adibidez gurean, nola eragiten dute egile eskubideek?

Neurriak laster ez badira hartzen, kultura handiek bakarrik utsiko diote eta kultura txikiak desager-

tzeko arriskuan izango dira. Une honetan euskal sorkuntzari pirateriak egiten dion kaltea itzela da. Galdetu, bestela, euskal sortzaile eta elkarkideei. Ea zer iruditzen zaien disko bat aurkeztu bezain pronto, guztientzat eskura egotea jaisiera ilegalen bitartez...

Gurera etorrita, zenbat ordaintzen diote Debagoieneko udalek SGAE-ri?

Informazio hau Datu Babeserako Legediak aurreikusten du. Prozesuak eta bermeak errespetatu beharra dago.

Ongintzako jaialdietan dirua biltzeak ez du SGAEren irudia kalte-tzen?

Autoreak espresuki uko egiten badie egile eskubideei, SGAEk ez du parterik hartzen jaialdi horietan.

Zalantzaragarria da, dena den, ongintzako jaialdi eta antzerkoei buruz ari garenean, zalan-tzan jarzea autorearen diru-sarrerara bakarrik, eta ez jaialdi hori bideragarri egiten duten beste horrenbeste entitate pribatu eta enpresen diru sarrerak, adibidez.

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
'http://goiena.net/iritzia/'



ISO-TxaQurrak

Garoñako zentral nuklearreko langileak repeatzen ikusi nituen Youtuben. Baziren buzoa jantzita kantari zebiltzanak, Basagoiti itxurakoak, etxeoandre prestuak, oreinak goxo-goxo, eta deigarriena, jangelako estampa: %100ean psikopata begiak dituen morroi adoretsua kantuan hasten denean eta beste guztiak abduzituta bezala jarraitzen diotenean...

Erakustaldi koral paregabea. Enpresetan horrenbeste aipatzen den "bikaintasunaren" eredu aparta: euren enpresa eta lanpostuekin erabateko konpromisoa hartua duten langile xumeak, denbora guztian norbera babesteko ekipamenduak eta prebentzio neurriak agerian, garbitasun kirofanikoa, ikuste hutsarekin bertan buruz behera murgiltzeko gogoia ematen duen pistina aratza.

Bideoa ikusi ostean, baina, hauxe izan zen aipatutako guztiaeren gainetik atera nuen ondorio nagusia: zentral nuklear batean lan egiteak sormena bizkortzen du. Beste zer egin hoberik ez eta Sobroneraino joan nintzen atzo automobiler, ea sormenezko isuri handi horren partikularen batzuk pegatzen zitzaizkidan.

Emaitza atrebentzia handiz dakarkizuet orriotara, ni ere animatu naiz eta, paparrean urrezko Q-a zintzilikatuta INEMeko ilarara joaten diren langile tristen gaineko rapa idaztera. Izenburua: ISO-txaQurrak.

Kalitateaz gainezka/ gure fabrika zen festa/ horretxegatik jarri ziguten/ paparrean urrezko Q-a/ Den-denok geunden puztuta/ ISO-arauak konplututa/ orduan jarri gintuzten/ enpresarioen alturan/ Langile Jaun Agurgarriak/ enpresarioen alturan.

Egin zuten plan bikaina:/ lantegian sartu kaña!/ kontrolatzeko, kontrolatzeko/ lankideen mugimenduak/ Gero-etorri zen krisia/ lan eza, kale gorria/ egun batetik bestera/ kale txakurren lekuan/ Langile Jaun Agurgarriak/ kale txakurren lekuan.

Hau da hau infernua/ kasik ohartu gabe/ egin digute Q-a / ipurdiko zuluan!

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | 'marregi@goiena.com'

Fukushima vs Garoña

Energia nuklearraren eztabaida piztu du Japoniako lurrikarak. Honek garbi utzi du arrisku hori badagoela eta zentrala duten herrialdeetan izua zabaldu dela beste behin. Baina ez al da berandu iristen eztabaida hau? Beti ezbeharren bat gertatu behar izatea ere gaia pizteko... Hauteskundeak ere badatoz eta, zalantzarik gabe, Garoña puri-purian dute politikariek. Merkelen itxurakeria hasi da herritarrak konbentzitu nahian. Izan ere, kantzilerrak badaki Alemaniakoa dela nuklearraren aurkako Europako mugimendu indartsuena. Garoñako eztabaida azaleratu da berriro. Fukushimaaren ahizpa bikiak politikari askoren iritzia aldatuko ote du Alemanian bezala?

KALE INKESTA

Zer iruditzen sexu harremanetako iragarkiak egunkaritan?



MANOLI IGLESIAS
ARRASATE

"Ez zait ondo iruditzen, eta iragarkiok kentzearen aldekoa naiz. Azken baten jendea tentatzea dute, gaizki iruditzen zait".



VALENTIN MORENO
ARRASATE

"Nik ondo ikusten dut halako iragarkiak argitaratzea. Zenbat eta informa zio gehiago egon, gazteendako hobe...".



SANDRA JESUS
ARRASATE

"Iragarkiok azaltzearen aldekoa naiz. Azken baten, prentsan azaltzen ez badira, bila dabilena nonbaiten topatuko ditu".



IÑAKI ELORTZA
ARRASATE

"Ez naiz ez aldekoa ez kontrakoa, baina ez dakit halako iragarkiok horren eskuragarri egon beharko ziren...".

HANDIK ETA HEMENDIK

Elkarri begiak ikusteko nazioarteko topaketa

Luis Aranberri 'Amatiño'
<http://eibar.org/blogak/amatiño/>

Asteazkenetik larunbatera bitartean Barakaldoko Erakustazokan (BEC) eratzen ari da Ferroforma. Koloniakoarekin batera (txandaka, bi urtetik behin), Bilboko hau da munduko burdindegia eta brikolaje topaketarik garrantzitsuenak. Hogeita bederatzi herrialdeetako 567 enpresa bildu dira euren ekoizpenik esanguratsuenen berri emateko eta bertatik bertara azaltzeko.

Ferroforma 1974an sortu zen, egun hitzetik hortzera aipatu ohi diren hainbat kontzeptu-lehiakortasuna, berrikuntza, nazioarteratzea, enpresa gizarte-erantzukizuna... zeharo ezezagunak ziren garaietan.

Orduan, euskal lantegien merkatua espainiarra baino ez zen gehien-gehienbat.

Gaur badira gurean %80

munduan barrena saltzen duten enpresak eta nola-hala erbestean lehiatzeko gauza ez direnek atek itxi beharko dituzte berandu baino lehen.

Baina topaketa hauek ez dira salerosteko soilik, "elkarri begiak" ikusteko ere baizik, gaur goizean bertan Yesuf Selehadin enpresari etiopiarrek esaten zigun bezala: "Internetek balio du katalogoa ezagutzeko eta emailak lana ikaragarri errazten du, baina nik ez dut hitzarmenik itxi nahi izaten ene ekoizlea aurrez aurre ezagutzeke eta begietara begiratu gabe".

Alok Nanda, berriz, indiarra da, eta Dubaiko Bhatia Brothers enpresaren zuzendari komertzial gisa dihardu.

Lehen aldiz da Ferroforman.

Ez da lanabes merke bila etorri, on bila baizik.

Badaki ekialdeko beste hainbat merkatutan nabarmen merkeagorik aurkitu lezakeela, baina bere bezerorik garrantzitsuenak petrolio eta gas-erazketan ari direnez gero kalitate zein segurtasun bila etorri da, Bilbon non aukeratu izango duelakoan.

Beste horrenbeste uste du

Costa Ricako Julián Otlavaro (Invotor) enpresariak.

"Euskal esku-erreminta ez da, ez, merkeena, baina ezta Estatu Batuetakoa bezain garestia ere, hangoa bezain on den arren, dezente zerbitzu hobe eskaintzeaz gainera".

Goizez zein arratsaldean lan egin ostean, iluntzean handik eta hemendik etorritako hirurogeita hamabosten bat lagunek elkarrekin afaldu dute bart, "munduko esku-erreminta sektorea guztion artean behingoz konpontzeko", Gasteizko EGA Master enpresak urtero eratu ohi duen *Anaiarteko nazio-topaketan*, Portugal, Holanda, Alemania, Frantzia, Turkia, Mexiko, Costa Rica, Kuba, Ekuatore Ginea, Angola, Etiopia, Egipto, Arabia, Maroko, Australia, Nigeria eta beste hainbat herrialdeetatik etorriak.

Nabarmen gero sektore berekoak izan arren ez dituztela beti interes berberak.

Hainbaten ustez petrolioaren garestitzeak krisia areagotu eta salmentak murrizten ditu eta beste zenbaiten iritzi, ostera, energia fosilen prezio-igoerak aberastasuna dakar eta, ondorioz, salmentak gehitu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amalia Mundinano, Zioritza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

QJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarrak
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajer 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

www.errekajatetxea.eu

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.

Jatetxe Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa, ... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jose Ramon Uribe | EAko alkate Aramaion (1991-1995)

- ▶ Alkate izan aurretik lau urtez izan zen zinegotzi
- ▶ EAJk Jauriaritzatik bota zuen EA, Ikurrinaren auzian

"Politika orokorren kontuez nahiko urrun geunden garai hartan, guk Aramaioko kontuei begiratzen genien"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Lan zaila izan zela dio, eta hobeto egin zitekeela, baina oroitzen utzi dizkio Jose Ramon Uriberri (Arrasate, 1954) Aramaioko alkate izateak. Harekin hamaika kontuz egin dugu berba.

Nola heldu zinen alkate izatera?

Aurrez zinegotzi moduan egon nintzen lau urtez. Alkateak ez zuen hurrengo agintaldian jarraitu nahi eta ni sartu nintzen alkatezara, 1991n. Hauteskundeetan ostean honela geratu zen Udala Gobernuak: EAko lau ordezkari, EAJko hiru eta HBko bi. Bederatzi ordezkari guztira.

Nolakoak ziren zuen arteko harremanak?

Arlo pertsonalean onak izan ziren beti. Politikoki, beti gertatzen den moduan, nor bere aldera egiten zuen erabakiak hartzeko orduan, baina ezberdintasunak, oro har, ez ziren oso handiak. Hasteko, guztiok abertzaleak ginen. Sail edo batzordeak botoen arabera banatu ziren, eta funtzionamendua, oro har, ona izan zen.

Udal langileekin ere oso ondo konpontzen ginen; noizean behin bazkari edo afariak egiten genituen guztiok batera, baina, gutxika, galtzen joan zen. Orain ez dut uste halakorik egiten denik.

Zer gertatu zen Ikurrinarekin?

Garai hartan EA eta HBren artean akordio bat egon zen Ikurrina

udaletxe guztietan jartzeko, askatasunaren alde egiteko helburuarekin. Aramaion aurrera egin zuen mozioak EAren eta HBren aldeko botoekin; EAJk aurka bozkatu zuen. 1991ko irailaren 11 zen eta orduan Eusko Jaurlaritzan apurketa izan zen EAJ eta EAren artean. Hala, EA kanpoan geratu zen eta euren ordezkari PSOEn sartu zen.

Aramaio mailan ez zuen eragin zuzenik izan: EAtik, behintzat, politika orokorretik urrun geunden; hau da, guk Aramaioko kontuei begiratzen genien.

Plan Orokorra onartu zenuten zuen garaian, ezta?

Gure agintaldian Plan Orokor berria egitea egokitu zitzaigun. 1994an onartu zen; hau da, amaie-

ra aldera. Lan gogorra eta luzea izan zen, hamaika buruhauste sortu zizkigun. Babes ofizialeko etxebizitzak egitea orduan onartu zen lehen aldiz, esaterako.

Hasieran baten, hamar urterako zen, baina, pentsa, ia 20 urte pasa dira eta Plan Orokor berriarekin dabilta oraindik.

Ibarra auzoko urbanizazioan ere aurrera egin zen zure agintaldian.

Hiru fasetan egin zen. Bigarren fasearen bukaera eta hirugarrenaren hasiera egokitu zitzaigun guri. Azken fase hartan, parketik plaza-rainoko konponketak egin ziren. Ez da ahaztu behar Aramaioko biztanle gehienak kalean, Ibarra auzoan, bizi direla, eta, beraz, oso garrantzitsua zen aurretik zetorren proiektu hori amaitzea.



Uribe, Ibarra plazaan, Aramaioko udaletxea atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

Zer egin zen eskola aldean?

Eskola handitu egin zen eta parkean umeendako gunea egokitu genuen. Ordukoa da txirrista, esaterako. Hemen inguruan egongo den luzeena izango da. Skate-zaleak ziren gaztetxoendako gunea ere egokitu genuen, baina gerora

kendu egin zen. Izan ere, eroriko asko izaten ziren eta arazo askotxo izan genituen aseguruarekin.

Ur-sistema bateratzea izan zen proiektu nagusietako bat, ezta?

Lan berezia izan zen, hemengo urak auzo ezberdinetan erabat sakabanatuta zeudelako. Auzo batzuetara joan behar izan genuen, auzotarrekin akordioa egiteko. Etxez etxeko lana izan zen, baina lortu genuen zenbait auzotako urak Udalaren kontrolpean izatea. Gero, beste auzo batzuetara zabaldu zen.

Beste proiektu aipagarriak?

Azkoagako plaza egokitu zen, eta horrekin erakutsi genuen diru guztia ez zela kalera bideratzen. Baserri ezberdinetarako bideak ere egokitu ziren, Diputazioari esker. Aldundiarekin konforme geratu ginen, nahiz eta gauza batzuk ez lortu. Hori bai, eskatu eta eskatu aritu ginen.

"Udal Gobernuaren funtzionamendua, oro har, ona izan zela esan daiteke"

"Aldundiarekin konforme geratu ginen, gauza batzuk ez lortu arren"




Uribe, 1991n, Ikurrina Aramaioko udaletxeko balkoian jartzeko. | GOIENA

MAGALIREN ALDE

GOENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA | MAGALIREN ALDEKO EKITALDIA

APIRILAK 2, 21:00

LAGUNTZAILEAK: AZKARATE AROZTEGIA, GIARTZU, ITESA ETA SUPER AMARA.



HERRIAK

BERGARA

Helduen ikastetxea gaurtik eta KZgunea hurrengo astetik Irizarren

- ▶ Irizarreko berritzea egin bitartean, maiatzetik, Martokon izan dira helduen eskolakoak
- ▶ KZgunea azken solairuan jarriko dute; apirilaren 5ean hasiko dira han lanean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Irizar jauregia badoa poliki-poliki bizia hartzen. Udal Euskal-egia izan zen lehena eraikin berritura joaten, martxoaren hasieran, eta gaur, astelehena, Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI-EPA) ikasle eta irakasleak izango dira bertan. Egubakoitzean bertan langileek ziharduten azken ukituak egiten asteari garai bateko eraikinean ekiteko. Azken hilabeteak Martokon eman dituzte HHIko lagunek.

Marian Padilla HHIko idazkariarekin hitz egin dugu: "Irizarra bueltatzeko gogoz gaude ikasle zein irakasleok. Zoragarri laga dute eraikina eta gainera leku ezin hobean dago kokatuta, herri erdi erdian". Maiatzetik, esan bezala, Martokon izan dira. Irizarren bost gela izango dituzte ikasleei zuzenduta eta, horrez gain, beste gela bat azken solairuan, informatika irakasteko. Gaur egun 300 ikasle inguru ari dira Bergara HHI zentroan. Besteak beste, lehenbiziko mailan alfabetatzea eta gaztelania eskolak etorkinendako eskaintzen dituzte; bigarren mailan, kultura orokorra (geografia, historia eta beste); DBHko titulazioa eta unibertsitateko sarrera ere bai; eta, horrez gain, esan bezala informatika eta ingelesa eta frantsesa. 17 irakasle eta orientatzaile batek dihardute Bergarako zentroan. Osintxu auzoan, berriz, dozena bat lagun ari dira aurtengo ikasturtean, hango liburutegian. Matrikulazioa etengabekoa

da (informazioa 943 76 44 52 telefono zenbakian).

KZgunea, apirilaren 5ean

KZguneari dagokionez, hurrengo martitzenean, apirilaren 5ean, itzuliko da Irizar jauregira. Eraikina berritu aurretik jauregiaren bigarren solairuan zegoen, baina datorren astetik azken solairuko bi gela hartuko ditu. KZgunearen kasuan, Irizar zaharberritzeko lanek iraun bitartean, Errotalde jauregian, kultura etxeko erakusketa aretoan egon da KZgunea. Hurrengo astetik libre geratuko da aipatutako aretoa eta hari beste erabilera bat emango dio Udalak. Hain zuzen ere, umeen liburutegia jarriko dute han. Lehenbailehen hasiko dira umeen liburutegia beheko solairura emateko lanak. Aldi berean, liburutegi nagusiak hartuko du kultura etxeko lehen solairu guztia.

Ohiko ordutegia

KZguneak ohiko ordutegiari eutsiko dio Irizarren: aste barruan izango da zabalik, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Leku aldatzea dela-eta, astelehenean, apirilaren 4an, ez da KZgunea zabalik izango. Bestela, bertako ordenagailuak erabili ahal izateko KZguneko txartela izatea beharrezkoa da. Doaneko zerbitzua da eta Ane Untzurruntzaga bergararra da bertako arduraduna. Ikastaroen eta bestelakoen gaineko argibideak 943 76 35 10 zenbakian jaso ditzakezue.



Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeko geletako bat. | E.M.



KZguneak Irizarreko azken solairuko bi gela hartuko ditu. | E.M.



Hitzaldietarako aretoa hirugarren solairuan dago. | E.M.



Iggailua, Irizarreko nobedadeetako bat. | E.M.



Irizarreko berritzeak 1,5 milioi euro inguruko aurrekontua izan du. | E.M.

BERGARA

Bizikleta gainean duten trebetasuna agerian utzi dute umeeek, Eskola Kirolaren harira

Trebetasun jokoak egiteko sei txoko gertatu zituzten zapatuan Ipintza institutuko patioan



Aranzadi ikastolako ikasleak, Ipintza institutuko patioan egindako saioan. | JULIO CALLEJA

MIRIAN BITERI | BERGARA

Normalean egiten ez duten jardura izan zuten zapatu goizean Eskola Kirolean parte hartzen duten Bergara eta Elgetako neska-mutikoek: etxetik bizikleta hartu eta Bergarako Ipintza institutuko patioan gora eta behera ibili ziren topaketarako egokitutako sei zirkuituetan.

Lehenengoek 10:00etan zuten hitzordua; ordurako kaskoak buruan zituzten eta bizikletan igota zeuden gehienak, ura ahaztu gabe.

Antzuolako ikasleek huts egin zuten lehen txanda horretan, eta hortaz, Bergarako Aranzadi ikas-

tola eta San Martin eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako ikasleekin sei talde egin zituzten begiraleek. Izen bitxia zuten sei txokotan banatu zituzten: hain justu ere, *Endika errepika*, *Simonek dio*, *Non hago*, *Jaun eta jabe*, *Geldi geldixan* eta *Ipurdi gizona*.

Horietan ibiltzen hasi aurretik, dena dela, *astotxo*a bezalako beroketa jokoak egin zituzten, Bergarako Lokatzako taldeko kide Unai Asurmendiren aginduak betez.

Bezeroak erakartzea

Trebetasun gune guztietan ederto ibili baziren ere, *Non hago* eta *Ipurdi Gizona* zirkuituak izan ziren neska-mutikoendako onenariok. Azken horretan umeeek zirkuituan jarritako egurrezko arrapala probatzeko aukera izan zuten; bakarren bat lurrian amaitu bazuen ere, neska-mutiko gehienak bizikleta gainean ederto moldatzen direla eta etorkizuneko txirindulariak izan daitezkeela erakutsi zuten. Bestalde, *Non Hago* jokoan bi zatitan banatzen zuten taldea; alde batean jarri eta partaide bakoitzak zenbaki bat buruan zuela, beste aldean zenbaki berdina zuen partaidearekin elkartu behar zen ahalik eta azkarren.

Ordubeteko saioaren ostean, bigarren txandako umeek hartu zuten lekukoa; horien artean, elgetarrak ere bazeuden. Hirugarren saio bat ere jokatu zen.



ANDER ALBIZUA
ARANZADI

"Lehen amarekin mendira joaten nintzen bizikletan ibiltzera. Gustatzen zait, hortaz, oso pozik etorri naiz gaurko saiora; jokoak gainera oso ondo daude. Dena dela, gehien gustatzen zaidan kirola futbola da".



GAIZKA ETXEBERRIA
MARIAREN LAGUNDIA

"Itxura ona dute antolatutako dituzten trebetasun jokoak. Gustuko dut bizikletan ibiltzea eta Eskola Kirolean ez dugu horrelakorik egiten askotan; eskubaloian eta futbolean jokatzen dugu gehienetan".



MAIALEN ALKORTA
ELGETA

"Oso gustura ibiltzen naiz bizikleta gainean; gehien gustatzen zaidan kirola da. Elgetan lagunekin ibiltzeko ohitura dut, herriko kaleetatik. Pozik nago gaurko topaketa bizikletarekin egitea erabaki dutelako".



DANEL GANTXEGI
SAN MARTIN

"Oso ondo pasa dut jokoetan; gehien gustatu zaidana arrapalarena izan da; gustura ibili naiz, eta gainera, ez naiz jausi. Eskola Kirolean gehiago ibili beharko ginatke bizikletan. Saskibaloia ere gustuko dut".



OÑATI

JULIO CALLEJA

Txokolate zaleen topaketa

Gustura geratu ziren zapatu goizean Arantzazuko Gandiaga topagunean egindako txokolate dastatzean parte hartu zutenek. Bisitariak arretaz entzun zituzten Oñatiko Txokolateixa eta Gorrotxategiko arduradunek txokolatearen gainean emandako azalpenak, eta baita kontatutako anekdotak ere. Horietako asko eskainitako produktuak ere erosi zituzten, txokolate beroa dastatzen zuten bitartean. Arantzazu Gaur Fundazioko kide Iker Usonek esan digu 20 litro inguru banatu zirela.



BERGARA

JULIO CALLEJA

Karaokean ere ibili ziren gazteak

Dena aurrekusi bezala irten zen zapatuan Bergarako Gazte Egunean. Goizean hiru talde ibili ziren *altxorren bila*. Jarraian, Muniben egindako bazkarian 60 lagun izan ziren; Aitor eta Oier bertsolari zarauztarrek ere parte hartu zuten horretan. Arratsaldeko poteoa 21:30ak arte luzatu zen eta gaztetxeko kontzertuen ostean, hainbat lagun animatu ziren karaokean abestera. Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dituzte.

ARRASATE

Aurtengo Otxia txakolina, uzta onaren fruitua

- ▶ Atzo aurkeztu zuten Otxia txakolinaren aurtengo uzta Arrasateko Kajoi tabernan
- ▶ Tragoxkari laguntzeko, mokadutxoia egiteko aukera ere egon zen

TXOMIN MADINA | ARRASATE


Iaz bezala, eta akaso urteroko tradizio bihurtzeko asmoz, aurtengoa ere Kajoi tabernan egin dute Getariako izendapena duen Otxia txakolinaren aurkezpena. Atzo eguerdi partean hasi ziren txakolina banatzen; erraz jotzen duela ikusita, mokadutxoia egiteko aukera ere egon zen. Jende mordoxka erakarri zuen ekimenak. "Asmoa

da nolabait kaleko giroa bultzatzea; baita jendeari herrian bertan egin dako edaria dastatzeko aukera ematea ere" azaldu zigun Otxiaren ekoizle Felix Etxagibelek.

Uzta ona

Gustura daude aurtengo txakolinarekin. Izan ere, Etxagibelen esanetan, iazko uda eta udaberria aproposak izan ziren ekoizpene-

rako. "Loralde garaia nahiko ondo aguantatu zuen, eta uda ere nahiko ona izan zenez, 11-12 gradu lortu du alkohol mailari dagokionez. Konforme gaude horrekin, eta jendeak ere oso ona dagoela komentatu digu", azaldu zigun Etxagibelek. Kajoi taberna bertan edo Bedoñako Artazubiaga base-rrian egongo da eskuragarri Otxia txakolina.



MIKEL EZKURRA
ARRASATE

"Ona dago txakolina, puntu garrantza du, baina hori bera ere bada txakolinaren ezaugarrietako bat. Ederki sartzen da orain, eguerdi partean; hori bai, mokadutxoarekin lagunduta hobe, bestela pozik bukatuko dugu-eta".



CARMEN FERNANDEZ
VALLADOLID

"Txakolina edaten dudana lehen aldian da, eta egia esan, duen apartasarekin eta zapoarekin, asko gustatu zait. Pentsatzen ari naiz botilaren bat erosi edo ez, izan ere etxera eramateko detaile aproposa izan daiteke".



Felix Etxagibel aurtengo Otxia txakolinarekin. | TXOMIN MADINA



JESUS MARTINEZ
ARRASATE

"Oso ona dago; gainera zuzenean menditik hona etorri gara eta ez genekien hau zegoenik. Normalean txakolina beharrezko zurtoa edaten dut, baina gaur, mokadutxoarekin primeran sartzen da".



MARIA DOLORES JAUREGI
ARRASATE

"Niretako oso gozoa dago. Ez dut alkohol asko edaten, baina txakolina asko gustatzen zait. Azkar igotzen da burura, baina pare bat edan eta janez gero, ez dago arazorik!"

BERGARA

Gorlako txoko ezkututuak ezagutu zituzten umeez, jolasen bidez

Gorla Eguna egin zuten atzo; aisialdia, natura eta kirola uztartu zituzten han



Gustura hartu zituen jendeak txorizoa eta salda. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | BERGARA

Lokatza, Pol Pol, Mendia Bizirik eta Udalak antolatuta, Gorla Eguna egin zuten atzo. Goizean goiz hasi ziren ekimenak, 09:00etan Bergarako pilotalekutik irtenda, mendiko txangoarekin; 11:30ean heldu zen taldea Gorlara. Horrek mendian gora egiten zuen bitartean, umeez ingurune horretako txoko ezkututuak ezagutzeko orientazio jolasa izan zuten.

Ubide zaharra

Horretaz aparte, Itsumendiko magal batean pagoak landatu zituzten, eta interpretazio-txangoa ere egin zuten. Pagolako ubidea bisitatu zuten, ingurune horretako aberastasuna ezagutzeko. Bestalde, eguerdi aldera, 350 txorizo pintxo eta salda banatu zituzten Gorlan elkartu zirenen artean.



ARETXABALETA

JON IZAGIRRE

Rodrigo eta Alcalde, garaile

Uratz alde elkarte gastronomikoko Rodrigo eta Alcalde bikoteak irabazi zuten zapatuan Urbaltz elkartearen jokaturako mus txapelketa; Murualdeko Errasti-Bengoa bigarren izan zen, eta hirugarren, Hibai Gaineke Santiagok eta Josek osatutako bikotea. Urbaltz, Uratz alde, Murualde, Hibai Gain, Eguzki Alde eta Basotxo elkarteetako 12 bikote lehiatu ziren txapelketa horretan.

Aurten zailagoa izango da larrialdietarako laguntzak eskuratu ahal izatea

- ▶ Laguntza horiek eskuratzeko irizpideak zorrotz egin dituztela-eta, mugatu egin beharko dituzte
- ▶ 2010ean 450.000 euro inguru gastatu zituen Udalak; aurten, berriz, 131.940 euro ditu horretarako

UBANE MADERA | ARRASATE

Batetik, Eusko Jaurlaritzak gogortu egin ditu Gizarte Larrialdietarako laguntzak eskatu eta eskuratzeko bete beharreko baldintzak. Eta bestetik, murriztu egin dute laguntza horietara bideratuko duten diru-kopurua. Arrazoi bi horiek tarteko, 2011n nekezagoa izango da laguntzak horiek lortzeko zerrendatan sartzea.

%39 gutxiago, dirutan

Diru kontutan sartuta, 2010ean Arrasateko Udalak 450.000 euro pasa gastatu zituen larrialdi egoeran zeuden 220 herritarri laguntza emateko. Baina kopuru horretatik Jaurlaritzak bakarrik 219.427 euro bueltatu zizkion Udalari.

Horrek, jakina, Udalaren zorraren handitzea ekarri zuen. Eta hori ikusita, 2011ko jarduneko Arrasateko Udalak erabaki duena da laguntzok Eusko Jaurlaritzak erabakitako irizpideen arabera banatzea. E

Jaurlaritzak aurten 131.940 euro emango dizkio Arrasateko Udalari laguntza mota horietara bideratzeko, iaz baino %39 gutxiago.

Irizpide zorrotzagoak: higiezinak

Irizpide edo baldintzei begiratzen badiegu, berriz, kasu horretan ere murrizketak ekarriko dituzte Jaurlaritzak erabakitako irizpide berriek, zenbait kasutan dezenteko murrizketak, gainera.

Nabarmentzekoa da, adibidez, ondarea kontuan hartuta, aurten 8.000 euroko gehieneko balioa finkatuko dutela; iaz, berriz, 31.000 eurora artekoak onartzen zituzten laguntza eskaeratan.

Eta ez hori bakarrik. Ze aurten, bigarren higieзина duena

automatikoki larrialdietarako laguntzetatik kanpo geratuko da, higiezin horren balioa edozein dela ere. "Iaz balore mugaren barruan sartzen zen heinean, diru-laguntzetarako aukera edukitzen jarraitzen zuen", jakinarazi du Olatz de Miguelek, Gizarte Ongizateko teknikariburuak.

Etexko bizilagun kopurua

Bestalde, etxebizitza bakoitzeko bizilagun kopurua ere aintzat hartuko dute laguntzak erabitzeko orduan. Eta horren arabe-

ra, etxebizitza bakoitzean, askojota bi bizilagunek jaso ahal izango dituzte mota horretako laguntzak. "Iaz, ordea, etxeak zeuzkan logelen arabera maximoak zehazten ziren", argitu du udal ordezkariak.

Alokairua eta hipoteka

Mugatu egingo duten beste kontzeptu bat hipotekarena izango da. Berez, larrialdietarako laguntzen barruan onartuta dago hipoteka ordaintzen laguntzeko dirua ematea, baina aurten gehienez

12 hilabetez emango dute, eta iaz, epez mugagabea zen laguntza hori.

Bestalde, etxebizitza kontuekin segituz, alokairuarengatik ematen dituzten laguntzak bateraezinak izango dira diru-sarreak bermatzeko errentarekin lotutako laguntzekin. Hau da, laguntza bat jasoz gero, ezin izango da bestea eskuratu.

Berrikusi egingo dituzte

Horrekin batera, aurten aplikatuko duten beste berritasunetako bat berrikuspenarena izango da. Labur esanda, sei hilabetetik behin Udalak derrigorrez egin beharko du emandako laguntzen berrikuspena. Orain arte, berriz, ez dute halakorik egin.

Martxoaren 31 baino lehen

Eta bukatzeko, larrialdietarako laguntza eskuratu nahi izanez gero, eskaera-epeak ere badira kontuan hartu beharrekoak. Izan ere, irizpide berrien arabera, oraingo asteko eguena baino lehen (martxoaren 31) aurkezten diren eskaerak, "laguntza jasotzeko eskubidea dutenen kasuetan, urte bereko urtarilaren 1erako atzera efektua aplikatuko zaie. Data horretatik aurrera aurkeztutako eskaeren kasuetan, berriz, ordutik aurrerako efektua izango dute".

Eskaerak Gizarte Ongizate Sailean egin behar dira, udaltxeko hirugarren solairuan. Bestela, Biztanleen Arreta Zerbitzuan ere galde daiteke.

DATU BATZUK NABARMEN

Jaularitzak iaz 219.427 euro eman zizkion Udalari gizarte larrialdietarako; aurten 131.940 euro emango ditu

Ondarea kontuan hartzen den kasuetan, 31.000 eurotik 8.000 eurora jaitziko dute muga

Hipoteken kasuan, asko jota 12 hilabetez emango dute laguntza; iaz laguntza hori mugagabea zen

Animalien tratu txarren kontrako ekimenak Arrasaten datozen egunotan

Sinadurak batzen dihardute herriko hainbat saltokitan eta egunean, martxoaren 31n, mahai informatiboa ipiniko dute Portaloian

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasatera ere iritsi da animalien aldeko ahotsa. Estatuko kode penala aldatu gura dute, gaur egun animaliei tratu txarrak eragiteak hiru hilabete eta urtebete arteko kartzela zigorra bakarrik dakarrelako.

Horrela, *noalmaltratoanimal.org* mugimendua sortu, eta haren bitartez animaliei eragiten zaizkien

tratu txarrak salatu eta haiek gogorrrago zigortzeko ekimenak egiten dabilza Estatuan, EAEn eta orain Arrasaten ere bai; tartean, sinadurak batzen hasi dira.

Sinadurak non

Eta, hain zuzen, sinadura bilketa Arrasatera ekarri zuten joan den astearen amaieran. Herriko hainbat saltokitan paperak bana-

tu eta dei egin gura diete herritarrei apirilaren 15era arte animalien alde sina dezaten.

Nothing Without, Elkoro, Ceciaga, Amets altzari dendan, Arrasate Zoo saltokian, animalien Traskilon ile-apaindegian, herriko bi albaitarien kontsultan, Doke tabernan, Biotika parafarmazian eta BC Gazte Modan.

Mahai informatiboak

Horrez gainera, bi hitzordu ere egin dituzte Arrasaterako; kasu horretan, gainera, herriko Kaonbi elkartearen (Katuak Ondo Bizi) laguntzarekin. Bata egunerako, martxoaren 31rako. "Mahai informatiboa jarriko dugu Portaloian eta han bertan ere batuko ditugu sinadurak", kontatu du Leyre Viamontek, *noalmaltratoanimal.org* elkarteak kideak.

Beste hitzordua, berriz, apirilaren 8rako egin dute. "Egun horretan goizez eta arratsaldez izango gara Arrasaten. Goizez 10:00etatik 13:00etara. Arratsaldez, berriz, pintxo-pote ordua aprobetxatu, eta 18:00etatik 20:00ak arte izango gara".



Txorbela otxoteko kantariak. | GOIENA

Txorbela otxoteak ere parte hartuko du Korrikarendako ongietorri jaialdian

UBANE MADERA | ARRASATE

Korrikarendako atzera kontaketa hasi den honetan, lanean buru-belarri dabilza euskaren aldeko lasterketari merezi duen ongietorria emateko.

Urrun joan barik, gaur bertan, astelehena, aurkeztuko dute Korrika 17 Kulturaten.

Atzera kontaketa eta murala

Bestalde, Arrasateko Korrika Batzordeko ordezkariak iragarri dute atzera kontaketa hori irudiz adieraziko dutela Erdu-AEK-k Arrasaten duen egoitzako balkoia erabilia.

Adierazi dute *Euskalakari* berba izango duen murala egiteko baimena eskatu diotela Udalari, Zaldibar guneko parke berriko pareta zaharrea.

Amianto aurkitu dute

Eta, bestelako ekimenen artean, nabarmendu dute zabalik dagoela ikastetxeetan abiarazitako lelo lehiaketan parte hartzeko epea, apirilaren 1era arte. Eta, Korrika egunean bertan, Arrasaten gero eta ezagunagoa den Txorbela otxoteak ere parte hartuko duela 18:30ean plazan egingo den ekitaldi nagusian.



Gero eta sentsibilitate handiagoa dago animalienenganako. | U.M.



Eguaztenez lehiatutako neska-mutiko taldea Mariaren Lagundiko mailetan, lehiaketa bukatu eta gero. | MONIKA BELASTEGI

Herria hobeto ezagutzera jolastu dira gazteak

- ▶ Bergara Ezagutzen lehiaketa egin dute DBHko 4. mailako ikasleek
- ▶ Eskola askotariko ikasleek elkarren artean ezagutzeko ere balio du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Mariaren Lagundia ikastolako, Ipintza institutuko eta Aranzadi ikastolako DBHko 4. mailako 14 eta 15 urte- 145 ikasleek Bergara Ezagutzen izeneko lehiaketan parte hartu dute asteon. Bi egunean egin dute lehiaketa: ikasleen erdiek eguazten goizean egindako lehiaketan hartu zuten parte eta beste erdiek eguazten goizean jokaturakoan.

Bergara Ezagutzen lehiaketaren helburua da herria hobeto ezagutzea eta herriaren gainean duten jakintza zabaltea. Horren harira, Bergarako ikastetxeak ahalegin handia egiten ari dira Bergararen gaineko

ezagutzak -historia, kultura, pertsonaiak, geografia...- belunaldi berriei transmititzeko. Hala, iaz Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak, Jardun Euskara Elkarteak, Udalak eta esandako hiru ikastetxeek Bergara Ezagutzen lehiaketa martxan jartzea erabaki zuten.

Baina lehiaketak beste helburu bat ere badu, Nagore Narbaitza Hezkuntza teknikariaren esanetan: "Eskolatik kanpo, ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko harreman naturala lehiaketan islatzea da asmoa. Ikastetxeen arteko lehia planteatu beharrean gazteen arteko joko sano bat planteatuz. Horretarako, hain justu ere, hiru ikas-

tetxeetako ikasleak nahastuta antolatu dituzte taldeak eta hala hartu dute parte lehiaketan.

Ikasleak nahastuta

Lehiaketaren aurretik, ikasleek Bergarari buruzko ezagutza batzuk landu dituzte ikastetxean, eta eguazten eta eguenean ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten lehiaketako proben bitartez.

24 ikasleko hiru taldetan banatuta lehiatu dira, bai eguaztenez, zein eguenean, hiru ikastetxeetako ikasleak nahastuta. Hain zuzen ere, ikastetxe bakoitzak hiru taldetan banatzen ditu lehiatutako diren ikasleak eta ondorioz, lehiaketa egunean hiru ikastetxeetako

DATUA

145

GAZTE

14-15 urteko Ipintza, Aranzadi eta Mariaren Lagundiko 145 gaztek hartu dute parte.

ikasleekin osatutako hiru talde antolatzen dituzte.

Hori horrela izanik, ikastetxe ezberdinetako ikasleek elkar ezagutzeaz gain, talde irabazlea ez da ikastetxe bat izango, ikasle talde bat baizik.

Lehiaketa bi ataletan banatuta egin dute. Alde batetik, ikastetxe barruan aritu dira galdera-erantzunak eta ikus-entzunezko probak egiten. Bestetik, kalean jinkana bat egin dute herriko leku esanguratsuetatik pasatuz: Olaso dorrea, kartzela zaharra, Errekalde parkea, udaletxea, Errotalde jauregia, Simon Arrieta plaza, Fraiskozuri...

Irabazleak, rafting egitera

Eguenean bertan erabaki zen talde irabazlea eta sari moduan irteera bat jaso dute. Hain justu ere, apirilaren 9an, Errobi (Bidarra, Lapurdi) ibaian rafting egitera joango dira.



LAURA, AINHOA ETA TXOMIN
MARIAREN LAGUNDIA, ARANZADI ETA IPINTZA

"Ondo pasatu dugu lehiaketan; ideia ona da. Izan ere, herriaren gainean gehiago ikasteaz gain, adin bereko gainerako ikastetxeetako ikasleok elkarren artean ezagutzeko aukera ere eman digu. Eta hori oso positiboa da. Berriz egingo balitz ere hartuko genuke parte."



XABI, UXUE ETA GUILLERMO
ARANZADI, IPINTZA ETA MARIAREN LAGUNDIA

"Oso esperientzia polita izan da. Jinkana egin dugu herrian barrena: galderak egin ditugu, argazkiak atara... Egia esan, uste genuena baino gutxiago dakigure herriaz. Esaterako, esan digute Errekaldera joateko eta ez genekien non zegoen, Konde izenarekin ezagutzen dugulako."

2012an ere egutegia aterako du Udalak

M.B. | BERGARA

2012an ere egutegia ateratzeko asmoa du Udalak eta aukeratu duen gaia *Urtaroak* da. Hala, han argazkiak jarri nahi dituztenendako deia zabaldu du. Egutegia aurreko urteetakoaren tankerakoa izango da eta aurkezten diren argazkiek honako ezaugarriak izan beharko dituzte: Bergarako tokien argazkiak izan behar dute; argazkiaren tamaina 20x30 cm eta 300 ppp (puntuak pulgadako) izango da; JPG formatuko artxibo digitala izango da; eta lanak CD batean aurkeztuko dira. Lanak Euskara Zerbitzura (943 77 91 29) eramane beharko dira 2011ko irailaren 30a baino lehen. Egutegian erabiltzeko aukeraturako argazkiak ordaindu egingo dira.

OHARRAK

EAJ: POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan botoa postaz eman ahal izateko bulegoa zabaldu dute batzokian. Goizez 11:30etik 13:00etara eta arratsaldez 18:30etik 20:30era egongo da zabalik. Eskaerak egiteko azken eguna maiatzaren 12a da. Argibide gehiagorako deitu 943 76 47 00 telefono zenbakira.

Rafting egiteko irteera antolatu dute apirilaren 9rako

Rafting egiteko irteera antolatu du Udalak apirilaren 9rako Errobi ibaira. 14 eta 18 urte arteko gazteendako da. 09:00etan abiatuko dira Bergaratik eta 20:30ean itzuliko dira. Irteeraren prezioa 24 euro da. Izenematea gaur, astelehenena, zabaldu dute, apirilaren 1era arte, kultura etxean eta 943 77 91 60 zenbakian.

Aranzadiko argazki erakusketa, domekara arte ikusgai Aroztegin

Aranzadi ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatutako argazki erakusketa domekara arte, apirilaren 3ra arte izango da ikusgai. Aste barruan 18:30etik 20:30era dago Aroztegin aretoa zabalik; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domekan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.



Odol ateratzea, ohi bezala, 18:30etik aurrera egingo dute eguaztenean, Seminarioko lokalean. | E.M.

Odol emaileendako hitzordua eguaztenean

Gazteei deialdi berezia luzatzen diete Bergarako Odol Emaileek; elkartera gazte gehiago hurbiltzea nahi dute

EDU MENDIBIL | BERGARA

Urteko egutegiarekin jarraituz, Bergarako Odol Emaileen Elkarteak odol ateraldia deitu du eguaztenerako, martxoaren 30erako. Ohi bezala, 18:30ean hasiko dira odol ateraldia egiten.

Azken hilabeteotan dei berezia egin diete gazteei odola eman dezaten. Aspaldiko odol emaile fidelei eustearekin batera, horixe da Bergarako Odol Emaileen erronka aurtengorako: gazte gehiago hurbiltzea elkartera. Odola emateko dagoen premia

azpimarratzen dute behin eta berriz herriko odol emaileek.

Urtetik urtera hobetu nahian

Elkartetik emandako datuen arabera, iaz, batez beste, 52 emate egin ziren odol ateraldi bakoitzean. Datuok oinarri hartuta, Gipuzkoako herri nagusietako bat da Bergara odol emate kopuruari erreparatuta. Odolaren kasuan inoiz da nahikoa, beharra handia dagoelako eta iazko datuak hobetzeko itxaropena azaldu dute elkarteko arduradunek. Aste

Santua hurbiltzen dela eta, odol emaile guztiei gogorazten diete data hauetan guztien laguntza beharrekoa dela. Gizonezkoen kasuan, lau odol emate egin ditzakete urtean, emakumezkoak baino odol emate bat gehiago hain zuzen ere.

Bergarako Odol Emaileek hamabostean behin egiten dituzte odol ateraldiak. Hurrengoak, apirilaren 13an eta 27an izango dira. Lokaleko atek adin guztietako emaileendako zabalik daudela gogoratzen dute.

Udako kirol eskaintzako izenematea apirilaren 16ra arte izango da zabalik

Haurrendako zuzenduta, lehenengo txandako jarduerak ekainaren 27tik uztailaren 8ra

E.M. | BERGARA

Udaleko kirol zerbitzuak kale-ratu du dagoeneko hurrei zuzendutako udako eskaintza. Besteak beste, igeriketa (maila ezberdinak), tenisa, irristaketa, batuka eta multijarduera aurreikusituz eta bi txanda izango dira: lehenbizikoa ekainaren 27tik uztailaren 8ra bitartean eta bigarrena uztailaren 11tik 22ra. Ekintza guztiak aste barruan, astelehenetik egubakoitzera, izango dira. Igeriketaren kasuan, apirilaren 8an eta 15ean mailaketa froga izango da igeri eskolan ez dabiltzanendako. Agorrosin Kirol Guneko harreraren izena eman beharra dago horretarako.

Jarduera ezberdinetan parte hartzeko izenematea apiri-

laren 1etik 16ra bitartean egingo da zabalik. Udalak jakitera eman duenez, taldea aurrera ateratzeko parte hartzaile kopuru minimo bat egon beharko da.

Prezioak

Bergaran errolatutako parte hartzaileen kasuan, abonatuendako prezioak 18 eta 54 euro bitartekoak dira; eta ez abonatuendako, 34 euro merkeena eta 101 garestiena (multijardue- ra).

Erroldatu gabekoendako prezioak garestiagoak dira: 27 euro eta 81 euro bitartean abonatuendako eta 51 euro eta 152 euro abonurik ez dutenendako. Argibide guztiak www.agorrosin.net webgunean.



Igeriketa izango da udako jardueretako bat. | GOIENA

Irati Anda eskalatzaile gasteiztarraren diaporama bihar kultura etxean

'El conquistador del fin del mundo' realityan parte hartu berri du

E.M. | BERGARA

Jardun elkarteak antolatuta, Irati Anda eskalatzaileak *Hamar-kada bat harkaitz artean* izenburuko diapositiba emanaldia egingo du bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

Irati Anda (Gasteiz, 1982) oso gazte hasi zen eskalatzen, eta hastapenetatik gaur egunera arte eskaladak izan duen bilakaeraz jardungo du biharko saioan. Jardunek inguruko mendizaleak gonbidatu nahi ditu biharko saiora.



Irati Anda ezaguna Bergaran izango da bihar. | GOIENA

Ibilbide luzea

Eskaladan garaipen handiak lortu ditu mendizale gasteiztarrak, besteak beste, Euskadiko eta Espainiako Zailtasun Eskalada Txapelketak. 2007an egin zuen denboraldirik onenetakoa: Munduko kopan bosgarren sailkatu zen, eta harkaitzean 8-C bidea

kateatu zuen Baltzolan, emakume eskalatzaile onenetako bat izatera iritsiz.

Horrez gain, oso ezaguna egin da aspaldian ETB-2ko *El conquistador del fin del mundo* saioan parte hartzeagatik. Hain zuzen

ere, talde bateko kapitaina izan da eta joan den domekako saioan uko egin zion programan jarraitzeari, zeresan ugari eman duen Super Jefe delakoa saioan hasi zenean. Patagoniako kontuak ere azalduko ditu ziurrenik.

Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak

E.M. | BERGARA

Maiatzaren 6ra arte izango da zabalik Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak entregatzeko epea. Sei arlo bereziko dituzte: ipuin idatzia, ipuin kontaketa edo antzerkia, komiki-tira, txistea edo umorezko pasadizoa, bertsoak eta irrati emankizuna. Ahozko generoen kasuan, sare bidez ere aurkeztu ahal izango dira lanak udal webgunean.

Sari banaketa Pazkoen ostean egingo dute, ekainaren 18an. Oinarriak eta arlo ezberdinen gaineko xehetasunak Bergarako Udaleko webgunean eskuragarri dituzte interesatuek: www.bergara.net. Udaleko Euskara zerbitzuan (943 77 91 66 telefono zenbakian) ere jaso ahal dira argibideok.

OHARRAK

ZERO ZABOR: HITZALDIA EGUBAKOITZEAN

Joan Marc Simonek hitzaldia egingo du egubakoitzean, apirilaren 1ean, udaletxeko oso-ko bilkuren aretoan, 19:00etan. Simon Bartzelonakoa da eta Bruselan egiten du lan zenbait erakunderen aholkularitzan eta errausketaren aurkako munduko mugimenduaren Europako ordezkartzan.

TXULIAKETA ZAPATUAN ELOSUAN

Bergarako Zezenzaleak taldeak antolatuta, zapatuan, apirilaren 2an, txuliaketa izango da Elosuan, Bentan. Zaldien erakustaldia egingo dute 12:00etan, ondoren txuliaketa txekorrek eta 14:30ean bazkaria Ixaun jatetxean, Elosuan bertan. Txartelak 35 eurotan daude salgai Ganbara eta Agorrosin tabernetan. Gaur, astelehena, izango da txartelak erosteko azken eguna. Zapatuan, Bentarainoko bidaia bakoitzaren kontura izango da.

Oñatiko ibilbide homologatuen egoera aztertu dute

Seik "argi berdea" jaso dute eta batek "argi gorria"; hain zuzen ere, 'Ezkutuko bidea' deritzonak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Gipuzkoako Mendizale Federazioak eta Aldundiko Landa Garapen Sailak Oñatiko ibilbide homologatuei buruzko idatzia aurkeztu dute, non herriko bidezidorren egoera nolako den zehazten duten. Parametro batzuk kontuan hartuta egin dute Gipuzkoako ibilbideen balorazioa –gutxienez bederatzi puntu eta gehienez 14 puntu lor zitezkeen–. Diagnosi horren arabera, herrian dauden bidezidorrek bederatzi eta hamar arteko puntuazioa batu dute. Balorazio txikiena PR-Gi 103 bideak jaso du (*Kontrabandisten bidea* deritzona) eta balorazio onena PR-Gi 105 bideak; hau da, *Ezkutuko bidea* deritzona eta Arantzazuko lekuri ezkutuenak ezagutzeko aukera ematen duena. "Herriko sei bidezidor argi berdearekin ditugu eta bat argi gorriarekin. Hain justu ere, puntuazio txikiena lortu duena. Azken horrek balorazio hori jaso du, batez ere, bidearen egoera eta sarrerak ez dituelako modu egokian. Homologatua izaten

ESANAK

"Udalari dagokio bidezidorren mantenua"

ERNESTO MURGIIONDO | ZINEGOTZIA

jarraitzeko, arlo horiek hobetu egin beharko ditugu", esan digu Ernesto Murgiondok, Turismo zinegotziak.

Bost urterako konpromisoa

Ibilbide horiek homologatuak izaten jarraitu gura badute, euren egoera hobetu egin beharko dute; hain justu ere, urtero ibilbideen mantentze-lana egin behar da. Oñatikoen kasuan, Udala arduratuko da horretaz. "Udala da herriko bidezidorren sustatzailea eta hari dagokio bide horien mantenua egitea. Hori horrela, Gipuzkoako

DATUA

7

BIDEZIDOR

Horiek dira Oñatin dauden PR eta SLak. Bakarrak jaso du argi gorria.

Mendi Federazioarekin bost urterako konpromisoa hartuko du, ibilbide horien mantentze-lanak egiteko", dio Murgiondok. Federazioak, berriz, konpromiso hori betetzen dela egiaztatzen, Gipuzkoako ibilbide batzuen azterketa egingo du urtero. "Bost urteak pasatzen direnean ibilbide guztiak begiratuko dituzte berriro ere, hobekuntza horiek egin diren ikusteko. Hori horrela ez bada, bidezidor hori ibilbide homologatuen zerrendatik kanpo utziko dute", azaldu du Ernesto Murgiondok.

Udaberriko kontzertuak musika eskolakoekin

Gaur eta eguenean egingo dituzte Santa Anan

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolakok udaberriko kontzertuak egingo dituzte asteon. Gaur kontzertu bat eta eguenean (hilak 31) beste bat egingo dituzte Santa Ana antzokian. Biak ala biak 18:30ean.

Musika eskolako talde ezberdinek parte hartuko dute: triki-pandero, txistu eta akordeoi taldeak, musika tailerretako eta prestakuntzako ikasleak, biolin eta gitarra taldeak eta haize-instrumentuen taldeak erakutsiko dute ikasturtean zehar ikasi dutena.

Gainera, hilaren 31ko emanaldia bukatzen denean, diploma banaketa ekitaldia egingo dute bigarren maila gainditu duten ikasleen artean. Egindako lana aitortuko zaie.

Topaketa

Bestalde, apirilaren 15ean musika eskolen arteko topaketa egingo dute Oñatin. Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Bergarako, Sorluzeko eta Oñatiko musika eskoletako ordezkariak kontzertu bateratua egingo dute Santa Ana antzokian, 18:30ean.



lazo udaberriko kontzertuaren uneetako bat. | MUSIKA ESKOLA

Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak salgai daude

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek emanaldia egingo dute apirilaren 9an, 17:00etan, Txantxiku ikastolaren egunaren ekitaldien barruan. Sarrerak dagoeneko salgai daude ikastolako idazkaritzan, sei eurotan. Kiroldegiko kantxan egingo duten emanaldian, ikastolako 5 urteko neska-mutikoei kantuan eta dantzan egingo dute pailazoekin. Pirritxen seme-alaba Pupu eta Lore izango dira protagonista nagusiak.

Iñaki Perurenaren berbaldia apirilaren 12an herri eskolan

Euskara eta euskal kultura eskolako plangintzan lantzeko ekintzen barruan, Iñaki Perurenaren bisita izango dute Errekalde herri eskolan apirilaren 12an. *Iñaki Perurena, mila aurpegi, gizon bat* delako berbaldia egingo du eskolako aretoan, 17:00etan. Bere bizitzaren gainean egingo du berba: harri-jasotzailea, harakina, aktorea, abeslaria, harriaren museoa... Hitzaldia irekia da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.



SUSANA ARRESE

Elkar Heziko ikasleak Lege Soziologia Institutuan

Elkar Hezi ikastetxeko lehenengo eta bigarren mailako ikasleak bisitan egon ziren Lege Soziologia Institutuan. Unibertsitatean egoitza duen erakundea barrutik ikusi zuten, eta liburutegian egon ziren. Lege Soziologia Institutuko liburutegiak liburu eta dokumentu asko ditu. Hango arduradunek esan zieten eraikina irekia dagoela herritar guztiendako, eta eurek aukera dutela hango liburuak erabiltzeko eta kontsultatzeko.

OHARRAK

KINTADA

1937an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute apirilaren 9an. 13:00etan plazako aparkalekuan elkartuko dira, 13:30ean meza entzungo dute Arantzazun eta ondoren bazkaria egingo dute Urriagain jatetxean. Interesatuak izena eman beharko dute apirilaren 6a baino lehen: 943 78 08 81 (Miguel Albizu) edo 943 78 13 57 (Angel Aguirre) telefonon.

TELP TAILERRA

Txantxiku ikastolak antolatuta, hizkuntza mailako gatazkak konpontzen laguntzeko Valen-

tzia sortutako TELP tailerraren oinarriak azalduko dituzte hilaren 30ean. Emun elkarteko ordezkariak jardungo dute teknika berriaren gainean ikastolako aretoan, 18:30ean.

ESKI IRTEERAK

Eski sailak antolatuta aste bukaerako azken irteera egin dute Baqueirara. Denboraldia agurtzeko irteera egingo dute Pazko Astean Alpeetara. Apirilaren 22tik 30era. Interesatuak izena eman dezakete astelehenetan eta eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara Aloña Mendi tabernan.

ARETXABALETA



Autobusa Azbe lantegi pareko geltokian. | M.A.

Donostiarako autobus zerbitzua hobe izango da

Apirilaren 1a ezker Aretxabaletaraino datoz Donostiako autobusak, eta hemendik irtengo dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Datorren egubakoitzean, apirilak 1, hasita Donostiara joan-etorriak egiten dituzten autobusak gehiago izango dira eta gainera, Aretxabaletaraino iritsiko dira. Izan ere, orain Arrasaten autobus aldaketa egin beharra dago.

Azken hilabeteotan hainbat bilera egin dituzte Inaxio Garrok eta Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Arantxa Tapiak, eta autobus zerbitzua hobetzeko adostasunera iritsi dira. Hori horrela, Aretxabaleta eta Donostia arteko autobus

AUTOBUS ORDUTEGIA

ARETXABALETA DONOSTIA

06:00-07:20

06:45-08:00

12:15-13:30

13:15-14:30

19:15-20:30

DONOSTIA ARETXABALETA

11:00-12:15

12:00-13:15

18:00-19:15

21:00-22:15

zerbitzu zuzenen kopurua gehitu egingo da. Era berean, Donostia eta Aretxabaleta arteko zerbitzuak ere gehiago izango dira.

Alkatea pozik agertu da; izan ere, herritarrek sarritan eskatu izan dute zerbitzu hori hobetzea. Era berean, herritarrak garraio publikoa erabiltzera animatu gura ditu: "Arnasteko airea garbi izan nahi badugu, guztioi dagokigu esfortzu txiki hori egitea", dio.

Beste zerbitzu batzuk

Bestalde, jaiegunetan Gasteiztik Aretxabaletara 21:30ean datorren autobusa AP-1 autobidea hartuta, Arrasatera joan aurretik, gurean geratuko da.

Eta guretik Oñatira 06:50ean joateko zerbitzua hartzen dutenek autobus-aldaketa egin ahal izango dute Arrasaten, 07:00etan.

Bake epaile izateko izenemate epea zabalik dago

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak bake epaile eta haren ordezkioa hautatu gura ditu datozen lau urteotarako. Horretarako izen-emate epea zabalik dago egubakoitzean arte, apirilak 1, eta eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira.

18 eta 65 urte artekoa

Oraingo bake epaile Zorione Jausorok eta haren ordezkio Olatz Bengoak lau urte beteko dituzte

laster; hori horrela, hautaketa prozesua jarri dute abian. Hiru baldintza bete behar dituzte eskaera aurkeztutakoek: Aretxabaletan erroldatuta egotea; 18 eta 65 urte artean izatea; eta zuzenbide lanean ez jardutea, hau da, abokatua ez izatea.

Aurkeztutakoaren artean bi hautatuko ditu udalbatzak osoko bilkuran, eta ondoren Bilboko Auzitegi Nazionalak egingo du horien izendapena.

Eginbeharrak

Bake epailearen eginbeharren artean honakoak daude: ezkontza zibileko kontuak bideratu, tartean ezkontzak zuzendu; jakinarazpenak eta zitazioak bideratu herritarrei; eta kontziliazio ekintzak bideratu, hau da, bitartekari lanak egin adostasunera iristen ez diren bi aldean artean.

Lan horiek egiteagatik diru saria ematen dio Jaurlaritzak bake epaileari.

Mozio bat eta ohiko gaiak gaur egingo duten osoko bilkuran

Maiatzeko udal hauteskundearen aurretik egingo duten azken ohiko osoko bilkura izango da gaurkoa (18:00). Beste gai batzuen artean, Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioa eztabaidatuko dute, droga-menpekotasunaren gainekoa. Gainera, hondakin batzuei baja emango diete eta galderak egiteko tartea ere izango da.

Garizuma ospatzen dabilta parrokiaren gurutze-bideak eginda

Martxoaren 9an hasi zuten garizuma kristauek eta Aste Santua iritsi bitartean gurutze-bidea egingo dute egubakoitzetan (19:00) parrokiaren, ohiko meza esan beharrean. Eta domeka arratsaldetan (18:30) bezperak otoitz egiten dituzte Agustindarren monasterioan. Bestalde, apirilaren 12an, martitzena, otoitzaldia egingo dute (19:00) monasterioan.

Naturak emandako osagaiekin artelana egingo dute bihar

Bihar, hilak 29, Landart izeneko proiektua garatzeko Arizmendi ikastolako (Almen) Batxilergoko ikasleak batuko dira Urkuluko bidegorri berria bukatzen den zelaian, Goroe-ta auzoan –egurrezko dorreen alboan–. Naturak emandako elementuekin –egurra, orbela...– artelana bat egingo dute bertan.

ESKORIATZA

Intxaurtxuetako kiroldegiari 'Manuel Muñoz' izena jartzeko sinadurak batu eta gaur aurkeztuko dituzte udaletxean

Eguazteneko osoko bilkuran eztabaidatuko du udalbatzak kirol elkarteak egindako eskaera

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteko kideak sinadurak batzen ibili dira egunotan, Intxaurtxuetako Udal Kiroldegiari Manuel Muñoz izena jartzeko eskatuz. Aste bukaeran jokaturako partidu guztietan izan dira herritarrei sinadurak eskatzen eta gaur, astelehena, udaletxean aurkeztuko dituzte jasotakoak, eskaera ofiziala eginda.

Erabakia osoko bilkuran

Martxoaren 20an zendu zen 30 urte baino gehiagoz Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente izandako Manolo Muñoz. Langile nekazetza, lagun ona eta herriko kirolariendako babes garrantzitsua izan den gizonak hutsu-

ne galanta utzi du elkartean eta herrian bertan. Egindako lan guztia aitortu eta eskoriatzarren oroimenean betiko gera dadin kiroldegiari haren izena jarri gura diote: Manuel Muñoz kiroldegia.

Joan den martitzena ezkerreko kiroldegiaren egindako omenaldiaren ondoren –ibili dira sinadurak jasotzen, eta gaur, astelehena, udaletxera eroango dituzte. Fernando Raso entrenatzaileak argitu du Pedro Lasagabaster alkatearekin berba egin dutela eskaeraren berri emateko, eta begi onez ikusi duela. Hain zuzen ere, eguaztenean, hilak 30, udalbatzak egingo duen osoko bilkurako gaietako bat da.

ARETXABALETA

Udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Udaleku Gazteria Zerbitzuak dagoeneko hasi dira uztailako udaleku irekiak gertatzen, eta begirale lanetan jarduteko gertu dauden gazteak gura ditu. Izenemate epea zabalik dago apirilaren 8a artean, eta curriculumak bidaltzeko hiru bide dituzte interesatuek: Arkupe kultura etxeko harrean utzi; Gazteria Zerbitzuko bulegora eraso (Arkupen); eta helbide elektronikoko bidez bidali: gazteria@aretxabaleta.net.

Hona hemen begirale izan gura dutenek bete beharreko baldintzak: euskaraz jakitea eta 18 urte beteta izatea. Horiez gain, egindako ikasketak eta eskarmentua baloratuko dituzte Gazteria Zerbitzuko kideek hautaketa egiterakoan.

Uztailaren 4tik 22ra

Herriko udaleku irekiak uztailaren 4tik 22ra bitartean egingo dituzte aurretik; hiru aste, guztira. 3 eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoak elkartuko dira goiz eta arratsalde; iaz, 250 inguru. Hainbat eratako ekintzak antolatuko dituzte horiendako ondo pasatzeko helburuarekin: jaialdiak, eskulan tailerrak, egun pasak, gaua pasatzeko irteerak, jolasak... Hala bada, horiekin guztiekin jarduteko 25 bat begirale behar dituzte udalekuen antolatzaileek.

ESKORIATZA

Eskola agenda bilkura eta osoko bilkura eguaztenean

M.A. | ESKORIATZA

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak eguaztenean, hilak 30, (18:30). Aurretik, baina, Eskola Agenda 21 lantzen dabiltzan ikasleekin elkartuko da alkatea (18:00), azken hilabeteotan egindako lana jasotzeko.

Udalbatzak hainbat gai ditu lantzeko eguazteneko osoko bilkuran, tartean hainbat dirulaguntza bideratzeko oinarriak: hezkuntza proiektuetarako; gizarte zerbitzuetan jarduten duten elkarreendako; euskararen normalizaziorako... Horiez gainera, Mesedetako Amaren Fundazioak egindako dirulaguntza eskaera aztertuko dute, eta hainbat baserriren izenak onartzeko proposamena egingo da.



ARAMAIO



Manex Agirre aurtengo txapelketan; finalean bere saioarekin ikuslea gustura geratzea du helburu Agirrek. | JOSEBA ZUNZUNEGI

Manex Agirre | Arabako bertsolari txapelketako finalista

"Finalean ez dago sekula ezer ziurrik, hori lege naturala da"

- ▶ Zapatuko finalean bere saioarekin entzulea gustura utzi gura du Agirrek
- ▶ Beste aramaioarrak atarian geratu izanak pena eman diola aitortu digu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako txapelketako finalean Aramaio ordezkaririk bakarria izango da Manex Agirre (Aramaio, 1982). Eskarmentu handia du, 2002a ezkeror urtero –iaz ez zen egin– hartu du parte: "Beteranoetakoa naiz, eta horrek beldurra ematen dit", dio. Finalaren atarian izan gara harekin.

Nola joan da orain arte txapelketa? Plano pertsonalean ezin izan da hobeto joan. Bi saio izan ditut finalerako sailkatu aurretik, lehen kanporaketa Ataurin eta finalurrekoa Zigoitian. Bietan lehen postuan geratu naiz, eta, beraz, nire ikuspegitik ezin dut gehiagorik eskatu. Horrek, baina, ez du esan nahi finalera begira lasai nagoenik.

Aldaketak izan dira nagusi aurten. Bai, aurten txapelketak salto kualitatiboa eman du 2009koaren ondoan. Hiru kanporaketa izatek bost izatera pasa da eta bi finalurrekotatik hirura. Horrek bertsolari gehiago izan direla esan gura du, eta poztekoa da. Entzuleek eskertu dutela esango

nuke, iaz deskantsua eman zitzaion txapelketari eta jendeak gogo handiagoz hartu du. Bertsolariok ere gogotsuago joan gara.

Finalari begira, zein inpresio?

Finaletarako ez dago sekula ezer ziurrik, hori lege naturala da. Orain arte nahiko lasai ikusi dut nire burua eta seguru sentitu naiz, baina finalean, Oihane Perea, Asier Otamendi, Zigor Enbeita eta konpainia izango dira. Goitik beherako bertsolariak dira, eskarmentu handikoak; finalak itxura polita du.

Gainera, aurpegi berri bat ere izango da, Ander Solozabal; beste freskotasan bat emango dio.

Eta inpresioez haratago, zein da zure helburua?

Jende asko joango dela espero dugu. Nire helburua da jende hori guztia saio ona ikusi den sentazioekin joatea. Eta gero, noski, sailkapenean ahalik eta goren geratu gura dut.

Ez dira sailkatu, baina nola ikusi duzu beste aramaioarren lana?

Iker Agirre kanporaketetan geratu zen. Pena izan zen, 2009koarekin

konparatuz hobeto eta gogotsuago ikusi nuen-eta. Andere Arriola-bengoa finalurrekoetarako sailkatu zen, baina, beste arrazoi batzuk zirela medio, ezin izan zuen parte hartu. Horrek pena handia ematen dit. Eta, azkenik, Xabier Igoaren kasuak ere arantzatxo utzi du. Izan ere, finalerako atea mutur aurrean itxi zitzaion; Ander Solozabalekin puntuetan berdinduta geratu zen. Solozabalek bakarkako lanean puntu gehiago zituelako geratu zen kanpoan. Lastima.

Arantzatxo geratu zaigu bertso eskolakooi, baina atarian geratu izana ere seinale ona da. Datoren txapelketetan ez da halakorik gertatuko.

Nola dago, osasunez, Arabako bertsolariak?

Ondo. Ez da txapelketa bakarrik, bertso eskolak urte osoan egiten du lan. Baina datu interesgarria da txapelketan inoiz baino gazte gehiago egon dela lehen aldiz parte hartu duena. Txapelketa erreferentzia bihurtu da gazteendako eta hori oso garrantzitsua da; ondo ari gara lanean.

Urendako hodi sare berria

Landagipuzkoa 32 egitasmoaren laguntza jaso du ur-deposituak, eta Erga SL eraikuntza enpresari eman diote lanen ardura. Gatzagainen kokalekua izango duen depositua bera eraikitzeaz gain, herria hornitzen duen depositutik haraino ura eroateko hodiak jarriko dituzte. Gainera, lanok aprobetxatuta ur zikinak batuko dituen sarea ere egingo dute. Bost hilabete iraungo dute lanok.

Ur-deposituak Gatzagain eta Arlaban inguruan dagoen ur-aztoa –batez ere uda partean– konponduko du. Gainera, behar beharrezkoa da Arlabango plan berezia garatu ahal izateko.

ELGETA

GR-121 mendi ibilbidearen markatze lanak amaituta daude

Mendi Federaziotik esan dute seinale bertikalak eta informazio panelak ipintzea falta dela orain

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gipuzkoako Mendi Federazioak otsail erdialdean hasi zituen markatze lanak. Elgetako zatia-ri dagokionez, dagoeneko amaituta daudela adierazi du Gipuzkoako Mendi Federazioko zuzendari-laguntzaile Igor Aldalurrek. "Udalak, orain, informazio panelak eta seinale bertikalak ipiniko ditu", adierazi du Aldalurrek. Seinale bertikalak GR-121 beste ibilbide homologatu batekin –PR edo SL– gurutzatzen den bakoitzean ipintzen direla azaldu du.

Lehen ez bezala, Gipuzkoari bira ematen dion GR-121 Elgeta erdigunetik igarotzen da orain. Salbador kalean ageri dira bide hori markatzeko Federazioko

kideek egin dituzten marra zuri-gorriak. Eibartik iristen da Elgetara eta Intxortako ibilbide tematikoa hartuta iristen da Asentziara, gero Gesalibar alde-ara egiteko.

Intxortako ibilbide tematikoa, berriz, SL ibilbide moduan homologatu dute. Udalak egindako eskaria izan da hori eta dagoeneko markatuta dago; marra zuri-berdeekin, kasu horretan. "Markak eraginkorrak dira jendea gal ez dadin", azaldu du Aldalurrek. "Jendea ibilbide bat egitera etortzen bada eta galdu egiten bada, oso inpresio txarrekin joaten da. Hori txarra da denondako". Hortaz, prest duzue GR-121 ibilbideak gurean egiten duen zatia.



GR-121 Salbador kaletik igarotzen dela seinalatzen duten marra. | L.Z.

ANTZUOLA

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik

Umeek eta begiraleek zabalik izango dute izena emateko epea apirilaren 11ra arte

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Uztailaren 1etik 14ra bitartean egingo dira aurten udaleku irekiak eta 5 urtetik 6. mailara arteko neska-mutikoei parte hartu ahal izango dute. Ordutegia honakoa izango da: 09:30etik 13:00etara. Ume bakoitzeko 40 euro ordaindu beharko dira; 28 euro bakoitzak familia ugaria izanez gero.

Izena emateko azken eguna apirilaren 11 da, astelehena. Eskolan ume bakoitzari izena emateko orri bat banatuko zaio; orri hori beteta eta ordainketaren ziurtagiria eraman beharko dira udaletxera izena eman ahal izateko. www.antzuola.com webgunearan bidez ere eman daiteke izena.

Irizpide hauek zehaztu dituzte udalekuek parte hartzeko: udalekuak hamar egun gogoz eta

gustura pasatzeko dira; dauden baliabideak erabiltzeko aukera izango dute umeek eta materiala zaindu eta jaso egin beharko da; proposamenak eta irizkiak emateko edo entzuteko aukera izango dute; ekintzak eta giro ona bermatzeko, errespetuzko harremanak ziurtatuko dituzte; irizpideak betetzeko, arduradunek unean uneko neurriak hartu ahal izango dituzte.

Begiraleen izenematea

Umeenarekin batera, begiraleek izena emateko epea ere zabaldu da. 14 begirale beharko dira eta izena emateko azken eguna apirilaren 11 izango da. Uztailaren 1etik 14ra 09:00etatik 13:30era bitartean egingo dute lan. www.antzuola.com-en eman ahal izango dute izena, bertako inprimakia beteta.

LEINTZ GATZAGA

Oraindik hasteko daude Gatzagaingo ur deposituaren lanak


Udalak ez du jaso atzerapenaren zergatiaren jakinarazpenik; bost hilabete iraungo dute lanok

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Egun batetik bestera hasiko dira Gatzagainen ur depositu berriaren lanak egiten, baina Udalak ez daki noiz. Lanok dagoeneko hasita izan behar zutela uste du Eusebio Villar alkateak, baina ez dute jaso atzerapenaren arrazoiaren berri ematen duen jakinarazpenik.

Otsailaren 19an egindako ekitaldian, lanen berri ematen duen kartela jarri zuten Gatzagainen, Rafa Uribarren diputatua eta lanak bideratuko dituen Etorlurko ordezkariek han zirela. Hala, bada, hurrengo egunetan lanean hasiko zirela uste izan zuten, baina hilabete pasatuta oraindik hasi barik daude.

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KIROLA

GORLAKO 37. IGOERA

Gorlako azken kurban erasoja jota, Omar Fraile irabazle

- ▶ Favoritoak irabazi zuen, Soraluzen ere azkarrena izan zen
- ▶ Taldea Seguros Bilbaokoek nagusitasuna erakutsi zuten
- ▶ Jon Riverok, gureko ordezkari bakarrak, proba ondo amaitu zuen



Omar Fraile (Seguros Bilbao), Goienako argazkilaria atzean zeuden senitartekoei garaipena eskaintzen, Gorlako gainean. | JULIO GARCIA

XABIER URTZELAI | BERGARA

Lasterketa hasi aurretik favoritoa zenak, Omar Fraile santurtziarrak, 2:24:25ko denbora behar izan zuen lasterketako 90 kilometroak egin eta helmugan, Contadorrek egiten duen moduan keinu berezi bat eginaz garaipena zaleei eskaintzeko. Ez zuen, baina, Pintokoak moduan tirorik jo, ez ospakizunean, ezta kilometro bat lehenago, erasoja jo zue-nean.

Azken kartutxoa, ederra

Lasterketa, 89. kilometroan irabazi zuen Frailek, Goralara bidean dagoen azken kurba itxian. Puntu horretaraino Frailekin batera Aitor Gonzalez (Debabarrena), Javier Moreno (Caja Rural), Ramon Domene (Seguros Bilbao), Nick Van Geffen (Caja Rural) eta Igor Merino (Naturgas) iritsi ziren, baina Frailek azken kartutxoa erretzea erabaki zuenean Aitor Gonzalez bakarrik izan zen hari aurre egiteko gauza -8 segundora-; besteek ez zuten horretarako hankarik, hausporik.

Frailek ez zien kontrarioei bere gupila hartzeko inongo tarterik utzi, eta iaz ez moduan, atzokoan irabazlea lasai asko ikusi genuen garaipena behar den moduan ospatzen, azken metroez gozatzen.

Lasterketa azkarra

Irteera puntuan Seguros Bilbao zen gizon indartsuenak zituen taldeetako bat -ondoren erakutsi zuten moduan-. Hamabi ordezkari zituzten, baina zuzendariak ez zituen denak Fraile-rendako lanean ipini. Ramon Domene -laugarren- ere aurrean ibiltzeko moduan zegoen, eta baita Iban Salas ere. Lasterketan zehar egon ziren ihesaldi ahalegin gehienak baliogabetu zituzten, eta bakarrak egin zuen aurrera. Antzuolatik Bergarara jaisten 40 segundoko aldea zuten aurreko taldetxokoei, eta saiheshidean taldea txikitzen joan zen, Gorlako lehenengo maldak hasi zituzten arte.

Taldetxo horretako bi ordezkariak, Caja Ruraleko Jordi Simonek

eta Naturgaseko Fernando Grijalbak baino ez zuten izan mendateko lehenengo kilometroak aurretik egiteko indarra. Baina, Gorlako 3. kilometro inguruan atzetik zetorren taldeak irentsi egin zituzten: igotzaileendako ordua zen, proban zehar ahal zuten neurrian indarrak gordetzen joan ziren gizonen txanda. Hala, hainbat kilometrotan elkarri zaintzen joan eta gero, Frailek erabaki zuen proba noiz bizitu, erasoja jo, eta irabazteko.

Aipatzekoa ibarreko ordezkari bakarra izan genuela proban, nagusien kategorian estreinatua berria den Jon Rivero bergararra. Lasterketa amaitzea lortu zuen, 76. postuan.

DATUA

37,3

KILOMETRO ORDURA

Omar Frailek 2 ordu eta 24 minutu behar izan zituen probako 90 kilometroak egiteko; hala batezbesteko abiadura 37,3koa izan zen.

Soraluze eta Gorla, dobletea

Lasterketa hasi aurretik Soraluzeko lasterketako antolatzaile Oregik Omar Fraile adierazi moduan, azken urteotan Soraluzen azkarrena izan denak, aste gutxira, Gorlan irabazi du. Eta, Omar Frailek ohiturarekin jarraitzea erabaki zuen atzo, denboraldi hasieran indartsu dagoela berretsiz.

2008an Andrei Amadorrek hasi zuen dobleteen ohitura, Soraluzen eta Gorlan irabaziz, eta hurrengo urtean Mikel Landak hartu zuen erreleboa. Iaz bertan behera utzi behar izan zuten Soraluzeko proba -ziklogenesiagatik- eta lasterketa uztaiera atzeratu zuten ez zen garaipen bikoitzik egon. Fraile arduratu da, baina, ohitura errekupeatzeaz.

OMAR FRAILE | IRABAZLEA

"Iaz Antzuolan, aurrekoan Soraluzen... Garaipen politikak lortzen nabil hemen"

Gorlako Igoera moduko proba entsutetsua irabazteagatik pozik zen santurtziarra. Taldearen lana eskertu zuen helmugan.

Eraso gogorra jo duzu igoeran, ikusgarria, kurba baten faltan.

Orduan edo inoiz ere ez! Horixe esan diot nire buruari, eta erritmoa aldatuz aurrera egin dut. Banuen indartsuegi hastearren indar gabe geratzeko beldurra, baina ondo eutsi dut goraino.



Omar fraile. | X.U.


Talde indartsuena izan zarete.

Taldeko hamabi lagun izan gara proban, eta lasterketa kontrolpean izan dugula esango nuke. Ihesaldi ahaleginak bertan behera utzi ditugu, eta taldekideei nire alde egindako lana eskertu behar diet.

Gustua hartu diozu


bailara honi.

Bai, dagoeneko hirugarren garaipena dut hemen, iaz Antzuolan irabazi nuen, aurrekoan Soraluzen, eta orain garaipen garrantzitsu hau.




AITOR GONZALEZ
BIGARREN SAILKATUA

"Sergio Ruiz taldekidea eta biok etorri gara aurrean ibiltzeko asmoaz, eta taldekideek lan ederra egin dute gure alde. Azken metroetan ezin izan diot Omarren erasoari erantzun, baina pozik nago bigarren postuarekin".



JAVIER MORENO
MENDIKO SARIKO IRABAZLEA

"Ez da nire egunik onena izan, baina gorputzaldi onean nago, eta horretaz baliatu naiz aurrean ibiltzeko. Gorlako lehen pasadan inork ez zuen erasoja jotzen, eta lehenengo egin dut, mendiko sariaren bila".



JON RIVERO
BERGARAR AZKARRENA

"Amateur mailako lehen urtean etxeko lasterketa amaitu ahal izan dut, eta pozik nago. Atzeko taldetik ihes egin dugu Deskargara igotzen lau lagunek, eta helmugara iritsi gara; ondo moldatu naiz kategoria berrira".

ESKUBALOA | Ford Mugarrik berdindu egin zuen, etxean, liderraren kontra | 25



SAILKAPENA

1 Omar Fraile	2:24:25
2 Aitor Gonzalez	8ra
3 Javier Moreno	16ra
4 Ramon Domene	22ra
5 Nick Van Geffen	22ra
6 Igor Merino	22ra
7 Imanol Iza	52ra
8 Ibai Salas	52ra
9 Antonio Molina	52ra
10 Francisco Garcia	52ra
11 Rafael Marquez	52ra
12 Fernando Grijalba	1:16ra
13 Antonio Pedrero	1:16ra
14 Sergio Ruiz	1:16ra
15 Quentin Pacher	1:16ra
16 Jesus Del Pino	1:40ra
17 Jon Larrañaga	1:40ra
18 Julen Mitxelena	1:40ra
19 Jon Oria	1:40ra
20 Jordi Simon	1:40ra
21 David Gonzalez	1:40ra
22 Israel Nuño	1:40ra



Tropela Labegariatetan, Antzuolara bidean; erdian, Mikel Garaialde, 20 zenbakidun dortsalaz. | XABIER URTZELAI

UZARRAGAKO IGOERA

Mikel Garaialdek izan zituen hanka arinenak Uzarragako maldetan

Caja Ruraldeko mutilak Sumoficekoek egindako lana aprobetxatu zuen lasterketa irabazteko; Iker Eskibel eskoriatzarra, hirugarren

XABIER URTZELAI | ANTZUOLA

Lasterketa amaitzeko sei kilometroren faltan, Bergaran, Mikel Garaialde (Caja Rural) tropelean zihuan –argazkian– aurrealdean lanean zebiltzan Lokatza-Sumoficeko taldekoen lana bertatik-bertara jarraitzen. Ondo zekien hori zela bere tokia, eta tropelak aurretik ihes eginda zihuan taldea harrapatzea zen bere nahia. Garaialderena, eta aurrealdeko ihesaldian sartu ez ziren gaitzailak, noski.

Hain zuzen, ihesaldi horretako ziklistak harrapatzeko gogotik egin behar izan zuten lan, besteak beste, Sumoficeko Hodei Orobengoak, Eneko Lizarralde eta Mikel Aristik. Taldean gorpuzkera handiena duten ziklistetako hiru dira, eta lautadan eurei tokatu zitzaizen tro-

peletik tira eta tira egitea –gaitzailak taldekideen laguntzaz– aurrean zeudenek zuten minutu pasako aldea txikitzeko. Zergatia, garbia: "Ihesaldi horretan inor ez genuelako", adierazi zigun Iker Sanchez entrenatzaileak. "Zuzendariren batek esan dit horrenbeste denbora tira egiten joatea ez dela normala, baina guri lasterketetan parte-hartzea gustatzen zaigu, ahal dugun neurrian protagonistak izatea. Hala, ni taldeko ordezkariak gaur sekulako lana egin dute, 50 kilometro baino gehiago tiraka".

Kilometro eta erdwi

Lan horrek, azkenean, eman zituen bere fruituak, Antzuolara iristean, 79,5 kilometroan harrapatu zituzten-eta ihesaldi-

tik geratzen ziren apurrak. Hala, ia 100 txirrindulari Uzarragako maldei aurre egiteko gertu, eta tartean Lokatza-Sumoficeko, Mugarri-Jay taldeko (Dorletako Ama) eta Ulmako (Aloña Mendi) ordezkariak, gure ziklistak.


Tropeletik berehala egin zuen aurrera Jokin Etxabe bergararrak, taldekideek neurri handian harendako egin zuten-eta lana. Zeukana eman zuen malda gora, baina kilometro eta erdi horretan izan ziren azkarragoak, besteak beste, Etxaberekin batera tropelaren babesean joan zen Mikel Garaialde, eta baita lan bikaina egin zuen Iker Eskibel eskoriatzarra ere, podiumean hirugarrena, eta ibarreko azkarrarena: "Bergarakoek sekulako lana egin dute, eta ni horretaz baliatu naiz".



Gorlako lehen erasoan, Simon eta Grijalba. | ANDER MONEDERO



Txirrindulariak, Gorlako lehenengo pasadan. | JULIO CALLEJA



MIKEL GARAIALDE
CAJA RURAL

"Gazte mailako lehen urtekoa naiz, eta ez nuen irabazterik. Iaz lasterketa hau ikusten egon nintzen, baina egia esan, ez nuen igoera oso ondo ezagutzen. Indarrez iritsi naiz goraino".



IKER ESKIBEL
MUGARRI-JAY

"Aurrean egon nahi nuen, baina ez nuen espero hirugarren helmugaratzea; aste barruan Uzarragara etorri gara, eta entrenatzailearen gomendioei kasu egin diet; oso pozik nago".



JOKIN ETXABE
LOKATZA-SUMOFICE

"Asturiasen ondo ibili nintzen aldapa gora, eta taldeak gaur sekulako lana egin du niretako, aurrean zegoen ihesaldia harrapatzeko. Pena, pastelari ginda jartzea falta izan zaigu".

OHOREZKO ERREGIONALA

Partidu lasaia UDarentzat; laugarren tokira igotzea dute orain helburu

Bi golak bigarren zatian etorri ziren; lehenbiziko zatian lasaiegi aritu ziren etxeko jokalariek

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Iker, Raul, Igor, Ibabe (Alain, 56 min.), Kerman, Aitor Etxeberria, Julen, Guillen (Jon, 80 m.), Oinatz (Barbero, 78 m.), Iñaki eta Perez (Orueta, 56 m.).

Ordizia: Eguren, Sevilla, Alvarez, Molina, Jauregi, Urreta, Galparsoro, Avila, Garmendia, Martinez (Garmendia, 76 m.) eta Mendia (Zabala, 84 m.).

Beste: Ohiko ikusleak Ibarren. Euria. Ordoñez epaileak txartel horia atera zien Kermani, Iñakiri eta Jauregiri.

EMAITZA

UDA
2-0
ORDIZIA

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA
Saikapeneko azken taldea zeterren atzo Aretxabaletara eta beharbada horregatik beharrez-

ko tentsiorik gabe ekin zioten partiduari etxeko jokalariek. Bigarren zatian, Juanan Cruz entrenatzaileak egindako aldatetek fruitua eman zuten berehala: zelaira sartu bezain laster, ukitu zuen lehen baloia sareetara bidali zuen Iker Oruetak. 57. minutua zen. Oruetak ezkerkada bikain bat jo zuen arearen ertetik eta baloia behetik sartu zen, atezainaren eskumaldetik.

Gol bat baliorik gabe

Ordiziak saikapeneko azken postuaren zergatia azaldu zuen atzo Ibarren. Itxura eskasa eman zuten ordiziarrek eta etxeko atezainak ia-ia ez zuen lanik izan partidu osoan. Zelai erditik aurrera gutxitan egin zuten bisitariek.

Aretxabaletari dagokionez, aukera aparta galdu zuen atzo gol gehiago egiteko. Epaileak ere zerikusia izan zuen horretan. 70. minutuan baliorik gabe utzi zuen Keranen gol bat. Iker Oruetak area barruan errematatu eta erantzun bikaina eman zion Eguren atezainak. Keranek alda-



Guillen UDako erdilaria bigarren gola ospatzen, jarraitzaile gaztetxo batzuekin. | JULIO CALLEJA

ratzea jaso eta sarera bidali zuen baloia, baina jokoz kanpoko posizioa adierazi zuen epaileak. Ez zirudien UDako atzelaria aurreratuta zegoenik Oruetak errematea egiteko orduan. Jarraian,

Beñat atezainaren aurrean bakar bakarrik geratzera zihoanean, Molina atzelariak garbi kendu zion baloia area barruan. Azken metroetara nekatuta iritsi zen aurrelari aretxabaletarra.

Eta 77. minutuan bigarren gola iritsi zen. Guillenek buruz errematatu zuen area txikian Etxeberriaren erdiraketa ezin hobe bat. Martxa onean doa UDA, laugarren posturako bidean.

IKER ORUETA | UDAKO JOKALARIA

"Maiatza bitartean saikapenean ahalik eta goren geratzea da gure helburua"

Zelaira salto egin eta gola sartu. Ezkerkada eder batekin partiduko lehen gola egin zuen Iker Oruetak (26 urte). Taldeko jokalaria beteroetako bat, ligako aurreneko gola egin zuen atzo.

Hori da hori partidua ondo has-tea...

Bai, zortea izan dut. Gutxitan gertatzen dira horrelakoak. Egia esan, ez dut bitan pentsatu. Ondo etorri zait baloia eta ezkerrekin jaurtiketa ona atera zait.

Ez da borroka askorik egon gaurko partiduan, ala?

Guk nahiko erlaxatuta hasi dugu partidua eta bigarren zatian esnatu egin behar izan gara garaipena eskuratzeko. Baina bai, partidu lasaia izan da. Konfiantza handiegiz ibili gara Ordizia azken postuan dagoelako.

Anaitasunak ez zuen huts egin Bergaran eta bosgarren jarraitzen duzue.

Zazpi partidu geratzen dira liga ama-



Iker Orueta. | E.M.

tzeko eta ahalik eta goren saikatzeko ahaleginduko gara. Hernani eta Real Union ikusten ditut indartsuen. Ikusiko dugu non bukatzen dugun maiztzean...

OHOREZKO ERREGIONALA

Epailea, zoritxarreko protagonista Bergara eta Anaitasunaren aurkako partiduan

Etxekoak 1-0 irabazten ari zirela, azkoitiarrei penalti bat oparitu zien epaileak

E.M. | BERGARA

Joaneko partiduan bezala (2-0), epaileak erabat baldintzatu zuen Bergara eta Anaitasunaren aurkako partidua. Etxekoak 1-0 irabazten ari zirela, penalti oso eztabaidagarria adierazi zuen Bergararen kontra eta hori gutxi balitz, Arazkonaga atzelariari txartel gorria erakutsi zion. Hor

bukatu zen partidua. Jokalari bat gutxiagorekin eta Anaitasuna moduko talde baten aurka, ezer gutxi egin ahal izan zuten Oskar Maiztegiren mutilek.

Lehen zatia 1-2koarekin bukatu zen eta segidan beste bi gol egin zituen Anaitasunak. Partidua bukatzen ari zela, bigarren gola egin zuten etxekoek, penalti baten

bidez. Alberdik ez zuen 11 metroko marratik barkatu. Mahoneroen lehenbiziko gola Iltzarbe erdilariek egin zuen, falta jaurtiketa bikain bati esker.

Agorrosinen bildutako zaleen eta Bergarako jokalaria eta zuzendaritzakoen haserrea piztu zuen epaileak. Txartel ugari atera zituen eta borroka horretan etxeko taldea izan zen kaltetuena. Txartelak ateratzeko erraztasun gehiegi izaten dute epaileak askotan.

Liderrari bisita

Kontuak kontu, badirudi Bergara krisialditxo baten sartu dela. Otsailetik hona bi partidu baino ez ditu irabazi eta defentsan talde sendoenetako bat izatetik kontrakora pasatu da: azken lau partiduetatik hirutan lau gol egin dizkiete bergararrei.

Hurrengo jardunaldian ez dute lan erraza izango Real Union liderrari egingo diotelako bisita. Saikapenean 8. tokian da Bergara orain, 39 punturekin.



Imanol Cabanillas Bergarako kapitaina erasoko jokaldi baten. | JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak 1-2 irabazi zion Rotetari eta Mondrak banako berdinketa ekarri zuen Zumaikatik zapatuan

Hainbat baja izan arren, Aloñak garaipen garrantzitsua erdietsi zuen zapatuan. Joko gutxiko eta borroka asko partidua izan zen eta lehen zatian neurketa erabakita utzi zuten oñatiarrek. 0-2 aurreratuta ziren Iñigo Zubia eta Gorka Bernalen golei esker eta Rotetak lehen zatia amaitu baino lehen gola egin arren, Aloñak abantailari eutsi zion bigarren zatian. Mondrak, berriz, puntu bat lortu zuen Zumaia koren aurka, Aita Mari zelaian (1-1).



GAZTE NAZIONALA

JULIO CALLEJA

UDako gazteek Gernikari irabazi

Aretxabaletako nazional mailako gazteek urrezko hiru puntu eskuratu zituen zapatuan Ibarren. Mikel Etxabe eta Igor Arenazaren jokalariek 1-0 irabazi zioten Gernikari, Mikel Zubizarretak egindako golari esker. Jaitsiera postuetatik kanpo da UDA orain.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Partidua eskuan izan bazuen ere, berdinketa eskertu zuen Ford Mugarrik

Ford Mugarri irabazten joan zen partidua gehiena, baina gasteiztarrek bi goleko abantaila lortu zuten partidua bukatzeko bi minutu falta zirela

EMAITZA

FORD MUGARRI

30-30

CORAZONISTAS

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Emozio handiko partidua zapatu arratsaldean Iturripen bizi izan genuena. Saillkapeneko lehen bi taldeak ziren aurrez eta arrasatearrek eta gasteiztarrek ikuskizun bikaina erakutsi zuten Iturripen batutako zaleen aurrean. Etxeko taldeak hartu zuen jokoa-ren ardura lehen minututik eta ia partidua osoan aurretik izan genuen Ford Mugarri markagailuan, Atsedenaldirako hiru goleko abantaila lortu zuten arrasatearrek (18-14).

Bukaera zoroa

Nahiz eta bigarren zatian Ford Mugarri bost goleko abantaila izatera iritsi (24-19), gasteiztarrek ez zuten amore eman eta aldea murrizten hasi ziren. Azken minutuak zoratzekoak izan ziren eta tentsioa handitzeko markagailu



Jonan Eskibel arrasatearra arerio batekin borrokan, zapatuan Iturripen. | JULIO CALLEJA

elektronikoarekin ere arazoak izan zituzten mahaian. Gasteiztarrek ezin zuten sinetsi: bi gol aurretik jarri ziren eta ia-ia garaipena ospatzen ari zirela, etxekoen erreakzioa etorri zen. Ekaitz Aranburuzabalaren geldiketak

erabakigarriak izan ziren eta Iker Zubiaurrek azken aukera bat izan zuen garaipena lortzeko. Hala ere, bi taldeek ontzat eman zuten berdinketa. Gasteizen, joaneko partiduan, arrasatearrek irabazi egin zuten baina zapatuan

ezin izan zuten emaitza hura errepikatu.

Hiru jardunaldi amaitzeko

Saillkapenak berdin jarraitzen du. Corazonistasek puntu bateko aldea ateratzen dio Ford Muga-

EDU ORGAZ
ENTRENATZAILEA

"Pena izan da abantailari eusten asmatu ez izana, gaur irabaziz gero liga eskura izango genukeelako. Oso nekatuta bukatu dugu eta meritua izan dugu amaieran atzetik joanda berdinketa lortzen"

KEPA ISASMENDI
KAPITAINA

"Azken 10 minutuetan behera egin dugu eta Corazonistasek ondo aprobetxatu du hori. Aulki aldetik justu samar gabiltzala ikusi da baina ontzat emango nuke puntua, amaiera zelakoa izan den ikusita"

rriri eta badirudi biak izango direla igoera faserako sailkatuko diren taldeak. Hiru jardunaldi besterik ez dira geratzen. Universidad Deusto-Loyolari egingo dio bisita Ford Mugarrik asteburuan.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Manolo Muñoz gogoan, garaipen garrantzitsua lortu zuen Eskoriatzak

STL Bilintx Donostiako taldeari nagusitu zitzaion Intxaurtxuetan, 54-40

E.M. | ARRASATE

Emozioa eta tentsioa ezin izan zuten amaierara arte kendu Eskoriatzako jokalariek zapatuan. Partiduaren atarian, Manolo Muñoz zenaren omenez minutu bateko isilunea gorde zuten talde bietako jokalariek eta urtetan Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente izandakoa burutik kentzea

ez zen erraza. Hala ere, Fernando Rasoren taldea partiduan sartzen hasi zen minutuak aurrera joan ahala. Lehenbiziko laurdena parekatua izan bazen, atsedendian 10 puntuko aldearekin joan ziren etxekoak aldageletara. Indarberrituta kantxaratu ziren eskoriatzarrak eta erritmo bizia ezarri zioten jokoari. Hala, hiru

minutuko tartean 12-0eko partziala lortu zuten eta markagailuan 22 tantoko abantaila izatera iritsi ziren. Hortik aurrera, eta emaitza erabakita zegoela, bi taldeek erritmoa jaitsi zuten eta laugarren laurdena tramite hutsa baino ez zen izan. Azkenean, 14 tantoko aldearekin nagusitu ziren Eskoriatzako neskek.

Laugarren postua helburu

Zapatuko garaipenaren ostean Eskoriatzako taldea laugarrena da saillkapenean eta postu horri eustea izango da helburua. Hurrengo bi partidua etxean jokatu dituzte Rasoren jokalariek. baina ez dira partidua errazak izango: domekan, 11:00etan, bigarren postuan dagoen Zarautz taldea izango dute bisitari eta handik astebetera hirugarren doan Tecnum taldea izango da Eskoriatzako kiroldegian. Ez dago atsedenerako tarterik. Azken txanpan, onena eman beharko dute eskoriatzarrek.



Eskoriatzako jokalaririk bat, kontraeraso baten, zapatuko partiduan. | JULIO CALLEJA

IGOERA FASEA

Sustrai Aloñak, zaleen laguntzaz, Baskoniari irabazi Gasteizen, 64-75

Oñatiarrek Santurtzi taldearen bisita izango dute domeka eguerdian Zubikoan

E.M. | ARRASATE

Gasteizera taldea animatzera joandako zale oñatiarrak pozik bueltatu ziren etxera zapatuan. Autobus bat atera zen Oñatitik Oizmendiko kiroldegira bidean eta Xabi Igartuaren jokalariek ez zieten huts egin. 64-75 irabazi zuten oñatiarrek eta sendo jarraitzen dute igoera fasean.

Jokatutako 12 partiduetatik hiru bakarrik galdu ditu Sustrai Aloñak. Zapatuan, esan bezala, ez zuten arazorik izan Fundacion Baskonia taldea mendean hartzeko.

Hurrengo asteburuan saillkapeneko azken tokian dagoen Santurtzi taldea hartuko dute oñatiarrek Zubikoan. Partidua domeka eguerdian jokatuko da, 12:00etan. Oñatiarrek Easo Pastas Arruabarrena taldea baka-

rrik daukate aurretik. Bi partidua galdu dituzte donostiarrek. Hain zuzen, Lizuan Com taldearen aurka 73-70 galdu zuten zapatuan. Donostiarren aurka jokatu eta gero, Sustrai Aloñak Goierri Verkol taldearen kantxan jokatuko du.

MUK Tolosan, galdu

Bestalde, bigarren mailan baita baina jaitsiera fasean, Mondragon Unibertsitateak Bide Bide Ibizaren aurka jokatu zuen zapatu arratsaldean Tolosan. Arrasatearrek 58-54 galdu zuten. Josu Larreategiren mutilek lehen postuan jarraitzen dute eta zapatuan, 18:00etan, Viajes Marfil hartuko dute Iturripen. Nafarrak bigarren postuan dira saillkapenean, MUK baino partidua bat gutxiagorekin.



Manolo Muñozen bi semeak nesken saskibalo partiduaren atarian, minutu bateko isilunea gordetzen . | JULIO CALLEJA



Kirolegiari Manuel Muñoz izena jartzeko sinadura eta mezu ugari jaso dituzte. | J.CALLEJA

OMENALDIA

Manolori azken agurra egin zioten areto futboleko eta saskibalo taldeek

Muñozen bi semeak Intxaurtxuetako kiroldegian jokaturako partiduetan izan ziren; kiroldegia Manuel Muñoz izena jartzeko ekimena abian dago

E.M. | ESKORIATZA
Zaila izango da Manolo Muñozek utzitako hutsunea betetzea. Hark urtetan egindako lana ez da nolana harkoa izan eta harekin kirolean jardundakoek gogoan izan dute Eskoriatza KEko presidentea

asteburuan jokaturako partiduetan. Imanol eta Mikel semeak Intxaurtxuetan jokaturako areto futboleko zein saskibalo partiduetan izan ziren zapatuan. Minutu bateko isilunea gorde ondoren, bi partiduotan lore sorta utzi

zuten harmailetan, Manolo jartzen zen eserlekuan. Orain, herriko kirolari betiko lotuta jarraitzeko, kiroldegia Manuel Muñoz izena jartzeko proposamena egin dute. Eguaztenean aztertuko dute proposamena udaletxean.



Eskoriatzako areto futboleko taldeak 2-1 irabazi zion Santurtziri zapatuan. | E.M.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Trintxerpe-Hondarribia	1-3
Roteta-Aloña-Mendi	1-2
Zumaiako-Mondra	1-1
Oiartzun-Real Union	2-3
Bergara-Anaitasuna	2-4
Tolosa-Aurrera Ondarroa	0-1
Aretxabaleta-Ordizia	2-0
Idiazabal-Hernani	0-3
Berio-Pasajes	1-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Real Union	61	27
2 Hernani	61	27
3 Pasajes	57	27
4 Anaitasuna	49	27
5 Aretxabaleta	47	27
6 Oiartzun	41	27
7 Aurrera Ondarroa	41	27
8 Bergara	39	27
9 Tolosa	39	27
10 Mondra	35	27
11 Hondarribia	33	27
12 Trintxerpe	32	27
13 Berio	31	27
14 Aloña Mendi	31	27
15 Roteta	21	27
16 Zumaiako	20	27
17 Idiazabal	20	27
18 Ordizia	18	27

HURRENGO JARDUNALDIA

Trintxerpe-Berio
Hondarribia-Roteta
Aloña Mendi-Zumaiako
Mondra-Oiartzun
Real Union-Bergara
Anaitasuna-Tolosa
Aurrera Ondarroa-Aretxabaleta
Ordizia-Idiazabal
Hernani-Pasajes

ERREGIONAL PREFERENTEA

Oriko-Aretxabaleta B	1-1
Mondra B-Urola	0-4

ERREGIONALA-IGOERA

Bergara B-Asoleus	1-0
-------------------	-----

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Bergara-Eibar	2-5
---------------	-----

LEHEN ERREGIONALA - KOPA

Aretxabaleta C-Soraluze B	5-1
---------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Hondarribia-Mondra	4-0
Oiartzun-Aloña Mendi	0-1

GAZTEAK, KOPA

Arizmendi UDA B-Eibartarrak	4-2
Aretxabaleta B-Bergara B	9-0

GAZTEAK, IGOERA

Arizmendi-Tolosa	0-2
------------------	-----

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Intxaurdi-Mondra	1-8
Amara Berri-Arizmendi	0-1

EMAK. GAZTEAK TXAPEL.

Intxaurdi-Bergara	2-3
-------------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri-Corazonistas	30-30
Romo Indupime-Soraluze BKE	23-29

TERRITORIALEKO KOPA

Hegialde-Auto-Izarraitz Aloña	33-20
-------------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Santurtzi	2-1
----------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK

Adana-Eskoriatza	1-1
------------------	-----

GAZTEAK

Atenea-Eskoriatza	3-1
-------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

Fund.Baskonia-Sustrai Aloña	64-75
Bide Bide Ibiza-MU	58-54

SENIOR 1.MAILA

Easo Berri-MU	84-69
---------------	-------

SENIOR 2.MAILA

Baskoplastika-Sustrai Aloña	52-72
Soraluze BKE-Aldabe Irun	110-66

KADETEAK

Hondarribia-Eskoriatza	52-66
------------------------	-------

GU RE KI RO LA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

DEFENTSA PERTSONALA

Joxean Iñarra | Defentsa pertsonalean aditua

"Asmoa ez da alarma sortzea, baina hainbat teknika erabiltzen jakitea beharrezkoa da"

- ▶ Hasi berri den ikastaroan, eraso bat denean ihes egiten irakasten die Iñarrak emakumeei
- ▶ Arlo psikologikoa lantzeaz gain, eraso saihesteko dauden teknikak ezagutarazten dizkie

MIRIAN BITERI | BERGARA

Joxean Iñarra bergararra emakumeendako defentsa pertsonalari buruzko ikastaroa ematen hasi zen joan den astean, bere jaioterrian. Bi urte pasatxo eman ditu Madrilan, Kirol Kontseilu Gorenarekin "gero eta ohikoagoak" diren erasoak eta horren aurrean erabili beharreko teknikak aztertzen. Han ikasitakoa ekarri du Debagoienara.

Zergatik mota horretako ikastaro bat?

Zoritxarrez, gero eta bortxaketa eta emakumearen kontrako eraso gehiago daudela ikusi dugu. Orain arte Euskal Herrian nahiko lasai bizi izan gara, baina gero eta kasu gehiago ezagutzen ari gara. Gure asmoa ez da alarma sortzea, baina oinarritzko hainbat teknika erabiltzen jakitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Nik, esaterako, bi alaba ditut eta argi daukadana da ikasiko dutela.

Gipuzkoan bai, baina bailaran lehenengo aldia da mota horretako ikastaroa antolatzen duzuen, ezta?

Iaz proba moduan egin genuen. Oso erantzun ona jaso zuen, 20 emakume eta neska gazte etorri ziren. Hiru hilabete egon ginen. Han egondako emakumeek eta parte hartu zutenek kalean bertan galdetu didate ea ikastaroa antolatzeko asmotan gabilzan edo ez; harrera ikusita, komenigarritzat jo dugu ostera egitea.

Zeini dago zuzenduta?

Edozeini. Joan den astean mutiko batek interesa agertu zuen eta dagoeneko hasi da. Gizonok indar handiagoa daukagu, eta eskoletarako baliagarria izan daiteke.

Nolakoa da ikastaroa?

Teorian faktore psikologikoa lantzen dugu, eta alde praktikoa lau zatitan dago sailkatuta: defentsa teknikak, ondo jotzen jakitea, lotuta gaudela askatzea eta lurrean gaudela irtetea.

Zenbat teknika daude?

Asko daude, baina guk erakusten



Joxean Iñarra bergararra defentsa pertsonalean aditua da. | MIRIAN BITERI

ditugunak ez dira horrenbeste. Bospasei oinarritzko teknika jakitearekin nahikoa da. Hori ikasiko dugu ekainera arte, eta, irailean jarraitzen badugu, horiek garatzen ikasiko dugu.

Objektuek garrantzia dute, ezta?

Hala da. Emakumeek poltsan eroaten dituzten gauzak baliagarriak dira, hala nola etxeko giltzak, betaurrekoak, telefonoa eta boligrafoa. Horrelako tresnak nola erabili erakutsiko dugu ikastaroan. Kafe koilara batekin, esaterako, gauza asko egin daitezke: gorputzaren presio puntuetan sakatu edo saihesten sartu eta

min egin. Horrekin lurrean utz dezakegu erasotzailea. Bestalde, zapaten takoiarekin oina gainean zapaltzeak min handia ematen du.

Zer-nolako jarrera izan behar da erasotzailearen aurrean?

Zaila da egitea, baina komenigarria da odol hotza izatea, eta ikastaroan hori izaten ikasiko

dute partaideek. Horrekin batera, ausardia ere ezinbestekoa da; esaterako, atzamarrak erasotzailearen begietan sartzeko kapazak izan behar dute emakumeek.

Non gertatzen dira bereziki emakumeen kontrako erasoak?

Gipuzkoan, adibidez, Donostialdean izan dira. Baina hain

urrun ez dugu joan behar, Arratsen eta Bergaran ere gertatu izan direlako. Hori dela-eta, iruditzen zait gizaki guztiak defentsa pertsonalez zertxobait jakin beharko luketela. Arte martzialetan ez duzu aditu izan behar, kasu horietan arauak daude-eta; eta kalean ez dago araurik.

Debagoiena osoko partaideak

Joan den astean hasi zuten ikastaroa Bergarako Ipintzako DBHko eraikineko gimnasioan. Astelenean eta eguaztentean dira eskolak, 19:30etik 20:30era. Debagoien osoko lagunek parte hartzen dute horretan. Interesatuak hiru bide dituzte izena emateko: 615 79 90 78 telefono zenbakira deituz, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatziz edo zuzenean saioetara joanez. Ekainera arte iraungo dute eskolek.



Erabili beharreko teknikak erakusten die emakumeei. | JOXEAN IÑARRA

"Gero eta bortxaketa eta eraso gehiago daudela ikusi dugu"

"Kafe koilara batekin lurrean utz dezakegu erasotzailea"

"Emakumeek poltsan eroaten dituzten gauzak baliagarriak dira"

"Eraso baten aurrean, komenigarria da odol hotza izatea"

Umeei txikitatik lagundu behar diegu emozioak identifikatzen

Koldo Gilsanz psikologoak aholkatzen du emozioei izenak ipintzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Denbora luzea eman dugu gure seme-alaben inteligentzia kitzikatu nahian, azkarragoak izan zitezten. Orain badakigu, hori garrantzitsua bada ere, ez duela arrakasta edo bizitzarekiko asebetetzea ziurtatzen. Aldiz, haien adimen emozionala garatzen laguntzen badiegu, bizitzaren erronkei erantzuteko prestaturago eongo dira, horrek zoriontasunerako bidean jarriko ditu".

Guraso.com atariko kolaboratzaile Koldo Gilsanz psikologoaren hitzak dira. Azaltzen du adimen ezberdinak ditugula: matematikoa, linguistikoa, musikal... eta emozionala. "Adituek diote bizitzan dugun arrakastaren %80 azken honi dagokio".

Izena duenak du izana

Bere artikuluan Gilsanzek azaltzen du emozioek bideratzen gaituztela ekintzara horregatik dela garrantzitsua txikitatik adimen emozionala lantzea.



Umea, haserre. | MMARSOLAIS

"Haurrek haien barneko munduaren kudeaketa egin ahal izateko izenak behar dituzte". Edo eskolatik pozik datozenean kome ni da: "Ikusten dut pozik zaudela" edo antzeko zerbait esatea. "Horrela, barneko prozesuez ohartzen hasten dira", dio adituak. Berdin jokatu behar dugu kasketak hartzen dituztenean. "Gugandik

entzun behar dute bizi izaten ari diren horrek izena baduela, haserrea dela, arrazoa ulertzen dugula (edo ez) eta pasako zaiela". Emozioak, bestalde, ez sailkatzeke proposamena egiten du psikologoak. "Garrantzitsua da umeei ulertzen ez dituzten emozio horiek kanalizatzeko testuinguru ziur bat eskaintzea", dio.

Umeendako hiru dimentsioko piramidea proposatu dute

L.Z. | ARRASATE

Gonzalez-Gross doktorearen lantaldeak egin du hiru dimentsioko piramidea; elikadura, jardura fisikoa eta higiegi ohitura egokiak dira piramidearen hiru ardatzak. Ikerketa zientifikoek erakutsi dute oso garrantzitsua dela 0-15 urte bitarteko etapan hartzen diren ohiturak eta egiten den elikadura. "Neurri handi baten, bizitzako lehenengo 15 urteetan definitzen dugu zelako helduaroa izango dugun eta zein ongizate mailarekin iritsiko garen zahartzarora", irakurri dugu *Consumer* aldizkarian.

Erreminta oso bisuala

Exernet atari digitaleko dokumentu publikoen atalean aurkituko duzue hiru dimentsioko piramidea. Prebentzio erreminta moduan erabilia izateko landu dute zientzialariek.

Gomendioak denok ezagutzen ditugu; egunean bost ordu egitea, gosariari dagokion garrantzia ematea, likidoa ugari hartzea, kirola egitea, atsedinari denbora eskaintzea, jolasean egitea eta tabakoa zein alkohola saihestea. Haurtzaroan bereziki gomendagarriak dira frutak, barazkiak, lekaleak, zerealak eta oliba-olioa.

Goiena telebistako 'Guraso tertulia'-n udalekuak izango dituzte hizpide eguaztenean, hilak 30

Batez ere seme-alabak lehenengo aldiz udalekuek bidaltzeko puntuak dauden gurasoen artean sortzen dira zalantzak: nora? Nahiko adina ote du? Zenbat eguneko egonaldia?... Gai horiek eta beste asko izango dituzte berba eguaztenean, hilak 30, Goiena telebistako *Guraso tertulia*-n, 20:45ean hasita. Saioan izango dira Txatxilipurdi elkarte Lander Juaristi, bertso-udalekueko Ixiar Eizagirre, Atzegiko Itsaso Armas eta Goñiko udalekueko Aitor Zubizarreta.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Ekintzaile izaera lantzeko ekimenak



Gaizka Eraña
Arizmendiko irakaslea

Jean-Jacques Annaud-ek 1981ean filmatutako *Suaren bila* film ospetsuan, Ulam tribuak urteetan mantendu duen sua itzali egiten da. Sua egiten jakin ez, eta tribuaren bizi iraupena arriskuan ikusita, tribuko hiru gizaki sugar preziatuaren bila abiatuko dira munduan zehar.

80.000 urte geroago gure tribua ere suaren bila dabil. Genetikoki bizi iraupenerako programatuta gaudenez, gure geroa bermatuko duten tresnen eta baliabideen bila gabiltza etengabe. Annaud-en filmean, suaren bila tribuaren segurtasunetik alde egiten duten hiru gizakiren istorioa kontatzen da; hiru horiek dira gaurko idatzi honetan protagonista.

Zer da beharrezkoa ezagutzen dugun ingurua utzi eta arriskatzu jauzi egiteko? Zein

ezaugarri eduki behar dituzte pertsona batek ekintzailea izateko? Ekintzaile jaiotzen da pertsona ala apurka-apurka egiten da?

Jardunaldia Mankomunitatean
Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziak deituta, kezka horien inguruan lan egiten dugun hainbat eragile elkartu ginen 2011-ko otsailaren 14an; Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko, Saiolango, Miguel Altuna institutuko, Zuazola-Larraña institutuko, Mariaren Lagundia ikastetxe eta Arizmendi ikastolako ordezkariak, hain zuzen ere.

Mankomunitateko Koldo Azkoitiak eta Amaia Irizarrek Garapen Agentziak eta Udaltako Enplegu eta Sustapen zerbitzuek ekintzaileak laguntzeko egiten dutenaren berri eman ziguten: aholkularitza eta laguntza -bideragarritasun planak, finantzabideak, tramiteak, diru-

laguntzei buruzko informazioa...- formazio espezifiko edo Enpresa Ekimenetarako Zentroa zein aisialdi eta kirol alorrean enpresak sortzeko 18-25 urteko gazteei zuzendutako *Kimu berri* programa sustatzea eta kudeatzea.

Saiolanek, berriz, *Dar vida a las ideas* eta *De la idea al negocio* izeneko materialaren aurkezpena egin zuen. Lehenengo 12-18 urte bitarteko ikasleekin lantzen dute eta bigarrena 18 urtetik gorako gazteekin.

Euskadiko Garapen Agentzien Elkartea den Garapen sortutako hainbat materialen berri ere eman zuten ekitaldian; *Irudikatu zure enpresa* mahai-jolasa, *Trueke* CDRoma eta beste batzuk.

Gogor astintzen gaituen krisialdi honetan tribuko *su faltari* aurre egiteko ekintzaile izaeraren hazia lantzen dugunok beharrezkoa ditugu horrelako ekimenak.



Ekintzailetasuna lantzeko Arizmendin egindako saio bat. | ARIZMENDI IKASTOLA

"Elkarlanarekin bakarrik lortuko dugu"

Aurkezpenen ondoren, saioak hausnarketarako aukera eman zuen. Ondorioetako bat izan zen ekintzaileak ez direla soilik enpresa berriak sortzen dituzten pertsonak. Enpresa baruan gauzak egiteko modu berriak bilatzen dituztenak ere ekintzaileak dira. Ekintzaile izaera lantzeak, bestalde, ez ditu berehalako emaitzak ematen; hazia ereitea da garrantzitsua eta enpresa ideia baten aurrean irakasleak bideratzaile edo gidari lana egiten behar du. Esaterako, MUK badu Mondragon Team Academy metodologia. Sasoi beltz honetan elkarlanarekin bakarrik lortuko dugu sugarak berriro geurera ekartzea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Aukeran dantza konpainiakoen saioa, berezia izan zen oso. | JULIO CALLEJA



Txitxas magoak, magia gain umorea ere ekari zuen Bergarara. | JULIO CALLEJA



Garate eta Laskurain. | JULIO CALLEJA



Birakako dantzariak. | JULIO CALLEJA

Zirrarez betetako jaialdia Bergaran Magaliren alde

- ▶ Udal Pilotalekua jendez lepo bete zen zapatuan
- ▶ Herriko bertako eta kanpoko artistek hartu zuten parte

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bi hilabete behar izan dira zapatuan Bergarako Udal Pilotalekua bete zuen jaialdia prestatzeko; emaitza ikusita, argi dago ondo erabilitako denbora izan dela. Ohian Vegak eta Amaia Artetxek gidatu zuten ekitaldia eta herriko eta kanpoko kultur talde askok hartu zuten parte, denak Magali Muruamendiaren alde.

Burbuila barruan dantzan

Agur bertso eta dantzekin hasi zen jaialdia, eta jarraitu, Alai taldearen abestekin. Dantzari dagokionez, denetarik egon zen: tradizionala Moises Aspiazu dantza taldekoen eskutik; sentsuala Birakako neska-mutilekin; eta modernoagoa Musirakarekin eta Edu Muruamendiaren zuzendutako Aukeran konpainiarekin.

Berezia azken hauek eskainitakoak: dantzarietako batek burbuila baten barruan egin zuen dantza.

Aritzeta eta San Josepe abesbatzek, Bergarako Musika Eskolak, Bergarako orfeoak eta Gaberok jarri zioten musika jaialdiari, baita Azkaiter Peloxek eta Karlos Ortizek eta Mikel Garatek eta Fernando Laskurainek osatutako bikoteek ere. Magia eta

umorea ere ez ziren falta izan, eta Txitxas magoa arduratu zen horiek ekartzeaz. Parte-hartzaileek eta ikusleek, denek batera *Agur Jaunak* abestuz bukatu zen ekitaldia eta argiak piztean begi askotan igartzen zen bizitako une hunkigarriaren arrastoa. Magali eta haren gurasoak Galizian zeuden arren, seguru hara ere heldu zela elkartasun olatua.

DATUAK

350

PERTSONA

Abesbatzetako kideak, dantzariak, musikariak, teknikariak... 350 lagunek hartu zuten parte jaialdia aurrera ateratzeko.

10.000

EURO

Jaialdiko gastuak kenduta, kopuru hori izango da Magalirendako. Senideek eta antolatzaileek, eskerrak eman gura izan dizkiete parte-hartzaile eta ikusleei.



PILI BARANDIARAN
BERGARA

"Oso ondo egon da ekitaldia, dena irten da primeran. Hunkituta bukatu dut, negargurearekin. Ideia ona da herriko alaba baten alde horrelako zerbait antolatzea. Jende asko bildu da gainera".



JULIO UNAMUNO
BERGARA

"Alai taldearekin hartu dut parte jaialdian. Zoragarria izan da, denok hartu dugu parte modu desinteresatuan neskak honi laguntzeko, eta uste dut herriak erabat egin duela bat berarekin".



UXURI GARITANO
ANTZUOLA

"Ikusle moduan etorri naiz gure ekarpena egiteko gogoz. Oso ondo egon da ekitaldi; askotariko ekintzak egon dira: dantzak, kantuak... Eta asko gustatu zaizkit denak ere. Parte-hartze handia egon da".



XABIER LAZKANO
BERGARA

"Oso polita izan da: landua eta hunkigarria. Guraso izanda egon gara komentatzen nolako zortea dugun; Magaliren moduko kasu bat ez da erreza izan behar, eta eskertzekoa da herri guztiak horrela bat egitea".



ARANTZA ALBERDI
BERGARA

"Oso hunkigarria izan da jaialdia, oso ondo egon da. Iloba bat nuen parte hartzen, baina ni bestela etorri naiz: Magaliren familia ezagutzen dut, eta eurei berotasuna ematea zen nire nahia".



Zion Trainek kontzertu indartsua eman zuen: audio-mahaian, Neil Perch; abeslaria, Dub Dadda. | JOXE AZPITARTE

KRONIKA

Gorputza astintzeko reaggea Oñatin

FITXA

MUSIKA

BAD SOUND SISTEM ETA ZION TRAIN

Estiloa: dub reaggea.

Non: Oñatiko Gaztelekua.

Eguna: Egubakoitza, martxoaren 25a.

Iraupena: Bi ordu eta erdi.

TXOMIN MADINA | OÑATI

Bai belarriak eta baita gorputzak ere; denak astindu zituzten egubakoitzean Oñatiko Gaztelekuan kontzertua eman zuten bi taldeek.

Bad Sound System talde irundarrak ireki zuen gaua: hasieran Selektia Stepi dj-a bakarrik, gero Masta eta Kenitra abeslariekin, kutsu sozialez betetako pieza erritmikoak uztartu zituzten.

Lehenengoz Euskal Herrian

Zion Train taldeak Euskal Herrian emandako lehen kontzertua izan zen egubakoitzekoa; emanaldi indartsua benetan: Neil Perchek audio-mahaiarekin eta Dub Daddak mikroarekin, dardarka jarri zituzten Gaztelekuko paretak. Reaggea bai, entzun zen, baina Perchen soinua nahasketa eta jokoek, tekno sesio dantzagarriean bihurtu zuten gaua.

NEIL PERCH | ZION TRAINEN SORTZAILEA

"Musikak mezu politiko positiboa izan behar duela sinesten dut"

Duela hogeitaz baina gehiago sortu zuen Zion Train eta lau haitzera zabaldu du dub reaggea.

Nola joan da kontzertua, Euskal Herrian eman duzun lehena?

Esperientzia ona izan da; baina egia esan, kontzertua bera baino, Euskal Herria etortzea izan da esperientzia handiagoa. Lehenengo aldia da natorrena. Euskal kultura eta euskal historia paregabeak dira, eta denbora luzez egon naiz hona etortzeko gogoarekin.

Euskal musikarekin izan duzu harremanik, Fermin Muguruza-rekin esaterako.

Remix eta kolaborazio ugari egin ditut berarekin, eta plazer bat izan da. Musikak mezu politiko positiboa izan behar duela sinesten dut, eta badakit Ferminen musikak baduela mezu hori, nireak bezala. Hor elkartzen dira kulturak, eta musika

komunikazio bide unibertsala bihurtzen da. Ni bezalako musikari ingeles batek, karibetar jatorria duenak, musikari euskaldun batekin kolaboratu dezake, eta mezua berdina da: askatasuna eta berdintasuna, bakea eta armonia.

Nola deskribatuko zenuke egiten duzun musika?

Reagge psikodelikoa da, baina zaila da musika hitzekin deskribatzea. Helburu bat duen musika da: jendea elkartzea, elkarrekin dantza egin eta hobeto sentitzea.

Zein leku du inprobisazioak zuen kontzertuetan?

Dena inprobisatzen dugu, ez dugu inoiz entsetatzen. Soinu finko batzuk ditut, baina nahasketa egun bakoitzean sentitzen naizen moduaren arabera da. Ideia da inprobisatuz entzuleengan eragitea, eurek era berean, gudan eragiteko.



Neil Perch Oñatiko kontzertuaren ostean. | TXOMIN MADINA

Declan de Barraren ahotsak txundituta utzi zituen zaleak

M.B. | ARRASATE

Declan de Barra bakarlarri irlandarrak ez zuen huts egin, eta bere ahots indartsuarekin lilurata utzi zituen egubakoitz gauean Arrasateko gaztetxean batu zirenak. Aurreko urtean Arrasateko Gure-Leku tabernan eskainitako kontzertu gertukoarekin ondotik, bere bigarren bakarkako lanarekin etorri zen irlandarra; hain justu, *A fire to scare the sun* izena duen lanarekin.

Konposizio bikainak eta sentiberak duen ahots berezia-

rekin uztartu, eta txundituta utzi zituen zaleak. Lan berriko kantuez gain, *Song of a Thousand*-ekoak ere jo zituen.

Old Kerry Mckee

Bestalde, Holmes talde suediarra gaztetxean egotekoa bazen ere, taldeko abeslariaren osasun arazoak direla-eta, ezin izan ziren Arrasatera etorri, eta haren ordez, Old Kerry Mckee 25 urteko musikari suediarra izan zen kontzertuan. 60ko hamarkadako folk eta bluesa uztartu zituen.



Declan de Barra egubakoitzean, Arrasateko gaztetxean. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Metal festa indartsua gaztetxean

FITXA

MUSIKA

BARRENEKO DEABRUAREN

METAL FESTA

Estiloa: Metal.

Non: Arrasateko gaztetxean.

Eguna: Zapatuan, hilak 26.

Iraupena: Hiru ordu.

Ikusle kopurua: 100.

M.B. | ARRASATE

Harrera ona izan zuen joan den zapatu gauean Arrasateko gaztetxean egindako Barreneko Deabrua metal festak; antolatzaileen esanetan, 100 metal zale inguruk parte hartu zuten hiru ordu inguru iraun zuen jaialdian.

Denial talde debagoiendarra izan zen agertoki gainera igotzen lehena, 22:30an. Besteak beste, joan den urteko urrian kalera-tutako *Ophiuchus* laneko kantu indartsuak aurkeztu zituen entzuleen aurrean gaur egun Aretxabaletan finkatuta dagoen bosko-teak. Dena dela, *Phobia* izeneko lehen diskoko abestiak ere jo zituzten.



Crystal-moors taldekoak zapatuko emanaldian. | JULIO CALLEJA

Orduebeteko emanaldia eskaini ostean, Denial taldekoek Kantabriako Crystal-moors taldeari eman zioten lekukoa. Black metal, death metal eta folka uztartuz, kalean dituzten *Nabia Orebia* eta *Antiquam Exquiritate Matrem* diskoetako kantu basatiak eta biziak jo zituzten. Gertatzen ari diren lan berriko abestiak ere eskaini zituzten. Azkenik, Mutrikuko Aiumeen Basoa taldearen txanda heldu zen. Euskal musika tradi-

zionalaren eraginaz batera, Norvegiako black metalaren eragina entzun zuten zaleek horien kantuetan.

Balorzio positiboa

Jaialdiaren ostean, pozik agertu ziren antolatzaileak jendeak agertutako jarrerarekin: "Hasieran jende gutxi bazegoen ere, apurka gaztetxera gerturatu ziren metal zaleak. Ez genuen espero horrenbeste jende egotea".



Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzeko kideak, Aitor Biain zuzendariarekin. | JULIO CALLEJA

Musika erlijiosoari buruzko egitasmo berritzailea abian

Ganbara Txiki eta Gazteek kontzertua eskaini zuten

MIRIAN BITERI | OÑATI

Ikusmina sortu zuen Oñatiko Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzen *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu 2* izenburuko proiektu berriak. Zapatu arratsaldean Arantzazuko san-

tutegian eskainitako kontzertuan 300 lagunetik gora izan ziren.

Bestelako estiloekin

Musika emanaldian, besteak beste, K. Jenkinsen *Adiemus* izeneko pieza jo zuten, piano, baxu

eta gitarrak lagunduta. J. Elberdinen *Magnificat* obra ere jo zuten, euskal folkloreko instrumentuekin. Horretaz gainera, *Ave Maria* eta *Trilogy* ere abestu zuten. Guztira, 70 lagun inguruk jardun zuten zapatuko kontzertuan.

Quimi Porteten humorea eta melankolia Oñatiko Guria tabernan izan ziren

Oñatiko tabernaren itxieraren harira egindako emanaldia izan zen atzokoa

M.B. | OÑATI

Oñatiko Guria tabernaren itxiera dela-eta egiten dabilzan ekimenen harira, atzo Quimi Portet abeslaria eta musikaria izan zen tabernan. Lotura estua du aspalditik kataluniarrak Oñatirekin, eta horren erakusle da atzo iluntzean eskaini zuen kontzertua.

El ultimo de la Filako taldearekin ezaguna egin zen musikariariak taberna bete zuten, eta kanpoan pantaila bat jarri behar izan zuten zaleek kontzertua jarrai zezaten. Beste emanaldi guztietan bezala, umorea ez zen falta izan Gurian. Horretaz gainera, bakar-kako lanari ekin zionetik konposatutako kantu melankolikoak eta surrealistikak abestu zituen.

Kantu katalanak

Orain dela 20 urtetik gora bakar-kako lanari ekin zionetik katalanezko lanak egin ditu Portetek. Orain arte sei disko kaleratu ditu; bizitzari buruz duen ikuspuntu garrantza jasotzen du horietan, gogoraeraza den musikaz lagunduta daudenak.



Quimi Portet musikari kataluniarra kontzertu hasieran. | JULIO CALLEJA

Maitena Arana | Margolaria

"Barne energian eta naturan oinarritu naiz margolanak egiteko"

Eguenera arte ikus daitezke gazte arrasatearren artelanak Bergarako Nahikari tabernan

MIRIAN BITERI | BERGARA

Maitena Arana arrasatearrak Bergarako Nahikari tabernan du margolan erakusketa. Eguenera arte, martxoak 31, egongo da ikusgai. Erakusketaz eta margolarien lanaz egin digu berba datozen lerroetan.

Zer ikusiko du egunotan Nahikari tabernara doanak?

Erakusketan serie bereko 10 margolan daude erakusgai. Kubismoa eta dadaismo estiloak jorratu ditut. Wassily Kandinskiren filosofia ikusi daiteke lan horietan, lineak eta zirkuluak ditu. Norberak barnera begiratu eta hortik irteten den energia edo indar hori irudikatzeari garrantzia ematen diot.

Horretan eta naturan oinarritu naiz margolanak egitekoan. Naturan ikusitako harriak eta formak abstrakzioa eroan ditut, mistikotasun puntu batekin. Niretako lotura handia dago natura eta euskal ohituren artean.

Ze teknika erabili dituzu?

Denetarik: collage, akrilikoa eta olio nahastu ditut. Esperimentatzea gustuko dut. Ez daukat eskola bat, eta esaten didate positiboa dela, pintatzeko modu propioa dudalako. Vincent Van Goghek ez zuen ikasi pintatzen, baina bere estiloa zuen. Inork ez dit pintatzen erakutsi eta ahal dudana bezala margotzen dut.

Lehenengo aldia da erakusketa jartzen duzula?

Bai. Oso esperientzia polita da eta oso pozik nago. Koadroen alaitasuna da jendeari gehien gustatzen zaiona. Koloreen konbinazioa oso alai da, positiboa.



Maitena Arana. | MIRIAN BITERI

Nahiz eta triste egon, ahalik eta onena ateratzen saiatzen naiz, eta jendeak igarri du. Bestalde, erakusketan dauden koadroak salgai daude.

Noiz hasi zinen margotzen?

Orain dela hiru urte. Dena dela, txikitatik daukat zaletasun hori, etxeko hormak margotzen nituenetik. Baserrian bizi izan naiz eta lurarekin lotura handia izan dut, eta hortik etortzen zait naturarekiko dudana inspirazioa.

Beart margolarien elkartean nago, baina ez ditut eskolak ematen. Nire kabuz ibiltzen naiz. Barruan dudana espresatzeko erabiltzen dut artea; libre sentitzen naiz modu horretan.

Buruan duzu erakusketa berria jartzea?

Bai. Sorraluzen ipintzeko asmoa dut hemendik gutxira.

"Erakusketako koadroen koloreen konbinazioa oso alai da, positiboa"

Arrasateko gaztetxeak 'Los pardos' antzezlana hartuko du egunean

Koultur Ostegunak ekimenaren harira, Que Par Che taldearen *Los pardos* antzezlana ikusteko aukera izango da egunean, martxoak 31, Arrasateko gaztetxean. Umorea izango du ardatz esandako antzezlana; Dario Levenin aginduetara, Mariano di Franco argentinarra eta Maite Gebara gasteiztarra *clown* bilakatuko dira, eta taula gainera imajinaezinezko egoera dibertigarriak eroango dituzte.

Betiko moduan, 22:00etan hasiko da Que Par Che taldearen emanaldia, eta horretarako sarrerak 5 euro balioko du.

Salgai daude 'Errautsak' antzezlenerako sarrerak, Oñatiko kultura etxean

Artedramak, Le Petit Theatre de Paineik eta Dejabu Panpin Laborategiak *Errautsak* izeneko antzezlana eskainiko dute domekan, apirilak 3, Oñatiko Santa Ana antzokian. 19:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak dagoeneko salgai daude kultura etxean. Astelehenetik egubakoitzera bitartean eros daitezke, 16:30etik 20:00etara arte (10 euro).

Arrakasta lortu du esandako obrak Euskal Herri osoan. Publikoaren oniritziak gain, sariak ere jaso izan ditu. Donostia Antzerki Saria eta Azpeitiko Antzerki Topaketako sari nagusia irabazi ditu.

DATUEK DENA DIOTE

GOIENA PAPERKO EDIZIOA

29.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoiengan, papereko bigarrena baino 8.000 irakurle gehiago.*

GOIENA TELEBISTA

7.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoiengan, iaz baino 1.000 lagun gehiagok.*

GOIENA.NET

2011ko lehen bi hilabeteetan 130.545 bisita izan ditu; iaz baino 22.213 bisita gehiago denbora-tarte berean.**

GUK GAUZA BAKARRA DIOGU: ESKERRIK ASKO.

* CIES-EK 2011KO LEHEN BI HILEKOAN EGINDAKO NEURKETAN. ** GOOGLE ANALYTICS-EN BIDEZ EGINDAKO NEURKETA.

FIACHRAS

GURE MUSIKA TALDEAK



Bergarako gaztetxea jendez lepo zegoela aurkeztu zuen Fiachras taldeak diskoa. | JOSETXO ARANTZABAL

"Hasierako ideiarri eutsi diogu, baina lan sakonagoa eta borobilagoa da"

- Inguruko errepikapen eta topikoetatik urruti doan diskoa da
- Formazio berriarekin aurkeztu digute bergararrek bigarren lana

MAIDER ARREGI | BERGARA

Letrek sekulako indarra dute: mezu sakonak eta pentsarazten duten horietakoak. Ruper Ordorika, Jon Mirande edo Mike Tyson ikonozat dutenendako eginiko lana da.

Aurreko lana baino landuagoa da bigarren hau?

Kantu berriak lehenengo disko abestiak baino landuagoak eta borobilagoak dira. Konponketa gehiago ditu, baina ideia bera mantendu dugu hasierako ideiarekin jarraitu dugu-eta. Taldean izan ditugun aldaketekin ere primeran moldatu gara.

Erritmo alaiak eta lasaiak tartekatu dituzue.

Folk, rock eta country ukituak dituzte kantuek. Pop pixka bat duten balada lasaiak ere badaude; baina baita country erritmo bizia duten abestiak ere.

Odolaren zaporeak itsutu gaitu?

Nahiko nazkatuta, potrotaraino gaude gizarte honekin. Denak berdin jarraitzen du eta mundua oso gaizki dago. Barrua hustu nahi genuen. Konplexu asko dago gizarte honetan eta askotan ez gara koherenteak egiten eta esaten dugunarekin; kontraesan

artean bizi gara. Dena debekatu dagoen gizarte honekin apurta nahi izan dugu.

Nunca lloramos al caer... Horrenbeste errodojak indartsuago egiten du bat?

Berriro bueltan gaude! Gauzak aldatu egin dira, ez dira 24 urterekin moduan. Urteek immunizatu egiten dute pertsona eta esperientziarekin ikasten goaz.

Jendeak nola hartu du lan berria?

Egia esan, ez ditugu kritika asko entzun. Lagunek aurrez entzunda zuten diskoa eta gustatu egin zaiela esan digute. Aurrekoa bai-

no hobia dela. Ez dela lehenengoa bezain zuzena eta hasieran kostatu egiten dela, ezberdina dela ere esan digute. *Txap*-ekin grabatu dugu eta soinu kalitatea oso ona da. Orokorrean, borobilagoa dela esango genuke.

Tabernako musika dela esaten dutenei, zer?

Tontakeria dela esango genieke. Bueno, tabernetan asko ibili izan gara eta ibiltzen gara. Etiketen *rollo* hori ez zaigu batere gustatzen... Kontraesan asko daude, gainera.

Martin Larralde bertsolari lapurtarra zer da zuendako?

Ruper Ordorika musikari oñatiarrari keinu bat egin nahi izan diogu. Askok gustatzen zaigu eta halaxe omendu gura izan dugu. Hark abestuko balu abesti hori ere, oso ondo geratuko litzateke.

Zergatik dauka kobre zaporea urak?

Ikusi besterik ez dago zela hasi dugun mende hau. Mundu hau guztiz kutsatuta dago eta soluzioa ez da erraza. Lehen ere lurrikarak izango ziren, baina Japoniakoaren neurrikoak... gizakiak zerikusi handia dauka, zalantzarik gabe, honetan guztian.

Orain zer duzue esku artean?

Hilean bizpahiru kontzertu eman nahi ditugu. Euskal Herrian, Bilbon edo Nafarroan, edota kanpora irtetea ere gustatuko litzai-guke. Taldekide bi Bizardunak taldearekin dabilta, eta bi proiektuak bateratzen saiatzen gara orain.

ZERTZELADA



HILTZERA GOAZ

Estiloa: Folk, rocka.

Egilea: Fiachras

Argitaletxea: Bonberenea Ekintzak.

Iraupena: 34,6 minutu.

Lagun artean amorruta husteko folk garratza

Lehenengo diskoak zur eta lur utzi zituen asko, partaideak punk-rocketik erabat aldendu eta marinela-tabernarien folk malenkoniatsua, garratza, hartu zuelako ikur. Ohartu gabe jarraitzaile asko lortu eta kantuetako hitzek askoren barrenak hunkitu zituzten; horrenbeste, zuzenekoak liturgiak dira ia. Lehen diskoa bat-batean egin zutela esango nuke, barrenak hustuta. Oraingoa, baina, zainduagoa da, folkean gehiago murgiltzen dira (baita countryan ere), melodiak txukunagoak dira, malenkonia ugaria da eta abestiek moldaketa asko dituzte, hammondak, soinuak eta biolak gidatuta. Faltan sumatzen dudana bakarra da hastapenetako euskarazko rock kantu bizi haiek!

IKER BARANDIARAN



Grabatutako CD sorta bat. | GOIENA

Kanon digitala legeez kanpokoa dela esan dute

- ▶ Auzitegi Nazionalak egunean kaleratu zuen epaia
- ▶ Urtean kobratutako 150 milioi euroak itzultzeko eskatu dute elkarteek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Neurria onartzeko prozesuan izan zen akats formal baten ondorioz, legez kanpokotzat jo du Auzitegi Nazionalak kanon digitala. Epaia, hala ere, ez da behin betikoa, eta, kanona kentzekotan

ere, Gorenaren erabakia etorri arte ez litzateke gauzatuko. Oraingoz, hortaz, kanon digitala ordaintzen segituko dugu. Internauten elkartetik diote ezin dela urtean 150 milioi euro bidezkoa ez den tasa batengatik ordainarazi eta

gero inor ez kargutu. Hain zuzen, elkarte hori izan da salatzailetako bat.

Gaiaren mamira sartu barik eman da epaia, hortaz, ez baita baloratu neurriaren bidezkotasuna, baizik eta akats formala

egon dela esanez deuseztatu dute. Izan ere, labur azalduta, epaiak dioena da kanon digitala ministro-agindu baten bitartez barik Ministroen Kontseiluak onartu beharko zukeela. Hala ere, ez da behin betikoa epaia eta Auzitegi

Gorenaren aurrean errekurri daiteke. Kanonak orain arte, kopia pribatua aurreikusita, kopiarako euskarri eta gailuetan aplikatzen zuten konpentsazio ekonomikoa. Konpentsazio hori baliorik gabe geratuta, zalantzan dago orain arte jasotako diru guztia itzuliko ote den, berez kontsumitzaileei itzuli beharrekoa, gainera, bidezkoa ez den kanon bat ordainarazi baita. 2007an ezarri zen kanona.

150 milioi euro urtean

Sententzia kaleratu duen auzitegiak berak esan du dagoeneko itzulketaren inguruko erabakia ez dela euren eskumenekoa, "harreman juridiko pribatu bati" dagokiolakoan. Kontsumitzaileek, hortaz, auzitegi zibiletara jo beharko dute, banan-banan, erreklamazioekin. Era berean, epaiak ez du ekarriko gaurtik aurrera kanona kobratzeari lagatzea. Izan ere, Gorenaren aurrean errekurrituz gero, azken epai horren ostean kenduko litzateke kanona, hori ebazten badute, noski.

Internauten Elkarteko presidentek dagoeneko esan du "zentsugabea" dela kanona legez kanpokotzat jo eta kobratzen segitzea eta zera erantsi du Victor Domingok, "ezin" zaiola jendeari "urtean 150 milioi euro ordainarazi bidezkoa ez den tasa betengatik eta gero erantzukizunik inork ez" hartzea. Domingok esan du formako akatsa izan dela frogatu izanak "argi eta garbi utzi" duela "erregelamendua korrika eta presaka egin" dela, "interes zehatz batzuk babesteko helburuarekin". Interes horiek "bidezkoak" direla zehaztu du Domingok, baina " korporatiboak eta sektorialak" direla eta "interes orokorraren aurka" doazela ere erantsi du.

Firefox 4: berritasun gutxi, baina oso harrera ona

Eguztenean ofizialki kaleratu eta egun baten bakarrik 5 milioitik gora izan ziren deskargak

J.B. | ARRASATE

Mozillaren Firefox nabigatzailearen bertsio berria, laugarrena, askoz azkarragoa eta, berritasun nagusi moduan, nabigazio-historia gailu eramangarrien eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko aukera ematen duena. Abiaduraz gain, urriak dira bestelako berritasunak eta asko dagoeneko hasi dira esaten Firefoxek galdu egin duela garai bateko erreferentzialtasuna berrikuntzei dagokienez.

Itxura eta interfazea

Berritasun edo ezusteko gutxien dator Firefox berria. Google-en Chromen itxura oso antzekoa du eta fitzak helbide-barraren azpian kokatu dituzte. Interfazean ahalik eta elementu gutxien kokatzea izan da helburua. Hain zuzen, nabigatzaile guztien joe-

ra da diseinu ahalik eta simplea lortzea, botoi eta abarren gainkarga, ahal den neurrian, saihestuta. Nabigatzaileen artean lehia ere gogorra da, agerikoa denez, baina badirudi azeritxoari ez doakiola batere txarto. Hala, eguaztenean bertan 24 orduan bikoitza izan da Firefoxen deskarga kopurua Internet Explorer 9rekin alderatuta. Marka are ikusgarriagoa izan da, ikusita Microsoftek berak nabigatzaile berria ezagutzera emateko eginiko promozio zabala. Firefox deskargatzeko orrian bertan kontagailu bat ipini dute eta geldiezin doaz zenbakiak gora, eta, azken datuen arabera, %21etik gorakoa da dagoeneko Firefoxen kuota nabigatzaileen merkatuan. Arrakastaz hitz egin daiteke, hortaz.

Pornoak '.xxx' lehen mailako domeinu berria izango du

J.B. | ARRASATE

Zazpi urtez tramitean egon eta gero, aurreko asteburuan jarri zuten ICANNek indarrean .xxx domeinua. Lehen mailako domeinua da eta pornografia duten guneei ostatu emateko erabiliko da. International Foundation for Online Responsibility erakundeak ezarriko ditu domeinu horretan erregistratu gura duten enpresek bete beharreko baldintzak; besteak beste, haur pornografiarik ez, pribatutasunaren babesa eta bezeroaren onospena eskatea. Hala ere, pornografiara dedikatzen diren webguneek ez dute nahitaez .xxx domeinura migratu beharko. Hain zuzen, industria horretako zenbait domeinu berriaren erabilpenaren aurka agertu dira, esanez ghettoak sortzeko balio duela eta estatu zentsuratzailerri erraztu egiten diela lana. Eskuina eta Eliza ere ez daude pozik.

Ziber-eraso "larria" jasan du Europako Batasunak eta ezinbestean konexioa eten zuten eguaztenean

"Larri" moduan jo duten erasoak jasan zuten Batasunak joan den eguaztenean. Kanpo Ekintzarako Zerbitzua izan zen biktima eta erakundeetatik ez dute esan zein motatako erasoak izan den, ez zer informazio mota kaltetu duten erasotzaileak. Argitu duten gauza bakarra izan da Europako Batasuneko dokumenturik ez dutela hartu. Neurri moduan, sarea itxi egin zuten eguaztenean.

Facebookek egunean 20.000 profil ezabatzen ditu, gehienak 13 urte baino gazteagoenak

Horixe da, hain zuzen, profila sortzeko gutxieneko adina, nahiz eta Espainiako Estatuan 14 urtekoa izan. Muga bakarra ez da hori, ze 18 urtetik beherakoek ere ezin dute eta profil irekirik izan. Facebooken salaketa bidez zabaltzen da profila ixteko prozesua eta edozein iruzkin, argazki edo profilek daukate salatze linka eskura, konpainiako arduradunek jakinarazi dutenez. Horrez gain, konpainiak ez du prozesuen bestelako argibiderik eman.

10 urte bete ditu Mac OS X sistema eragileak, Apple-en historiako mugarrietako bat

Lehen iMac-ak plazaratu eta hiru urtera atera zuten sistema eragile iraultzailea *Cheetah* gaitzizenarekin. Aplikazio batek huts egindakoan sistema osoa ez etetea lortzea izan zen aurrerapen handienetako bat. Itxurarekin ere erabiltzaile asko liluratu zituen; orduan, leiho eta menu gardenak izatea eta kolore biziak erabiltzea estetiki oso aurreratutzat jo zuten. Multimedia euskarri guztiz garatua eta interfaze berritzailea iraultzaileak izan ziren garairako.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/amaiapavon'



Minaren aurkako txertoa II

Japoniatik dator berria, Interneten bueltaka dabil bideoa. Tokion bizi den bizilagunak Youtuben eskegi du; dienez, martxoaren 14an edo 15ean grabatu du.

Tokion bizi da familiarekin, Fukushima zentral nuklearretik 200 kilometrorra, eta kontatu digu goizean goizetik munduko bi erreaktorik handienak sutan daudela. Bizilagunak, haserre, zapping egiten du telebistan, erakusteko zer ari diren emititzen Japoniako programataileak: pizza saltokien inguruko saioa, lehia-ketak...

Aztoratuta dago, Txernobilen gertatu zenaz oroitzen da, eta beldur da ea ez ote den beharrik egongo 30 milioi pertsonako hiria husteko; baina telebistak ez dio ezer... "Lagun gaitzazue egoera hau sarean zabaltzen eta salatzen! Internet badaukazue zuen etxeetan, horrek esan gura du zuen herrialdea gurea bezalakoa dela, baina hemen ez daukagu informaziorik!", dio, asaldatuta.

Oraingoan guk ekarri dugu izen propioa duen istorioa hedabideetara, baina minak beste izaera bat du denboran eta espazioan, eta horra hor, bestelakoa da txertoaren kolo-rea.

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 28



Gorlako igoeraren laburpen zabala

20:45

Atzo, domeka, jokatu zen Gorlako igoera, ziklismoko lasterketa. Goiena bertan izan zen eta jasotakoak erakutsiko ditugu.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:10 Berbetan
14:45 Berriak
16:00 Ikusmira
16:25 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:40 Nere herrie
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Magazinea

MARTITZENA, 29



Jokin Bildarratz izango da gurean

19:45

Jokin Bildarratz EUDELeke elkarteburua elkarrizketatuko dute Arritxu Barrusok eta Eneko Azkaratek Magazinea saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kulturzulo
16:15 28. Klip
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Harmailatik
18:25 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Erremeixuak
21:20 Magazinea
22:30 Bi tartean
23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 30



Udalekuak hizpide

20:45

Geroz eta aukera gehiago eskaintzen dituzte udalekuak. Gai horren gainean solasaldia egingo dute Tertulia saioan.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:10 Onein
15:40 Bi tartean
16:15 Leku txiki bat
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:30 Erreportajea
17:50 Berbetan
18:20 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Magazinea
22:45 Tertulia

EGUENA, 31



Zumaia hitanoa berbagai

22:15

Bertako hitanoa sustatzeko ikasmateriala eta webgunea aurkeztu dute. Han jasotakoak kontatuko ditugu Gipuzkoa kultura-n.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 28. Klip
15:40 Bi tartean
16:120 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Ipupomamua
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bi tartean
21:15 Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Erremeixuak
23:15 Magazinea

EGUBAKOITZA, 1



Lehenengo sektoreari buruz

15:15

Xalao telebistak ekotzitako Uretal saioa eskainiko dugu. Bertan, lehenengo sektoreari buruz jardungo dute egubakoitzean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Leku txiki bat
16:15 Erremeixuak
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Gipuzkoa kultura
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Magazinea
22:15 Erreportajea
23:45 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

'Autobabesa mendian' ikastaroari buruzkoak gure autobusean

Besaide Mendi Elkarteak antolatutako ikastaro teorikoa eskainiko dute martxoaren 29an eta 30ean Kulturaten. Bertako hizlarietako bat Zuriñe Foronda izango da, eta, ikastaroa aitzakizat hartuta, gure autobusera gonbidatuko dugu, bertan kontatutakoak zuzenean helarazteko.

Juan Carlos Irizarrek azken diskoa aurkeztuko digu

Juan Carlos Irizarrek azken diskoa aurkeztu du: *Aizkorriko ataria*. Bada, horrelakoetan egiten dugun moduan, protagonista bera ekarriko dugu Arrasate Irratiko estudioetara lan horri buruz hitz egitera. Gainera, entzuleen artean zozketatzeko disko bat ere izango dugu.

Sareko albiste direnak 'Geek tonik' geltokian martitzenetan

Sarean notizia diren berrien gainean jakin nahi baduzu, ez hutsik egin martitzenetako *Geek tonik* geltokian esandakoei. Maider Arregi kazetariak tarte berezia eskaintzen die sarean albiste diren notiziei, eta horiek guztiak irratira ekarriko dizkigu bihar, martitzenero bezala, 10:30ean.

TELE-ALBISTEAK

'Magazinea' gai interesgarriz josita dator aste honetan ere

Korrika eta Mundumira izango ditugu hizpide, besteak beste, aste honetako 'Magazinea'-n

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Astelehenetik egubakoitzera 19:45ean zuzenean egiten dugun *Magazinea* saioa gai interesgarriz josita dator aste honetan ere.

Korrika 17 badatorrela-eta, astelehenean gure platoon izango ditugu Maite Ilarduia Korrikaren arduraduna Debagoienean eta Xabier Betzuen AEK-ko irakaslea Arrasaten. Hizpide izango dituzte Korrika Kulturala, kilometroen salmenta, behin betiko ibilbidea eta omenaldia, besteak beste. Korrika Debagoieneko herri guztietatik pasako da apirilaren

14an; Elorriotik Elgetara joango da eta Leintz Gatzagara helduko da 14:00 aldera.

Ekonomia tartean, berriz, Lanbide Heziketaren azoka izango dugu berbagai Arritxu Barruso eta Leire Kortabarriaren eskutik.

Martitzenean, Jokin Bildarratz EUDELeke elkarteburua izango dugu gurekin eta azalduko digu erakundearen egin duten azken batzarrak nola joan zen, agintaldia bukatzeaz da-eta, udalen arazoak ere izango ditugu hizpide eta udalen lege eta finantziarioaz ere



Arritxu Barruso, *Magazinea* saioa aurkeztuz. | JOSU TXINTXURRETA

Korrikaren gaineko xehetasunak astelehenean emango ditugu

Arte terapia izango dugu hizpide eguenean osasun tartean

jardungo dugu.

Mundumira munduko kulturaren jaia ere izango dugu berbagai aste honetako *Magazinea*-n. Eguaztenean egingo dute aurkezpina Elgetan, eta bertan jorratutakoak ekarriko ditugu saiora.

Autobabesa mendian ere izango dugu hizpide aste honetan. Arrasaten egingo dute ikastaroa eta gai sakontzeko aukera izango dugu telebistan.

Eguenean, berriz, osasun kontuei buruz jardungo dugu, besteak beste; aste honetan, arte terapia barrutik ezagutzeko aukera izango dugu. Arrasateko Gureak-en terapia saio batzuk izan dituzte eta Ciel Brooijmans Herbehereetatik etorritako irakasleak arte terapiarekin zer lor daitekeen azalduko digu. Tarte horretan ikasi ahal izango duguna da artearekin hitzekin baino askoz gehiago espresatzera iritsi gaitzkeela.

Panela ere izango dugu eguenero bezala, eta bertan parte hartzeko telefono zenbakia hau da: 943 25 05 03. Deitu eta irabazi argazki-kamera digitala.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Maren Beltran de Guevara Zabarte
Apirilaren 2an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat zuretako! Ondo-ondo pasatu! Familiakoak.



ARETXABALETA
Oinatz Akizu
Apirilaren 2an, 3 urte. Zorionak, txorionpio! 3 urtetxo beteitezu; gizontxo bat indda zaz honezkeru. Patxo luze-luze bat aittatxo, amatxo eta Elaiaren partetik.



ARETXABALETA
Catalina Gabilondo
Apirilaren 1ean, 96 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren eta batez ere Julen, Maddi, Peru, Nora, Xabier eta Anerren partetik.



ARRASATE
Magali Armendariz eta Kiara Dorronsoro
Magalik martxoaren 25ean, 8 urte eta Kiarak apirilaren 1ean, 6 urte. Oso ongi pasatu zuen urtebetetzea eta zorionak denon partetik, batez ere Kaiet eta Anerren partetik.



ARRASATE
Lia eta Maixe Axpe
Martxoaren 31n, 5 urte. Zorionak, *potxolas!* Ondo pasatu zuen eguna eta patxo handi bat etxeko guztien eta batez ere Nahiaren partetik.



OÑATI
Iñaxio Inza
Martxoaren 31n, 62 urte. Zorionak eta urte askotarako, aittaitta! Holaxe jarraitu urte askuan, zure ingurukak kantuz eta kontuz pozketan! Mila muxu etxeko danon eta batez be, Unax, Uxue eta eta Elaiaren partetik.



ARRASATE
Naroa Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 5 urte. Zorionak, sagutxo! Heldu da azkenean zure eguna! Ondo pasatu, Pablo, Aner, Malen, Martin, June eta Noraren partetik.



ANTZUOLA
Nora Lasa Oncala
Martxoaren 30ean, 5 urte. Zorionak, polita! Gure piratak bost urte bete ditu. Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo erraldoia amatxo eta aittaxoren partetik.



BERGARA
Naia Murgiondo Kortabarria
Martxoaren 30ean, 2 urte. Zorionak, Naia! Etxeko guztien partetik ondo pasatu eguna eta muxu handi bat!



OÑATI
Danel Azkue Agirre
Martxoaren 30ean, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, Danel! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea! Muxu handi bat aittajauna, amandria, tio lker, tia Amaia eta tio Joxeren partetik!



BERGARA
Rosa Guirao
Martxoaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, tia Rosa! Mila kilo zorion zuretako zure urtebetetzean! Goxokien poltsa beteta ekarri ahaztu barik, eh! Patxo handi bat, familia danan partetik.



OÑATI
Argider Isasti
Martxoaren 29an, 34 urte. Zorionak, aittatxo! Muxu handi bat etxeko danon partetik bereziki lker, amatxo eta nere partetik. Zure urtebetetze eguna bazkai goxo batekin ospatuko du. Muxu handi bat eta asko maite zaittugu!



URRETUXU
Markel Zabaleta Artolazabal
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak eta muxu handia gure etxeko txikiari. Tio, tia, Edure eta bereziki Itziarren partetik.




ARRASATE
Pitxi
Martxoaren 29an, 41 urte. Zorionak, tio Pitxi! Gaintitu duzu *berrogeiton* muga! Ederto pasatu, potxolo, belarri tira handi bat eta txokomuxu potoloak, etxekoen eta bereziki Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, mendizale!



OÑATI
Maite Garcia
Martxoaren 28an, 24 urte. Zorionak, Maite! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, potxola! Ospatuko bihar dan moduan. Urte askotarako kuadrilakuan partetik!



OÑATI
Aitor Freire Bastardo
Martxoaren 27an, 7 urte. Zorionak Oñati eta Arrasatekoen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Ixone Garitaonandia Uriarte
Martxoaren 27an, 7 urte. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handi handia familixakoen partetik, bereziki Urki eta Hodei. Maite zaittugu.



ARRASATE
Ane eta Nerea Jimenez
Martxoaren 27an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat Udane eta Unaen partetik.



ARETXABALETA
Ager Lanzos Erostarbe
Martxoaren 26an, 7 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Ion Aranburu Urrestarazu
Martxoaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Ion! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo asko asko etxekuen partetik, eta baita Oñatiko familixian partetik! Aber zelako merienda gertaketan dozun eh? Patxo handi bat!



ARAMAIO
Edure Ormaetxea Arriaran
Martxoaren 25ean, 5 urte. Zorionak Basautiko familia guztiaren partetik! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat!



BERGARA
Erik Ezenarro Ostolaza
Martxoaren 25ean, 2 urte. Zorionak, maitte! Muxu potolo bat etxekoen partetik.



ARRASATE
Lorena Martin
Martxoaren 25ean, 29 urte. Zorionak, tata! Eguneroko zure irifar eta muxu guztiengatik mila esker! Gaur zuretzako mila muxu eta besarkada etxeko denon partetik!




ARETXABALETA
Malen Urkia Garcia
Martxoaren 24an, 9 urte. Gure printzesa nagusiarendako mila kilo zorion eta patxo handi bat! Etxeko guztien, eta bereziki, Izaroren partetik.



OÑATI
Jokin Madina Zubia
Martxoaren 23an, 5 urte. Zorionak, Jokin. Patxo handia etxeko danan partetik.



OÑATI
Andoni Fernandez Alcalá
Martxoaren 23an, 31 urte. Zorionak, *guapisimo!* Aste bukaeran ospatuko dugu zure eguna! Etxeko danon partetik muxu asko!



BERGARA
Uxue Iriondo Igarza
Martxoaren 22an, 2 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

Zorionak!

Internet
Sar zaitetz goiena.net atarian eta *Zorion agurra* bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitetz GOIENAKo ordezkari batzera.

JAIOTAKOAK



Izaro Lopez Gomez

Bergara. Martxoaren 18a. Gurasoak: Irune eta Roberto. Argazkian, umea amarekin.



Urko Beldarrain Payros

Bergara 4,170 kilo. Martxoaren 18a. Gurasoak: Aitziber eta Eugenio. Argazkian, umea amarekin.



Unax Larrea Gantxegi

Bergara 3,400 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Maite eta Aitor. Argazkian, umea gurasoekin.



Elene Perez Zabaleta

Bergara 2,850 kilo. Martxoaren 20a. Gurasoak: Amaia eta Gorka. Argazkian, umea sehaskan lo.



Sare Larrañaga Barrenetxea

Bergara 3,300 kilo. Martxoaren 19a. Gurasoak: Ainhoa eta Ander. Argazkian, umea gurasoekin.



Gari Yarza Lasa

Eskoriatza 3,950 kilo. Martxoaren 18a. Gurasoak: Aitziber eta Ander. Argazkian, umea gurasoekin.



Maria Gonzalez del Val

Arrasate 3,180 kilo. Martxoaren 19a. Gurasoak: Maria Victoria eta Juan Carlos. Argazkian, umea aitarekin.



Izei Arana Arregi

Durango 3,800 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Ainara eta Asier. Argazkian, umea gurasoekin.



Ibon Arregi Rodriguez

Aretxabaleta 3,730 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Maitane eta Ekaitz. Argazkian, izeba Miriamekin.



Ametz eta Iker Abad Urzelai

Aramaio 3 eta 2,500 kilo. Martxoaren 23a. Gurasoak: Itxaso eta Julian. Argazkian, anai biak sehaskan.



Kenar da Silva Moreno

Bergara 3,940 kilo. Martxoaren 23a. Gurasoak: Sherezade eta Iban. Argazkian, umea gurasoekin.



Carla Beitia Manouel

Bergara 2,940 kilo. Martxoaren 23a. Gurasoak: Cristina eta Gurutz. Argazkian, umea amarekin.


BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Sakonune	Min	Dardara
Sabelaldeko min	Gurdi mota	Nasa, molla	
Ezik	Kaka		
Hurrenkera ordenatua	Behar duen unean		
Lelo	* Boliviako hiriburua		
			Ildoa
			Ipar EH-n, ordu
Bizkaieraz, garesti		Onoma topeia	
Japoniako hizkuntza		Isilik!	
Isurkari zuri		Erbioa	
Musika mota		Bokala	
	Zangoaren atala		

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

V	N	I	O	Z	Z	V	J
R	E	X	E	T	L	V	R
V	R	E	I	N	O	P	J
K	O	T	U	R	V	K	A
I	N	V	G	L	O	S	E
Z	I	V	A	R	A	G	E
T	V	K	A	L	E	K	A
O	K	L	I	K	O	L	K
H	P	Z					

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Ez urdina, ezta arrosa ere...

Gauza bat originala izatea da, eta beste gauza bat, lar originala izatea... Ripley teniente berriaren aurrean ote gaude?
www.nopuedocreer.com




AHOBERO

"Freskagarri enpresa baten eta Ferrari eta Mcarenen historiaren artekoa da borroka"

LEWIS HAMILTON | 1-FORMULAKO GIDARIA

Asteburuan hasi da 1-Formulan 2011ko txapelketa, eta egun batzuk lehenago egin zituen adierazpenok gidari ingelesak. Teknikoki akaso ez zaio arrazoirik falta, baina umiltasun apur bat ere ez dator gaizki. Akaso, motorrak berotzeko esango zituen hitzok...
The Guardian

EGURALDIA



Max. 17°

Min. 9°

Tarteka ostarteak zabalduko dira. Eurria egitekotan urria izango da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-03-28

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Ainere Tolosa Ez da erraza zizurkildar hau libre aurkitzea: zapaturu *Finlandia*-n ikus dezakegu, baita antzerkian ere, eta, hori gutxi balitz, Irakasle ikasketak egiten ari da. | TXOMIN MADINA

"Drama bat nork eskaini zain nago, gustura egingo nuke"

1. Noiz esan zenuen, "ama, artista izan gura dut"?

Amak esan zidan: "Antzerkia ikas ezazu ez baduzu ikasten jarraitu nahi; bestela, lanean hasi. Bietako bat!". Amari esker naiz artista.

2. Eta ordutik inoiz pentsatu duzu, "isilik egon izan banintz..."?

Antzerki estreinaldietan eta zuzeneko saioetan, ia beti! Horretan ere lezioa eman izan dit amak: "Zuk aukeratu duzu lan hori, horrekin bizi izaten jakin behar duzu!"

3. Telebista, zinema eta antzerkian izan zara Ixabel. Zurekin daroazu?

Pentsatzen nuen bizitza guztian izen horrekin geldituko nintzela; Hala ere, aspaldi kendu nuen nire soinetik Ixabelen figura. Baina ni neu nahiko Ixabel banaiz: katiuskak eta soinekoa janzteak gustatzen zait, belazean filosofiako liburuak irakurtzea...

4. Anne Igartiburuk ezer esan dizu Urtezaharreko ordezkatzegatik?

Ordezkatzea? Faborea egin nion: Gabonen bueltan haren izena leku guztietatik entzun behar izan nuen! Gainera, beti esaten du EITBra bueltatu nahiko lukeela... Ba, harrapazan!

5. Zer da errazagoa, imitatzea ala sortzea?

Inguruan ikusten ditudan pertsonaiak imitatuz, pertsonaia sortzea. Bestalde, ez dut oso gogoko pertsonaia ezagunak imitatzea.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Aktore izango nintzateke"

"Ea asmatzen dudana... Erakunde, biltzar edo elkarte bateko burua izango nintzateke. Baldintza hipotetikoa da, ezta? Dena den, nik nahiago baldintza hipotetiko ez burutuan formulatutako esaldia... Ez, orain serio erantzunda, erraza: orain artekoak izan diren moduan izaten jarraituko nuke; hau da, aktore".

6. Ondo pasarazteko ondo pasatu behar du norberak?

Nik bai, behintzat. Oso gogorra egiten zait zerbait antzezteari niri ez badit graziarik sortzen. Antzezman egiten da. Guztiz pletoriko ez zauden egunetan, zeuk animatu behar duzu zure burua.

7. Orain, Finlandian. Zergatik han, eta ez Etiopian edo Australian?

Eta zergatik han, edo Etiopian? Eta zergatik ez, bada, Finlandian? Bada esaldi bat: "Zergatik? Ba, haatik!". Horixe, ez duelako arrazoi edo argumenturik.

8. Bi neska umorezko programa bat gidatzen ez da egunero ikusten den zerbait...

Egia esan, ez. Anjel Alkainek argi zuen bi neska nahi zituela horrelako saio bat gidatzeko; batez ere, horrexegatik, ez delako egunero ikusten den zerbait. Harro nago hark hartu duen erabakiaz.

9. Zizurkildar moduan, ze herri eta zertara desafiatuko zenuke?

Villabona! Garai batean bi herrietako alkateak mozkortu eta tren-geltokia Zizurkilek Villabonari saldu ziola esaten da. Gauzak argitzeko, mozkor lehiaketa bat antolatuko nuke: azkenera arte irauten duen herriak tren-geltokiari herriaren izena emango lioke duintasun osoz.

10. Eta drama bat, noizko?

Nork eskaini zain nago! Gustura egingo nuke drama; gainera, neure burua ez dut umorizatatzat.

BIHARAMUNA

MARKOS
BALENTZIAGA



Jokoa ez da errenta

Libia izeneko herrialdearen mahai gainean urteetan zehar aritu dira jokoa. Munduko eta Mediterraneoko jendarmea(k), zibilizazio-aliantzatan aditua, anfitrioi eta beste izan dira jokalarik. Mahaiaren kanpoko aldean zerbitzariak, isil-isilik.

Partida luzeak izan dituzte, kafe beltz eta ke ilun artean, petrolio -eta armamentu-jokoa, salerosketa garestien kasinotan. Aldian behin haserren bat ere izan da: anfitrioiak jendez beteriko hegazkinen bat eraitsi du (Eskozian, esaterako) eta gonbidatuek, ordainetan, kasino ingurua gonbardatuz erantzun dute. Joko-harmoniak, dena dela, irauin egin du.

Gaur Libia izeneko mahai-jokoaren inguruan, baina, ez da giro. Zer gertatu da? Huskeria bat: zerbitzariak kasinoko jaunari, xuxen-xuxenean, erretiroa hartzea exijitu diote! Ondorioz, jokalariek haserre dira elkarren artean. Gonbidatuek eta zerbitzariak kasinoduna gerizpetan ikusi nahi luke Libiako eguzkiak kalterik egin ez diezaion.

Partida hasi berriak galtzekoak kasinoko jaunak ditu; ez da, baina, segurua, oraingoan ere, galtzailea nor izango den, jokoa ez baita errenta.

SEAT ALHAMBRA BERRIA

Goatzeko teknologia

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

